

Joxe Mari Lertxundi

# Iragana gogoratzuz



Joxe Mari Lertxundi

# **Iragana gogoratzuz**

LERTXUNDI, Joxe Mari (1932-)

*Iragana gogoratzuz* / Joxe Mari Lertxundi ; [hitzaurrea, Joxemari Iriondo]. - [S.l.] : Auspoa ; Donostia/San Sebastián : Gipuzkoako Foru Aldundia, 2018.

255 or. : argk. ; 20 cm. - (Auspoa Liburutegia ; 336)

Aurkibidea

LG SS 812-2018. - ISBN 978-84-7907-790-7

I. Iriondo, Joxemari (1938-). II. Gipuzkoa. Diputación Foral. III. Izenburua. IV. Saila.

821.361-82"19"

821.361-82"20"

*Egilea:* Joxe Mari Lertxundi (1932-)

*Iragana gogoratzuz:* Joxe Mari Lertxundi

*Aurkezpena:* Joxemari Iriondo

*Argazkiak:* JM Iriondo, Euskaltzaindia, Jose Arg. Zumaia, Gipuzkoako Foru Aldundia, K. Loubet, foto Ramiro

*Azaleko argazkiak:* JM Iriondo, Euskaltzaindia

*Edizioa eta zuzenketak:* Joxemari Iriondo

© Edizio honena: AUSPOA Argitaletxea  
Gipuzkoako Foru Aldundia

ISBN: 978-84-7907-790-7

Legezko Gordailua: SS-0812-2018

*Maketazioa:* Gipuzkoako Foru Aldundia

*Inprimatzailea:* Leitzaran Grafikak, S. L., Gudarien etorbidea, 8.  
Andoain (Gipuzkoa)

Joxe Mari Lertxundi

# Iragana gogoratzuz



Gipuzkoako  
Foru Aldundia



ORAIN  
GIPUZKOA

Donostia / San Sebastián, 2018

## Aurkibidea

---

Atarikoa .....	11
Aia .....	19
Agina .....	25
Laurgain .....	29
Laurgaingo basetxe berria .....	31
Laurgaingo arduraduna .....	35
Afaritarako gaua .....	41
Negu gogorra .....	45
Afalondoko bertsoak .....	49
Ontz txuria eta kattagorria .....	55
Laurgaingo eremuetan .....	59
Entrada prohibida .....	63
Isunak eta debekuak .....	67
Modestoren ezkontza .....	71
Nere moto berria .....	75
Aserre eta naigabeak .....	79
Hernanira bizitzera .....	83
Gure ezkontza .....	87
Istripua eta Xenpelar saria .....	91
Laurgaingo ganadu-feria .....	95
Miraria .....	103
Eiztarien larria .....	109
Soldaduzkako bertso-eskola .....	113
Laurgaingo arduradun berria .....	117
Maizter berriak .....	121
Modestoren portaera kaskarra .....	125
Basetxeko zerbitzuak .....	129
Zuzen jokatzuz .....	133
Beti zerbait ikasten .....	137
Balduino eta Fabiola Laurgaiñen .....	141
Erriko esamesak .....	147
Estuasun galanta .....	149
Añabasoko borda berria .....	153

Araluze jaunaren biltzarrak .....	159
Araluze il dute .....	163
Santiago San Martin eta Aroztegitarrak .....	167
Xabier Aizarnaren garaia .....	171
Atariko erlesemea .....	179
Laurgaingo billerak .....	185
Aiako bertsolarien txapelketa .....	191
Laurgaingo bertso-eskola .....	195
Gipuzkoako Bertsolarien Txapelketa Nagusia .....	199
Aiako bertsolariak berriz ere .....	203
Laurgaingo basetxearen onespina .....	205
Laurgain bigarrenez onesten .....	209
Neure liburuaren aurkezpena .....	215
Albisturtarren urrezko eztaiak .....	219
Iruzur gaizto asko .....	225
Pagoetako parkea .....	229
Ostera Galarzelai Txikira .....	237
Erretiroa artu eta gero .....	241
Laurgaingo bi aroak .....	245
Emazte maitearen eriotza .....	249
Emazte zanaren gorazarrez .....	253

## Atarikoa

---

Joxe Mari Lertxundi Zuloaga, Aiako Argin baserrian jaiotzen, Arruti-egia bailaran, 1932ko abenduaren 9an; eta jaioterrian darama bizialdia. Bere ustez, izan ere, non hauxe baino leku hobetik bizitzeko?

1963ko urtarrilaren 9an ezkondu zen, bere andregai Maria Kontzepzion Ibargurenek 27 urte bete zituen egunean. Eta Aiako Galarzelai Txiki etxean bizitzen jarri ziren, harik eta Gipuzkoako Foru Aldundiak Laurgaingo basetxearen ardura eman zien arte. Hiru seme izan zituzten Joxe Marik eta Mariak. Bigarren haurtxoa jaioberritan hil zitzairen, zoritxarrez.

Auspoa sail honetan ezaguna da lehendik ere Joxe Mari Lertxundi. Bere lehenengo liburua, *Baso tarteko oiua* (Auspoa 167), 1983an eman zuen argitara; 1991n plazaratu zuen *Igaroari begira* (Auspoa 214); 1994an, *Sorlekua-ren kezka* (Auspoa 220); eta 1996an, *Beti festara begiak* (Auspoa 236). Beraz, bosgarrena du oraingo hau, urte asko isilik egon ondoren.

Aiako herriari eta inguruari dagozkion gogoetak eta istorioak dakarzkigu Joxe Marik *Iragana gogoratuz* (Auspoa 336) honetan. Bizitzan zehar bere ingurumari hurbilean ezagutu dituen historia eta istorio zahar eta berri interesgarriak jaso eta metatu ditu orain ere, Laurgaingo basetxe maitagarria utzi zuenez gero asti gehixeago ere izan du-eta horrelako lanetarako.

Idazle ez ezik bat-bateko bertsolari, bertso-jartzaile eta bertsozale porrokatua ere badela esan behar dugu Lertxundi. Horrelaxe aitortzen du berak: "Etxean bertsozaletu nintzan, gure aitak bertso zaar asko kantatzen zuen, eta bat-batekoak ere tartekatzen zituen sarri".

Hiru hilabete inguru iraun zuen bere soldaduskagariaian izan zuela esan ohi du beretzat lehenengo bertsoeskola. Pena ere badu soldadutza horrek gutxi samar iraun izana, nahiz eta inork ez zuen gustuko izaten urte asko iraun zuen mutil gazte guztien betebeharrak madarikatu hura.

Lagunartean-eta ezaguna bazen ere, 1963an hasi zen bere burua ezagutzera ematen benetako Lertxundi bertsolaria. Izan ere, urte horretan herriko bertsolarietaz txapelketa antolatu zuten Aiako eta auzoetako lau apaizek. Txapelketan parte hartu nahi zuten gazteak biltzen ahalegin handia egin zuten etxez etxe joan eta bertsolari bakoi-tzarekin hitz eginez. Honako bederatzi hauek bildu ziren lehenengo hartan:

Joxe Antonio Arrillaga "Arruti"  
Jesus Etxabe "Errezabal"  
Joxe Mari Lertxundi  
Jaime Manterola "Argurutze"  
Markos Manterola  
Joan Joxe Rezabal "Leola Berri"  
Joxe Mari Roteta  
Luis Uranga "Otzarreta" eta  
Nikolas Zendoia "Izeta"

Lehiaketa hartako supiztaile eta bertsolarien epaile Jesus Gaztañaga, Xabier Azurmendi eta Andoni Lekuona apaizak izan ziren. Aurkezle eta gai-emaiaren zeregina azkenengo horrek bete zuen; eta megafoniaren ardura, berriz, herrian parrokoaren ordeko zegoen Jesus Iturrazpe jaunak.

Egin behar ziren saioak egin, bertsozale askoren gogogarriak asebetu, eta Joxe Mari Lertxundik jantzi zuen herriko bertsolarien lehenengo txapela.

Euskal Herriko Bertsolarien Txapelketa Nagusirako kanporaketak Zarautzen, Eibarren eta Tolosan egin ziren,



1964an. Zarauzko saioaren ostean Eibarkoa egin zenean, lau bertsolari onenak hautatu behar ziren. Lazkao Txiki, Mitxelena, Garmendia eta Lertxundi pasatu ziren aurrera, hain zuzen. Gipuzkoako final nagusia Tolosan egin zen, eta han ere lau onenak aukeratzeko legea emana zuten, baina Lazkao Txiki lehenengo, Garmendia bigarren, eta Mitxelena hirugarren hautatu zituen epaimahaiak. Lau ez baina hiru bertsolari bakarrik, alegia. Han minduta-edo, urte asko egin zuen gero Lertxundik gehiago txapelketara azaldu gabe.

Baina irrikaz zeuden aiarrak berriz ere herriko bertsolarien indarrak eta trebeziak neurtzeko. Eta lehenengo txapelketa hura egin eta handik hogeita hiru urtera, Aia eta auzoetako bertsolarien norgehiagoka antolatu zuen Udaletxeko festa-batzordeak, 1986an.

Tamalez, ez zen jaso lehiaketa horretako beste informazio zehatzik, baina badakigu gero, 1987an, parte hartu zuten gehienek hitza eman zutela: Jose Antonio Manterola “Zatain”, Martin Rezabal “Olaso”, Manuel Lertxundi “Olaberria”, Markos Manterola, Joxe Mari Lertxundi, Luis Otamendi, Nikolas Zendoia “Izeta”... Lehia gogorraren ondoren, Luis Otamendik jantzi zuen 1986an herriko bertsolarien bigarren neurketako txapela, eta Nikolas Zendoia “Izeta” izan zen bigarren.

Berrito ere, 1987ko udaberrian, deialdia egin zuen Aiako Udaletxeko festa-batzordeak, herriko eta auzoetako bertsolarientzat, eta ondo erantzun zuten bertsolariek. Baietza eman zutenen zerrenda hau da, gure informazio-iturriak okerrak ez badira behintzat:

Joxe Mari Lertxundi  
Nikolas Zendoia “Izeta”  
Jabier Etxabe “Armendia”  
Markos Manterola  
Joxe Antonio Manterola “Zatain”

Martin Rezabal “Olaso”  
Luis Otamendi  
Leon Endaia eta  
Manuel Lertxundi “Olaberria”

Bederatzi bertsolariek kantatu zuten 1987ko txapelketan, maiatzaren 2an. Eta emanak eman, Nikolas Zendoia “Izetak” jantzi zuen txapela, eta baita bertso onenaren saria jaso ere. Epaimahaiko lanak Joxe Mari Aranaldek, Antton Aranburuk eta Pello Esnalek egin zituzten.

Alabaina, lehia batek bestea ekarri ohi omen du askotan, eta Aian ere ez ziren hartan gelditu gauzak. Aurreko norgehiagokak bertso-gosea eta grina suspertu zituen lehenaz gainera, eta neurketa handitu eta hobetu beharrez, Aiako eta muga-herrietako bertsolariei dei egitea erabaki zuten, 1988ko udaberrirako. Eta bertsolariek gogotik erantzun zuten berriz ere:

Kandido Arrojeria “Basabeltz”  
Bernardo Azpillaga  
Juan Jose Eizmendi “Loidisaletxe II”  
Joxe Antonio Gesalaga “Xaldubi”  
Nikolas Zendoia “Izeta”  
Manuel Lartxundi “Olaberria”  
Luis Otamendi  
Pello Esnal  
Eusebio Lasarte “Lasarte II”  
Joxe Antonio Manterola “Zatain”  
Markos Manterola  
Martin Rezabal “Olaso”  
Jabier Etxabe “Armendia”  
Joxe Mari Izeta eta  
Joxe Mari Lertxundi

Zerrenda luze honetako xehetasunak hala-hola jasota daude inolaz ere begiratu ditugun artxiboetan, eta bakarren bat faltako da zerrendan, beharbada.

Txapelketarako hitza eman zuten bertsolariekin lagunarteko afari batean bildu ziren herriko Alkar elkartean, eta baldintza eta arauak finkatu eta onartu zituzten, gero esames eta berriketa txarrik izan ez zedin.

1988ko maiatzaren 14an eta 21ean egin ziren kanporaketa-saioak, bertsolariak bi taldetan banatuta. Eta puntuarik gehien bildu zuten honako zortzi bertsolari hauek ekainaren 4ko saio nagusian neurtu ziren azkenik:

Bernardo Azpillaga  
Juan Joxe Eizmendi "Loidisaletxe II"  
Pello Esnal  
Joxe Mari Lertxundi  
Joxe Antonio Manterola "Zatain"  
Markos Manterola  
Luis Otamendi eta  
Nikolas Zendoia "Izeta"

Txapelketa horretako gai-emaile Juantxo Iruetagoiena izan zen; eta epaile-lanetan, berriz, Joxe Mari Aranalde, Antton Aranburu, Juan Peñagarikano "Artzain" eta Luis Arrillaga "Arruti" izan ziren.

Urte horretako garailearen txapela Joxe Mari Lertxundik jantzi zuen, eta Juan Joxe Eizmendi "Loidisaletxe II" errezil-darra izan zen bigarren. Bertso onenaren kopa Pello Esnalek jaso zuen, lau oinak emanda zortziko txikian bota zuen bertso dotore bati esker.

Herriko eta inguruko bertsolarien txapelketaz gainera, 1989an Euskal Herriko Bertsolarien Txapelketa Nagusian, eta 1991n egin zen Gipuzkoako txapelketan ere saiatu zen Lertxundi, eta aurrera samar joan zen.

Hala ere, bat-bateko lana baino bertso idatziak, bertso jarriak maiteago izan dituela kontatzen du Lertxundik. Xenpelar, Bilintx, Txirrita eta garai bateko beste bertsolari zaharrek egin zuten bezalaxe, bertso asko idatzi izan du. Ezagun bezain maiteak izan ditu Basarri, Uztapide, Xalbador, Lasarte eta abarren bertso idatziak ere. Esan ohi duenez “maisur onak dira oriek zerbait ikasi nai duen bertso-jartzailearentzat”.

Gaur eskuartean duzun *Iragana gogoratuz* idazlan hau aspalditxotik zerabilen buruan jiraka Lertxundik. Laurgaingo basetxean egindako hogeita hamahiru urteko gazi-gozoen ondoren, 1998ko otsailaren 14an jubilatu eta Laurgaingo basetxe maite horretako lanetatik aske gelditu zenean hasi zen bere bilketa osatzen, nahiz eta emazte Maria zenaren osasunik ezaren eta haren heriotzaren garratzak atzeratu eta gogor nahigabetu zuen. “Ondo bizi bear genuen garaian etorri zen Maria emazte maitearen sufrimentua eta eriotza. Ez zuen orixe merezi Laurgaingo basetxean ainbat mokadu eder prestatu eta lagunarte ederrak gozatzen lagundu zidan emakume bedeinkatu ezin obe ark”, dio begiak gorrituta.

Laurgainen bizi izan zituzten egun onak eta gaiztoak, garaian garaiko joera ezberdinetako politikoen zerbitzuan zintzotasun handiz egindako lanak, Lardizabal familiaren, Narrosko Markesaren eta Gipuzkoako Foru Aldundia-  
ren arteko tratuak Aia aldeko baso-lurrak eta baserriak erosteko, 1956ko urtarrillaren 30ean, on Antonio Zabaleta eta hamabi laguneko bere taldearen aurrean herriko Joanene ostatuan egin zuen bere lehenengo bertso-saio hura, Lambretta moto berrian izan zuen istripu larria, Balduino eta Fabiola errege-erreginen bisitak Laurgainera, Gipuzkoako ahaldun nagusien eta kargudunen ospakizunak Laurgaingo basetxean, behinola azeritzar gosetiak eman zizkien buruhaustek, Araluze ahaldun nagusiaren heriotza eta hileta, edota Ardantzeta familiaren ospakizun

batean erlesemeak eman zizkien estuasuak, Eusko Alderdi Jeltzalearen iskanbila eta erdibitzea, Añabasoko bordaren inaugurazioa eta han botatako bertsoak, edota berriro Galartzelai Txikira itzuli zirenekoak, emazte zenaren heriotza mingarria eta abar gogoratzen dizkigu orain. Halaber, Auspoaren sortzaile eta buru-bihotza izan zen Antonio Zavalak eta euskal kultura munduko beste askok Laurgainen egindako bilerak kontatzen ditu Lertxundik *Iragana gogoratuz*.

Maitasunez eta jatortasunez ahalegindu da historia eta istorio nahasi horiek bildu eta metatzen, oraingo eta geroko gazteek ere gogoan izan ditzaten. Orrialde gutxitan hamaikatxo gertakizun-gertakari aurkituko duzu, Auspoaren irakurle horrek. On deizula.

Joxemari Iriondo



## Aia

---

Baserri-erri polit bat zan leenago, eta orain ere alaxe izaten jarraitzen dio. Baiña azkenengo berrogeita amar urte auetan asko aldatu da Aia, eta aldatzen jarraituko dio, bizitzako legea ori baita.

Kantauri itsasoaren ertz batean dagoen Zarautz erritik amaika kilometrora, egoalderako norabidean dago Aiako errigunea, tontor batean kokaturik. 1900garren urtean 3.000 biztanle inguru or nonbait edukiko zituen. Andik mende erdi batera 1.600era iritsi eziñik zebillen.

Beerakada ori, baserriak usten asi ziranean gertatu zan. Bere garairik onenean 350 baserritik gora zituen Aiak, baiña gaur erdira ez gera iritsiko. Gaiñera, leenago zortzi edo amar lagun bizitzen ziran basarri bakoitzean. Orain, berriz, geieneko lau lagun biziko dira, eta ortik beerakoak geienak. Etxe askotan aita eta ama zaarrak seme batekin, aurrerako etorkizunik gabe geldituak.

Aiako biztanle kopuruari beeraka egiten bultza dioten arrazoiak badira bat baiño geiago. Leenengoa, baserrian seme zaarrena gelditu eta beste senideak nonbaiten lana billatzen bazuten, an asiko ziran lanean, eta gero nola batetik bestera ibiltzeko erreztasunik ez zegoen, aal zutenak etxea erosita edo errentan artuta lana zeukaten errian bertan gelditzen ziran bizitzen. Gaiñera, orduan ez zegoen etxebizitza-aukerarik ere gure alde onetan. Eta ori zan beste arazo larria.

Gauza orien eragiñez, beerakada nabarmena etorri zitzaion, bada, Aiako erriari. Baiña azkenengo urte auetan gauzak asko aldatu dira. Aiako errigunean bertan berreun etxebizitza edo geiago egin dira, eta erriko auzoetan beste berrogeita amar edo geiago. Aurrerantzean ere etxe berriak egiteko asmoak dauzkate gure erriko agintariak.

Erriko iru auzotan –Andatzan, Santiagon eta Ubegunen– fabrika eta lantoki berriak martxan jarrita daude, eta azkenengo ogei urte auetan biztanlegoak gora egin du. Bearbada geiegi ere bai. Leenago Aiatik auzo-errietara gazteak joaten ziran bezela, orain beste errietatik Aiara bikote gazte asko dator, etxebizitzak merkexego daudelako-edo. Gaiñera, Aia toki ederra eta paketsua dalako ere izango da. Eta bikote gazteak etortzea jendea ugaltzeko izan litekeen gauzarik onena dala aitortu bear. Orain arte ala izan da beintzat.

Erri saillez oso zabala da Aia. Gipuzkoan erri saillik aundienak dituztenen artean seigarren tokian omen dagoela entzun izan det, amaika auzotan banatuta. Auzo orietako bat Laurgain da, eta auzo orrek bere goiko gaillurra 700 metroko garaieran dauka. Gain ori Pagoeta mendia izenarekin ezagutzen degu. Garai batean dana pagoz jantzia omen zegoen, eta izena ortik datorkio, noski. Laurgain auzoaren barreneko oiña, Zarauzko erriaren eta Oria ibaiaren erdigunean dago, Kantauri itsaso aundiak musukatzen duela. Gipuzkoan ez dira erri asko izango baldintza oriek dauzkaten auzoak.

Laurgain auzoa danetik osatua dagoela esan genezake: mendia, itsasoa, baso sail zoragarriak eta baserri ederrak gaiñera. Gaur ere goialdean pagadi ederrak badauzka. Erdigunean, ariztiak –autotoknoak eta amerikanoak–, eta gaztaiñoondoak ere bai, baiña garai bateko aldean gutxi. Orrez gaiñera, gorosti, urritz, urki eta zuaitz mota asko dago baso auetan. Altza ere ugari da emen, batez ere erreka-bazterretan, eta lizarra askoz geiago. Azi asko izaten du onek, eta nonai ernetzen da lizarra. Orregatik da orrelain ugaria.

Laurgaingo eremuan beste zuaitz mota berezi bat ere bada, agiña deitzen zaiona, alegia. Euskalerrri osoan izango zan oso berezia agiña, abizen asko baitira agiñarekin lotura dutenak. Auzo eta toki batzuen izenak ere badira agiñarekin zerikusia dutenak, eta orrek zerbait esan naiko du.



Toki batzuetan zuaitz mota ori, zerbaiten eragiñez, urritua edo desagertuta omen dago. Baiña Laurgaiñen gaur ere ugari dago agiña. Toki laiotza maite du, eta Laurgaingo basoak laiotzetik daude eta, bearbada, orretzek lagunduko dio irauten. Bestela ori ere galdu zan onezkero.



Galarzelai Txiki, 2016 (JM Iriondo)





## Agiña

---

Zuaitz mota adartsua izaten da agiña geienetan, luzera aundirik gabea eta oso iraunkorra, urte guztian berdeberde egoten dana. Berez zuaitz koskorrak izaten badira ere, tarteka aundi samarrak izaten dira.

Laurgaingo eremuan badaude arritzeko modukoak. Baiña inguru onetan dagoen aundiena, Sagartzizabal base-rritik gora Pagoeta mendiko gaillurrean dagoen gurutzera bitarteko erdigunean dago. Txindurka<sup>1</sup> baten ertzean dago, ain zuzen ere. Orain 40 urte, gutxi gorabeera, neronek neurtu nuen, eta orduan nere altueraren parean 2,70 metroko lodiera zeukan gerri-bueltan. Onezkero geiago edukiko duela ez dago zalantzarik. Agiña nola bizi luzekoa dan, urte askoan bizitzen diran zuaitz mota oriek azitzen ere urte askoan jarraitzen dute. Ordutik ona dextente aziko zan gure agiña, nere ustez.

Agin zuaitz orrek, beste geienak bezelaxe, bere fruituak izaten ditu, basamaats-alearen antzekoak, kolore gorri bixikoak. Basatxoriak oso gustokoa izaten dute. Fruitu oriek eta bere adarretako ostoa, ordea, gizakiarentzat eta ausnarrrik ez duten abereentzat pozoi ilgarria daukate nonbait, geienbat astoentzat. Aiako erri onetan asto bat baiño geiago izanak badira agin-ostoa jan eta betiko lotan geldituak. Beraz, oso kontuz ibiltzekoa da agiñaren ostoa.

Bein batean gauza bitxia gertatu zan gure erriko kaskoan, eta merezi duela uste det gertatu zana idatzita jartzea ondorengoak ere gauza orren berri izan dezaten.

Orain dala mende erdi bat-edo, eta leenago ere bai seguru asko, lau urtetik bein gotzai jauna etorri oi zan Aiara,

---

<sup>1</sup> Errekatxoa

beste erri askotara bezela, gaztetxoei sendotzako sakramentua ematera. Konfirmatzera, esan nai nuke.

Beste errietan ez dakit zertsu egingo zuten, baiña Aiako errian oitura zan garai artan gotzaiari oore aundiko arre-  
ra egiteko orrela zetorrenean. Erriko plazako sarreran agin-  
adarrez egindako arku eder bat jartzen zan ongietorri egite-  
ko. Alaxe, gotzai jauna eta erriko apaizak aurrean, gero  
agintariak eta ondoren erri osoa, danak arku orren azpitik  
igarotzen giñan begirune aundiz. Ura gauza aundia zan,  
noski, ikusgarri ederra. Begien aurrean daukat oraindik ere.

Urte batean, gotzaiaren bisita-eguna igaro eta urren-  
go egunetan, erriko sarrerako arkuan jarrita zeuden agin-  
adar oriek kendu eta erriko bazter batean pillatu zituzten  
nonbait. Baiña, zer gertatuko eta agin-adar orien ostoa  
jan eta Manuel tabernariaren astoak bere bizia galdu, zori-  
txarraren zoritxarrez.

Ezbear gaizto ura gertatu eta bereala, urrengo igan-  
dean-edo, neu eta beste iru mutil lagun joan giñan Manuel-  
en tabernara, eta zerbait artuaz Manuelekin kontu-kontari  
berriketan ari giñala, nere lagun batek galdetzen dio:

-Zer, Manuel, egia al dek agin-ostoa janda akabatu dala  
zuen astoa?

Eta Manuelek:

-Bai, motell, egia dek ba. Obispoaren bisita orrek ez  
zidak mesede aundirik ekarri aurten. Orain beste asto berri  
bat erosi eta guri ekartzea izango uake bidezkoena, baiña  
obispoari eskatu besterik ez dek egongo. Gero lagun urkoa  
maitatzeko esango ditek...

Oso berotuta, aserre bizian zegoen gure Manuel taber-  
naria. Eta arrazoi zuen, noski.

Taberna orretan askotan izaten zan gizon bat an zegoen  
ordu an ere, guri begira. Berez gaillegoa zan, eta euskeraz  
ez zekien, baiña Manuel ala aserre ikusi zuenean, arriturik  
esan zion:

–Qué te pasa, Manuel?

Eta Manuelek:

–¿Qué me pasa? ¡Kauen los obispos! Ha comido la hoja de muela y se ha morido mi burro.

Orduan, an geunden lau gazteok zer gertatu zan nola bagenekien, aren esateko graziarekin parrez leertu giñan. Ala, gaillegoak zerbait obispoagatik ari zala ulertu izango zuen, baiña “la hoja de muelak” zer esan nai zuen arrastorik atera ezin ark. Nola ba?

Garai artako baserritarrak erderaz oso gutxik zekiten, eta Antonio ere berez baserriko semea nola zan, gauza normala zan ark esan zuena. Agiñak erderaz “tejo” izena zuenik sekula ez zuen entzungo eta esan zuenarekin naiko ondo moldatu zala esango nuke nik.

Gero tabernatik irten giñanean, mutil aietako batek gaillegoari esplikatu zion “la hoja de muela” zergatik esan zuen, eta orduan benetan ark gozatu zuen. Aiek parre-algarak egin zituen!





## Laurgain

---

Laurgain oso auzo berezia izango zan garai batean, eta orain ere berezia izaten jarraitzen dio, aldakuntza aundiak egin arren.

Laurgaingo auzoa, Aiako errigunetik sartalderantzako norabidean, Zarautz aldera dijoan errepidean iru kilometro ingurura dago. Bide orretxen ertzean dago Lardizabaldarren jauregia ere, eta andik eun metro gorago auzo orren erdigunea. Bertan daude eliza, apaizetxea, serora-etxea eta tolare-etxea. Orain, leen ez zegoena, elizaren aldamenean, illerrirako bidearen ondoan elkarte eder bat ere badago, eta benetan zerbitzu aundia egiten duena gaiñera noiznai bildu eta lagunarteak egiteko ere.

Laurgaingo auzo orren erdigunean dauden eliza eta beste etxe guztiak Lardizabal jaunarenak omen ziran garai batean. Eta orietaz gaiñera, beste ogei baserri eta 800 ektareako baso saillak ere bereak omen ziran. Baso onak gaiñera.

Gauza oriek guztiak on Ramon Lardizabal jaunarenak ziran, esan bezela. Baiña senar-emazte oriek seme-alabarik ez zutelako, edo beste zerbaiten eragiñez, Laurgaingo eremuaren zati aundi bat eta beste zortzi baserri saltzea erabaki omen zuten, eta zeregin orietan ibiltzen zan pertsona bat bitarteko jarri eta Gipuzkoako Foru Aldundiari eskaiñi zizkioten orko baserri eta baso sail oriek. Aldundiari aukera paregabea zala iruditurik, tratua egiteko arremanetan asi ere bai laster. Baiña Aiako errian garai artan albaitari zegoena eta aren beste bi lagun baserriz baserri, Laurgaingo auzoan saltzeko jarri ziran baserri aietara joan omen ziran esanez:

-Zuek ainbeste urtean nagusiari errenta ordaindu diozute, eta orregatik orain eskubide osoa daukazute zeuek erabiltzen dituzuen soro, zelai eta garomanak erosteko.

Orretarako dirurik ez badaukazute ere lasai egon, oso diru merkea lortuko degu eta.

Albaitaria eta bere lagunak eman zizkieten kontsejuak animatuta, berak bizi ziran etxeak eta lurrak erosteko zora-zen jarri omen ziran danak, baiña ez zuten izan ura gozatzeko suerterik.

Esaera zaarra da, aundiak aundiarekin egiten dituela tratuak, eta Laurgaiñen ere orrelako zerbait gertatu izango zan. Tratua luzatuarazi egin omen zuten, baiña ezer onik lortu ez. Beste jauntxo oriek sakelak berotzeko asmoa izango zuten baserritarren aitzakian, baiña ez zuten onik izan aiek ere. Azkenean beintzat Lardizabal jaunak Gipuzkoako Foru Aldundiari saldu zizkion leen esan dedan baserri eta baso sail oriek guztiak.

Orrelaxe izan zala esaten dute eremu preziatu orren eskuz aldatzea.

Garai artan Gipuzkoako Aldundiko presidente zegoen on Jose Maria Caballero jauna eta bere aaldunak pozik omen ziran alako eremu ederra erosi eta Aldundiaren eskuetara aldatu zanean. Baiña saldu zuena, edo zutenak, Lardizabal jauna eta bere emaztea, benetan triste eta saminduta gelditu omen ziran. Ez zan gutxiagorako. Gizaldietan Lardizabal-darren ondare izan ziran baserriak eta basoak betiko galdu zituztela konturatu ziranean, benetan mingarria izango zan saltzailleentzat. Ez dago zalantza aundirik.

Jose Maria Azketa jaunak, mendi-injenieroa eta Aldundiko basogintzako zuzendari zanak, Laurgaingo eremu orretako tratua egin aurretik, inguru dana zeatz-meatz ikusi eta aztertu omen zuen. Eta ori guztia egiten zebillela, Artetxota deitzen zaion gunere orretatik gora igo eta Muñotako gainera iritsi zanean, gunere ari begia bota omen zion, eremua erostera iristen baziran basozaiñarentzat etxea egiteko toki ezin ohea zala eta. Beren artean erabaki orixe artuta itzuli omen zan Aldundira.

## Laurgaingo basetxe berria

---

Laurgaingo eremu orren nagusi Lardizabal jaunaren eta Aldundiaren arteko salerosketan bitartekaritza-lanetan ibili zana Antonio Zabaleta jauna izan zan, Lardizabalekin eta Aldundiarekin ere arreman ona zeukan gizona zan eta.

Laurgaingo eremuaren zati aundi bat Aldundiak erosi zuen garaian tratua bideratzen ibili zan on Antonio Zabaleta, eta gai orretan aditua nola zan, gero ere Aldundiko basogintza zerbitzuetan bertan jarraitu zuen.

Laurgaingo eremuaren zuzendariak eta on Jose Maria Azketa mendi-injenieroak elkarrekin jarraitu zuten eremu orretako eraikuntzan, Zabaleta jaun ori oso lagun miña baitzuen, esaten zutenez.

Laurgaingo eremu eder orren eskriturak egin eta Aldundiaren izenean jarri zutenean, aaldun nagusi Jose Maria Caballero, on Jose Maria Azketa eremu orretako zuzendaria eta on Antonio Zabaleta, beste iru basozain lagun zituztela etorri ziran Laurgaiña, eremu orretan zertsu egin zitekeen ikusi eta aztertzeraz. Joxemari Gurutze deitzen zaion gunean autoa utzi eta Artetxotan gora kamiñoa nondik nora egin bear zan aztertuz, Muñotako gaiñera igo ziranean, Azketa jaunak leenago nola ikusita zeukan, aaldun nagusiari esan omen zion:

-Basozaiñarentzat etxea egiteko toki egokia auxe iruditzen zait neri, baiña zuen iritzia jakin nai nuke.

Orduan, aaldun nagusiak:

-Tokia neri ere asko gustatzen zait: bista ederrak, toki lasaia... Oso ondo dago, baiña basetxe berria egiten asitakoan, basozaiñaren bizitokiaz gaiñera beste saloi eder bat ere bear du etxeak, geure billerak eta noizean bein bazkari goxo batzuk egiteko leku aproposa baita.

Eta Azketa jaunak itza arturik erantzun:

–Ori gauza ederra izango litzake, bai, baiña emen egin bearreko gauza asko dago: etxe berria, beeko errepidetik ona kamiñoa, Astigarretako iturritik ura ekartzea, argindarra eta telefonoa jarri bear dira, basoen berrikuntza eta baserrietako bizitokiak eta ukuilluak berritu bearrean daude, eta gaur Aldundiak daukan presupuestoarekin ez dago oriek guztiak egiterik. Amets egitea ez da naiko, sosak bear dira orretarako, dirua...

Azketa zuzendariaren aurkezpena entzun zuenean aaldun nagusiak erantzun omen zion:

–Oso ondo dago kontuak aurrez ateratzea, baiña eremu au dana leen bezela uztekotan ez zuen merezi erosterik, eta basetxe berriari dagokion ekintzari jarraitu bear diogu serio, baserria berritzeko lanak aurrerago egingo ditugu eta.

Orrela erabaki omen zuen Jose Maria Caballero aaldun nagusi jaunak Laurgaingo eremura egin zuten bisita artan.

Laurgaiña bisita egin zuten eguna, 1955eko martxoaren aurren alde izango zan. Eta basetxe berria egiteko tokia eta Aiatik Zarautza dijoan errepidetik Muñotako gaiñera bitarteko kamiñoa egiteko bidea markatuta utzi zuten. Gero, aste artan bertan, Laurgaingo eremuan egin nai ziran eraikuntzak onartuko baziran, Aldundian batzar berezia egin zuten, eta baita onartu ere. Billera ondo burutu zala ikusirik, aaldun nagusiak esan omen zien bere taldekideei:

–Laurgaingo eremuan basetxe berria eta gaiñerako eraikuntzak martxan jartzea onartu degun ezkerro, basetxea egin bear dan tokia bedeinkatuz, bertan bazkari bat egitea proposatzen dizuet. Zer iruditzen zaizue?

Danak ao batez baiezkoa eman omen zioten. Eta bazkaria egiteko eguna jarri zuten, baiña prestakuntzak egiteko amabost egun bakarrik nola zeuzkaten, berealaxe asi omen ziran artarako lanetan. Muñotako gaiñean, gero basetxea eraiki bear zuten tokian, zortzi tantai luze tentekatuta jarri

omen zituzten, aien gainean toldo aundi bat zabaldu, lotu eta aizeak eramateko beldurrik gabe, mendebal aldea eta alboak toldoz itxi omen zizkioten. Euria edo aizea gertatzen bazan ere, aterpea eta babeseta seguratuak zeuzkaten beintzat. Beeko errepidetik gain orretarako bide zaarra ere berritu, txukundu bat eman eta pronto jarri zuten mendiko ibilgailluz bazkari artarako bear ziran janari-edariak eta abar jasotzeko.

Ori guztia martxan jarri zuten, baiña aaldun nagusiak gain orretan bazkaria egin bear zan egunerako beste baldintza bat jarri zuen: basetxe berria egiteko aukeratu zuten lur zati ura bedeinkatzea, alegia. Eta orretarako, Laurgaingo auzoan elizaren ardura eta zuzendaritza zeukan apaiza Ramon Zabaleta jauna zan, Zegamako semea, euskaltzale amorratua gainera, eta aaldun nagusiak gutun bat bidali omen zion esanez:

“Apaiz jaun agurgarria. Eliz giroan, zure ardurapean dagoen Laurgaingo auzo orretan basozainarentzat etxe berria eraiki nai genuke, eta etxea eraikiko dan lur zati ori zuk bedeinkatzea nai genuke; eta egun orretan, nola or bazkaritxo bat egiteko asmoa degun, zu ere gurekin bazkaltzen gelditzea eskertuko nizuke. Nere gonbita onartuko dezulakoan, egun orretara arte agurtzen zaitut”.

Aaldun nagusiak gutun ori eskuz esku apaizari bidaltzeko bere konfiantzazko gizon bat aukeratu zuen, on Antonio Zabaleta, apaizaren leengusua, ain zuzen. Eta Laurgaina etorri eta apaizarengana iritsi zanean, on Ramonek ezusteko aundia artu omen zuen, aspaldi artan elkartu gabe zeuden leengusua aurrez aurre ikusi zuenean. Apaizak, bere esaera orrela zuenez, esan omen zion:

–Zer demontre abil, Antonio?

Eta besteak:

–Gipuzkoako aaldun nagusiak zuretzat eman didan gutun au ekartzera etorri naiz...

Eta eskura eman omen zion gutuna. Irakurri zuenean, apaizaren erantzuna:

–Oso lanpetua nago ba; auzoko gaztetxoeri eskola ematen diet, eta beste ekintza geiago ere badaukat eskualdean. Toki orren bedeinkapena egingo det esandako egun orretan, goizeko 9:00etan, baiña bazkaltzen ez naiz geldituko. Eta aaldun nagusiari esaiok asko estimatzen dedala bere gonbitea, baiña ez naizela bazkaltzen geldituko, eta barkatzeko...

## Laurgaingo arduraduna

---

Laurgaingo eremua Gipuzkoako Foru Aldundiak 1955eko otsailaren asieran erosi izango zuen, eta eskriturak egin eta jabetasuna artu zuenean, uda artan bertan asi ziran eremuaren planoak egiten.

Lan orretan asi zan ingenieroari laguntzeko iru mutil artu zituzten, eta beste bi basozain ere or ibiltzen ziran: Lukas Gorrotxategi, Zarautzen bizi zana, eta Julian Zurutuza, Billabonan bizi zana. Baiña, gero eremu orretako basozaiña izango zana eta basetxe berria egindakoan bertan biziko zana, Modesto Arratibel goierritarra, basozain egin berria, leen Irungo mendi saillak zaintzen zituenari Laurgaingo kargua eman zion Aldundiak. Zabaleta jauna zala medio, Modesto Arratibel etorri zan Laurgaiña, eta basetxe berria egin bitartean Aiako Joanene ostatuan apopillo jarri zan. Tabernako nagusi Joan eta ni anaiak giñan, etxeko zaarrena eta gazteena, ain zuzen.

Zabaleta jauna Laurgaiña etortzen zanean, askotan Modesto basozaiñarekin ibilalditxo bat egiten zuten, gero nola Modesto Joanenera etortzen zan, Zabaleta jaunak ere tarteka Modestorekin batera etorri eta ostatu orretan bazkaltzen zuen. On Antonio laster konturatu zan ostatu ura oso jatoki ona zala.

Alaxe, bazkaldu zuen egun batean, Zabaleta jaunak esan omen zion Joan tabernako nagusiari:

–Dozena bat laguneko taldetxo batek ementxe afaria egiteko asmoa daukagu. Gaur ostirala nola dan, gaur zortzi afaria egiterik ba ote legoke emen?

Joanek erantzun:

–Pasa zaitetz sukaldera eta etxekoandrearekin itz egin.



Laurgain auzoa. 2916 (JM Iriondo)





Alaxe, Zabaleta jauna sukaldera sartu eta sukaldaria-rekin afari-tratua egin zuenean, berriro tabernara itzuli eta nagusiari esan omen zion:

–Afaria martxan jarri degu, baiña afalondoa alaitzeko bertso batzuk ederki etorriko litzaizkiguke. Inguru onetan ba al dago bertsolaririk afalondon kantatzeko?

Joanek parre txikia egiñez erantzun omen zion:

–Nere anai gaztea jarduten da bertsotan, eta alabearrez ementxe dago.

Orduan, neri deitu zidaten, eta jaun orrengana inguratu nintzanean, eskua emanez, esan zidan:

–Ni Antonio Zabaleta naiz, eta jakin dedanez zu bertsolaria omen zera; orregatik deitu dizugu.

–Bai –erantzun nion–, bertsotan jardun izan naiz iñoiz lagunartean, baiña soldaduzkatik orain bi egun etorri nintzan, eta aspaldian oso gutxi jarduna nago. Baiña, zer nai zenuke?

Eta Zabaleta jaunak:

–Begara, gaur zortzi ostatu onetan dozena bat lagunek afaria egiteko asmoa degu; eta bai ni eta bai nere beste lagunak ere oso bertsozaleak gera, eta afalondoa alaitzeko zuk bertso batzuk kantatzea eskertuko genizuke. Orretarako zeu ere afaritara etortzea naiko nuke. Ordaiñik gabe ez zera geldituko.

Nere erantzuna:

–Neri ere orrelako afalondoak asko gustatzen zaizkit, baiña nolabaiteko bertsoak zuen aurrean kantatzea lotsagarri samarra izango litzake.

Zabaletaren erantzuna:

–Zu etorri zaitex lasai, eta egiten dezuna egiten dezula, gure aldetik onartua izango zera. Ortik aurrerakoa zure eskuetan gelditzen da.

–Ain benetan eskatzen didazun ezkeror –erantzun nion–, etorriko naiz ba, baiña baldintza batekin: afaria ostatu onen

goiko jangelan egin eta gure taldea bakarrik jangelan izatekotan gainera.

Joan nere anaia eta tabernako nagusia zanak aginduzien goiko jangela guretzat bakarrik izango zala, eta etortzeko lasai, ezereen kezkarik gabe eta konfiantza osoz.

Afaritarako tratua egin zanean, nik galdetu nion jaun orri:

-Zu alde auetan berria zera, nik ez zaitut beintzat inoiz ikusi orain arte.

-Nere berri laster jakingo dezu -esan zidan-. Ni donostiarra naiz, eta Aldundiak erosi duen eremu orren salerosketa-tratuan bitartekari ibili naiz, eta orain ere orko arduradunetako bat neroni nauzu. Bearbada, zuretzako lantokia ere bertan izan liteke gaur edo biar. Baiña gauza oriek eta beste milla kontu aipatutako urrengo afari orretan esango ditugu. Zu etorri afaltzera urrengo ostiralean umore onarekin. Ondo pasatuko degu, seguru nago.

Ordura arte elkar agurtuz banatu giñan.



## Afaritarako gaua

---

Zorioneko afari ura egiteko eguna edo gaua, 1956ko urtarillaren 30ean izan genuen. On Antonio Zabaleta eta bere lagunak, amabi laguneko taldea etorri ziran. Gero, Joaneneko ostatuan aien zai geundela Modesto basozaiña eta neu, danok elkartu eta amalau laguneko taldea igo giñan goiko jangelara, umore ederrean jan eta edateko kupira gabe.

Neu ere alai eta pozik nengoen itxura egiñez igo nintzan beste lagunekin batera. Baiña afalondoan bertsoan egin bearra neukala gogoratzen nintzan bakoitzean, alakoxe kezka eta larri bat sortzen zitzaidan neure barruan. Baiña jan-edanaren indarrak eta maaikideen artean zegoen giro eder ark animatu ninduen, eta afalondoa urreratzen ari zan bezela bertsoan asteko amorratzen jarri nintzan. Noiz izango nituen alako aukerak?

Zabaleta jaunaren lagun aietako bat soiñu-jolea zan, eta ona gaiñera. Kafea artu eta bapo jarri giñanean, soiñu-jolea asi zan “Maritxu nora zoaz”, “Bein batian Loiolan” eta orrelako euskal abestien doiñuak jotzen, eta talde osoa arekin batean kantari. Izugarri abots ona zutenak baziran talde artan, eta sekulako giroa jarri zuten.

Abeslariak amaitu eta isildu ziranean, nere txanda zetorren, eta danak ni nengoen tokira begira. Soiñu-jolea asi zan “Andre Madalen” doiñua jotzen eta, jakiña, nik orduan ez neukan atzera egiterik, eta bertsoan ekin nion. Batek soiñuarekin doiñua jo eta besteak bertsoa kantatu, biok tartekatuz neretzat ere askoz obeto izanik, orrelaxe dozena erdi bat bertso kantatu nituen. Batek besteari lagunduz, saio txukuna eta polita egin genuela esango nuke. Maaikideak umoretsu ikusi nituen beintzat, eta neu ere pozak zoratzen, gustora.

Bertsoak bukatu ziranerako berriz ere ekin zioten soiñua jo eta kantatu, eta saio bat egin zutenean isildu ziran kantariak. Orduan berriz ere bertso eske asi ziran. Soiñu-joleari esan nion:

–Egun gutxi barru Santa Ageda eskean ibiltzeko eguna degu, eta jo ezazu doiñu orixe, nik kopletan kantatu dezadan.

Orduan leenengo maaikide danak soiñuarekin batean “Dios te salbe, ongi etorri” kantatzen zuten, eta ondoren nere koplak edo bertsoak. Era orretan biok tartekatuz, oso saio polita eta umoretsua egin genuen. Gau artako saiorik txalotuena uraxe izan zan.

Alaxe, orduak aurrera zijoazten, eta afaondo ari amaiera emateko, danei eskarrak emanez azken agurra esateko, zortziko txikian kantatu nituen azkenengo bertsoak. Eta au egitan aitortzen det, neroni ere une unkiagarri ark biotza ukitu zidan, eta malko jario kantatu nituen azkenengo bertsoak.

Amaitzean, Zabaleta jaunak bazter batera deitu eta esan zidan:

–Joxe Mari, zuk egin dezun lan orregatik zenbat ordaindu bear dizugu?

–Nerea eginda dago –esan nion–, afaria ematea ere ez didazute gutxi egin.

Baiña, naiz eta nik ori esan, on Antoniok danen izenean eskupekoa eman zidan. Orduan ni oso pozik, on Antonio ere bai itxuraz, eta gaiñerakoak zer esanik ez, danak gustorra. Gauza ederra da ori, eta orrelako billera batean oraindik askoz geiago.

Soiñu-joleak soiñua jotzen asterako bere prestaketak egiteko aitzakian, disimuluan maaizapiaren azpian magnetofonoa jarrita zeukan nonbait nik kantatuko bertsoak jasotzeko. Bearbada, Zabaleta jaunak prestatutako tranpatxoak izango zala pentsatu izan det beti, baiña ari esker

eskuratu nituen gero egun artako neure bertsoak. Bestela aizeak eramango zituen, eta betiko galduko ziran. Mailla aundi-aundiko bertsoak ez ziran izango, baiña neretzat asko balio zuten beintzat, eta ori gauza garrantzitsua da.

Zabaleta jaunak tranpa ura egin zuelako guztiontzat mesedegarri izan zan. Nik aren berri aurrez jakin izan banu, urduri samar igual jarriko nintzan, eta ezjakiñean nengoelako bertsoan lasaiago jardun nintzan. Eta entzuleak ere geiago gozatu zuten. Beraz, esan genezake guztiontzat mesedetan izan zala Zabaleta jaunak egin zuen tranpatxo ura.





## Negu gogorra

---

1955eko abenduan eta 56ko urtarrilean, bi illabete jarraian, giro epel eta gozoak izan genituen gure alde auetan. Udaberria iritsi zala esanez zebillen jendea; zuaitz mota guztiak ere giroaren eragiñez izerditan eta kimuberritzen asi ziran. Sagarrondoak loretan, eta gauza guztiak bere garaitik aterata, noski. Eraikuntzan, basoan eta kanpolarretan zebillen jendea ere alkandora eta jertseak bazterrera bota eta elastiko utsean asko zebiltzan. Gertakizun oriek garbi erakusten zuten bere garaitik kanporako eguraldia zala ura, eta gero ordaiñak jaso bearako zirala, askotan gertatzen dan bezela.

Ikusi danez, urtarrillaren 30ean egin genuen Joanene-ko afari bererezi ura, eta egun artantxe asi zan eguraldia txarrerako joeran.

Batzuk esaten asita zeuden: “Aurten elurte gogorren bat egingo dik!”, eta abar. Antzemanda edo jakinda ez ziran jardungo, baiña ez zebiltzen oker ori esaten zutenak, otsail guztian elurra eta izotz beltza gau eta egun egin baitzuen gero. Itsasoraiño egin ere. Historiak zioenez, eun urte eta geiago omen ziran alako elurte eta negu gogorrik egin ez zuela. Utsaren azpitik 18 gradura jaitsitako egunak izan zirala esan zuten, eta neronek ere egia zala esango nuke. Sorotik etxera ekarritako arbi eta erremolatxak etxe barruan ere orma eginda gelditzen ziran. Eta barruan ori egiten zuenean, atarian zer izango zan pentsatu besterik ez dago. Orix da lekukorik onena.

1956ko urtarrillaren 30ean, Aiako Joanene ostatuan afari eder ura zala-eta, solasaldia amaitzean, Arratibel basozaiña eta ni, maaikide guztiak agurtu eta banatzerako, Zabaleta jaunarekin berriro asteleenean Laurgaingo eremuan

elkartzekotan banatu giñan. Baiña gauzak ez ziran guk uste genuen bezela atera, ez guri eta ez beste gaiñerantzekoei ere, lurralde osoa ezustean arrapatu baitzuen negu beltz eta gaizto ark.

Urtarrillaren azken egunetan, frantzi-iparra deitzen zaion aize otz ori indartzen asi zan, eta otsaillaren leian illuntze aldera elur-pinportak asi ziran, eta gau artan orma beltzak bazterrak arria bezela gogortuta utzi zituen.

Otsaillaren 2an Kandelario eguna izaten danez, garai artan egun ori jai egiten zan, goizeko zazpietako mezetara joan nintzan. Ordurako orma beltzaren gaiñean elur-pinportak zuritu laprasta emanda zegoen lurra, eta egabera, kulixka, antzar eta itsas aateen garrasiak entzuten ziran inguruetan. Bazan eize-aukera, arranek ezik!

Nik, meza entzun eta elizatik irten nintzanean, zuzenean etxera jo nuen. Gosaldu eta eizera irten nintzan bereala. Eta gure etxeazpiko sorora begiratu nuenean, ikusi nuen egabera samalda izugarria zegoela soroan. Gerturatu nintzanean, altxatzen asi ziran, eta tiro bat jaurti eta bigarrenak surik artu ez. Baiña, ala ere, amar egabera artu zintzilik eta etxera sartu nintzan pozik. Eta gure ama ere arrituta alako eize sorta ikusi zuenean. Orrelaxe eman nion asiera elurte gogor ari. Elurterako okela bagenuen beintzat etxean, eta ez zan gutxi.

Otsailleko elurte artan, Laurgaingo eremuan lanean zebiltzan mutillak ere lanerako girorik ez zegoela eta illabete osoa opor egin zuten, eta on Antonio Zabaleta ere ez zan etorri illabete osoan. Naiz eta afari artan laster elkartzekotan gelditu giñan, urrengo bisita Laurgaiña egin aurretik illabete luzea igaro zan.

Eta ori martxoaren 2an izan zan, ain justu. Bi egun aurretik itz eginda jarriak zeuden Zabaleta jauna eta Modesto basozaiña, eta esandako egun orretan Modesto Arratibel eta ni goizeko amarretarako Joxemari Gurutze deitzen

zaion gunean zai jarrita geunden. On Antonio zuzen etorri zan esandako ordurako, eta antxe elkar agurtu genuen.

Zabaleta jauna iritsi zanean, elkarri egun onak eman eta onela mintzatu zitzaigun:

–Azkena bildu giñanean berriro bereala elkartzekotan banatu giñan, baiña negu gaizto au dala-eta, illabete joan zaigu. Bitarte orretan askotan gogoratu zait Aian egin genuen afari zoragarri ura. Nik asko gozatu nuen, eta nere lagunak ere bai. Orduan kantatu zenituen bertsoak, Joxe Mari, danak magnetofonoz artu genituen, eta ementxe ekarri dizkizut gaur. Ementxe dauzkazu, eta begiratu ondo dauden.

Ondoren, bertso danak irakurri nituen, eta on Antoniori esan:

–Eskerrak nik ez nekiela jaso zenituelako. Tresna ori jarrita zegoela jakin izan banu, ni urduri samar jarriko nintzan, eta leen justu dabillenarentzat aurkari txarra da ori. Orrela, gaiñera, nik ere bertso obeak kantatuko nituen ezjakiñean, eta zuek ere geiago gozatzeko aukera izango zenuten. Danentzat mesedetan gertatu zan beraz zuk egin zenuen tranpatxoa. Orrela gertatzea eskertzekoa da. Ni oso pozik gelditzen naiz bertsoak jaso zenituztelako.

Benetan eskertu nuen on Antoniok bertso aiek ekarri eta itzuli zizkidalako. Bestela danak aizeak eramango zituen, eta betiko galduko ziran. Itsusiena izanda ere, nork bere umea danak maitatzen degu, eta nik ere nere bertso aiek alaxe maite nituen, eta maite ditut. Ez besteak baiño obeak diralako, neureak diralako baizik.

Orrelaxe izan zan afari gozo artako billera. Eta gau artan kantatu nituen bertsoak, eta gaiñerakoak kantatu zituzten abesti goxo aiek zirala medio afalondo artan izan genuen gozamina.

Orrelaxe izan zan elurte luzearen ondoren berriro elkar-tu giñan eguna.



## Afalondo artako bertsoak

---

Ordu ta erdi gutxieneko  
jan ta edan gera jardun.  
Ase ta bete egin gerala  
ez al da garbi ezagun?  
Maiaren jiran txit umoretsu  
gu gaude amalau lagun.  
Afalondoko giro eder au  
orain gozatu dezagun.

Zopa ta arrain goxo ederrez  
asera izan da eta,  
gaiñean berriz arkume ederra  
parril gaiñean erreta.  
Afari ona enkargatutzen  
zuk izan dezu arreta.  
Danen partetik nik milla esker,  
Antonio Zabaleta.

Soldaduzkatik etorri eta  
bide onean naiz asi.  
On Antonio ezagutzeko  
ditxa izan det lenbizi.  
Eta gaur berriz afari ederra  
soiñu, bertso eta guzi.  
Gaur asi degun elkarte onek  
galtzerik ez du merezi.

Gaur emen dagon giro eder au  
danontzat da atsegiña.  
Nere maikide zeratenori  
badet zertan itz egiña.  
Gizonarentzat ez da kalteko  
olako batzuk egiña...  
Obe genuke sarriagotan  
ola bilduko bagiña.

Gaurko bertsoak, egia esan,  
oso ninduten kezkatzen,  
ta nere gisa aste guztian  
or aritu naiz prestatzen.  
Zuen ondoan ni oso pozik  
orain ari naiz kantatzen.  
Orrenbestean moldatzerikan  
ez nuen asko pentsatzen.

Naiz ta geiago kantatutzeko  
emen badagon aukera,  
saio luzea gerta liteke  
guztiontzako kaltera.  
Soiñu-jolea, eskertzen zaitut  
beste danakin batera.  
Beste saio bat egingo degu  
emendik pixka batera.

Santa Ageda eskeko eguna nola gertu zegoen, bigarren saioan santa eskeko doiñua jotzeko eskatu nion soiñu-joleari, eta doiñu ortantxe egin genuen saio labur bat:

Badakizute orain kopletan  
emen asiko naizela,  
ta bi puntutan kantatuko det  
lenago lautan bezela.

Giro ederrak izan ditugu  
igaro dan il onetan;  
orain elurra omen dator ta  
ni beldurtzen naiz benetan.

Negu beldurrez nagoela ni  
garbi det erakutsi ta  
beste gai bati elduko diot  
elur kontuak utzita.

Mintzatu nai det oraingo ontan  
oso zuzen eta jator.  
On Antonio, barkatu baiña  
zurekin tratura nator.

Esan zidazun neretzat lana  
bazala Laurgain orretan.  
Zuk badakizu agintzen dana  
izaten dala zorretan.

On Antonio, eskatutzeko  
ain det egun egokia.  
Zuk Laurgainen prestatu zazu  
neretzako lantokia.

Aia aldeko mutillak orain  
ez dute falta xoxikan.  
Nik ere olako lantokitxo bat  
artuko nuke pozikan.

On Antonio, nik ondo dakit  
biotz zabala dezula,  
baiña zuk orain ez esan neri  
lanikan ez daukazula.

Zuregandikan ezezkorikan  
gaurkoan ez det espero.  
Nik lan askoren bearrik ez det  
soldata izan ezkeru.

Urte onetan ni or lanean  
asteko moduan banitz,  
pozak gaiñezka egingo nuke  
ori gertatuko balitz.

Saio aundia bertso kantari  
nola ari naizen emen,  
isildutzea obe izango det  
danak nazkatu baiño len.





Berts. Txapelketa nagusia. Zornotza, 1982 (arg. Euskaltzaindia)



## Ontz txuria eta kattagorria

---

Jose Maria Azketa basogintzako zuzendari jauna eta on Antonio Zabaleta, Modesto basozaiña eta ni, Joxemari Gurutze gune orretan kotxea utzi, geldialditxo bat egin eta jarraian Muñotako gaiñera igo giñan. Eta basetxe berria egiteko zimenduak ateratzen ari zirala ikusi ondoren, aldameneko pagadian barrena gindoazela, zuaitz-adar batean ontz txuri bat zegoela ikusi genuen. Ura ikusi zuenean, Zabaleta jaunak galdetu zuen arrituta:

–Zer egazti da ori?

Eta Modestok:

–Ori? Ontza da ori.

–Nik ikusi ditudan ontzak ori baiño kolore illunagokoak izan dira, noski –erantzun zion Zabaleta jaunak.

Orduan, nik:

–Guk orri *ontz txuria* esaten diogu, erderaz *pequeño duque*.

Une artan ontza egatu zanean, askotaz ederragoa ematen zuen, eta Zabaleta jaunari alakoxe lillura eta zorarena sortu zizkion nonbait, begira-begira jarri eta esan zidan:

–Joxe Mari, ori bizirik arrapatzerik ba ote legoke nola edo ala?

Eta nik:

–Ez dizut aginduko bi egun barru arrapatuko dedanik, baiña bi aste pasatzerako baietz iruditzen zait, arrapatuko dedala.

–Zuk orrelako bat arrapatuko bazenu, Aldundiko basogintzako bulegoan jarriko genuke disekatuta, azpian idazki au duela: Au da Laurgaingo basoetan bizi dan ontz txuria.

Nik arrapatuko nuela itza eman nionean, Zabaleta jauna pozik abiatu zan etxe aldera, Azketa jauna lagun zuela.

Azketa eta Zabaleta jauna etxera bidean abiatu zira-nean, Modestok esan zidan, aserre samar:

–Zuk nola agindu diozu ontza bizirik arrapatuko dezula?

–Zu lasai egon, Modesto –erantzun nion–, uste det moldatuko naizela eta.

–Bai, baiña zedorrek atera kontuak, badakizu agindutakoa zor izaten dala, eta denborak esango digu zeiniek degun arrazoia. Zedorrek ikusi, Joxe Mari.

Orrelaxe amaitu genuen egun artako Laurgaingo ibillaldia.

Zabaleta jaunari ontz txuria arrapatuko nuela agindu nion, bai, eta biaramon goizean bertan eguna argitzerako baso tartean gordeta jarrita nengoen ni, ontz oriek non gordetzen ote ziran zelatan. Bi egunean zelatan egon ondoren, bi tokitan ikusi nituen nola gordetzen ziran: bata aritz muarro baten zuloan, eta bestea Agorregiko burdiñola zaarreko orma-zulo batean. Arrapatzeko tokirik onena bigarren uraxe zala iruditu zitzaidan, eta alaxe izan ere.

Baiña orretarako trepeta bat prestatu bear zan leenbizi: sardai luze baten muturrean alanbre lodiarekin egindako uzta bat lotu eta gero ari arrantza-sarea josi.

Urrengo goizean eguna argitu baiño leen, orma zaarren ondoan gordeta jarri nintzan, eta ontz txuria zuloan sartu zanean, sardaiaren puntako sarearekin zuloaren parean joka asi nintzanean, ontza izutu eta irtetzen asi zan, eta sarean arrapatuta antxe gelditu zan gizajoa. Eta ni pozik, emandako itza betetzeko aukera nuela pentsatuz.

Pizti polit ura poliki-poliki zakuan sartu eta etxera abiatu nintzanean, zuaitz baten gerri-jiran bi kattagorri ikusi nituen jolasean. Eta sardaia kontuz-kontuz luzatu aiengana eta bat arrapatu nuen, eta ura ere zakura.

Baiña zakua erdian lotu nuen badaezpada ere, beste-la biak elkar il eta puskatzeko arriskua zegoelako. Eta ori pena izatekoa zan alako egazti eta pizti ederra arrapatzea ainbeste kosta ondoren.

Alako bi pizti eder zakuan nituela, ez nintzan aserre iritsi baserri edo sorlekura. Banuen gaiñera arrotzeko aiña arrazoi. Lau egun ziran Zabaleta jaunari ontza arrapatuko nuela itza eman niola, eta baten tokian bi pizti arrapatu gaiñera. Ori zan nere zoramena eta poza.

Piztiak arrapatu nituen goiz artan, artean garaiz nola zan, Argin baseritik Aiako kalera joan nintzan, Modesto basozaiña Joaneneko ostatutik Laurgaiña abiatu baiño leen, berarekin itz egitea komeni zitzaidan eta. Modesto ostatutik irten zanean, ni ain goiztiar ikusita arriturik galdetu zidan:

-Zer zabilta ordu auetan emen, Joxe Mari?

Eta nik parre txikia egiñez erantzun nion:

-Ontz txuria etxean daukat, eta, nai izan ezkerro, katta-gorria ere arrapatu det.

Modestok, orduan:

-Ni beldurrez nengoen, baiña zuk agindutakoa berea-la bete dezu. Sinistek ere lanak ditu. Oraindik Aldundira deitzeko goiz samar nola dan, etorri zaitetz eguerdi aldera pizti oriekin, eta ordurako zerbait zuzenduko dedala iruditzen zait.



## Laurgaingo eremuetan

---

Modesto basozaiña, Laurgaingo ibillaldia egin eta amabiak aldera Aiara itzuli zan, eta Joaneneko ostatutik Aldundira deitu zuen, basogintzako bulegora. An, bertako idazkari Isidro Agote jaunak telefonoa artu eta, “nor da?” galdetzean, erantzuna:

–Ni Modesto basozaiña naiz, eta nere lagun batek ontz txuria eta kattagorria arrapatu ditu, bizi-bizirik. Baiña nola Zabaleta jaunak aal bazuen ontza arrapatzeko eskatu zion orain dala gutxi, orren berri jakitea asko gustatuko zaio eta bera jakiñean jartzea eskertuko nizuke. Badakit ori jakitean asko poztuko dala. Gaiñera, ontza eta kattagorria biak arrapatu dituela jakitean oraindik eta geiago poztuko da.

Orduan, Agotek:

–Aiako Joanenetik deitzen al didazu?

–Bai, emendik deitzen dizut.

–Zaude ortxe bertan, baliteke Zabaleta emen inguruan egotea, eta bere berri jakitean bereala deitu dizut.

Esan bezela, Agotek Zabaleta jauna aurkitu zuenean, esan omen zion Modesto basozaiñak nola esan omen zion ontza eta kattagorria arrapatu genituela, eta:

–Oraindik lau egun bakarrik dira neri itza eman zidala, eta orain bi pizti arrapatu dituela gaiñera? Joxe Mari eta Modestori zorionak emazkiezu nere partetik, eta esaiezu kotxea bereala bidaliko dedala pizti orien billa, eta ostatuan bertan egoteko.

Modestok Aldundira abisua eman eta bereala nintzan bi basapizti eder eta polit aiekin. Ni sartu nintzanean ostatuko sukaldera, nere anai Joanek esan zidan:

–Ik orrelaxe aterako dek bizimodua, eta opa diat batek benikan suerte ona izatea.

Andik laster iritsi zan Aldundiko Pedro txoferra kotxean, eta bi pizti politak ikusi zituenean, leendik ere nola elkar ezagutzen genuen, esan zidan:

–Ik zer bertute daukak orrelako piztiak arrapatzeko? Bein ere ez nian ikusi orrelako ontzik. Zoragarria dek, benetan.

Bi kaiolatan jarrita neuzkan ontz txuria eta kattagarria, eta Pedrok artu eta eraman zituen. Aldundira iritsi zane-rako, Agoteren bulegoan basogintzako zuzendari Azketa jauna antxe omen zegoen zai. Eta an inguruan lanean ari ziranak ere danak urbildu omen ziran pizti oriek ikustera. Azketa jaunak esan omen zuen, arro gaiñera:

–Auek arrapatu dituenak basapiztien berri ondo jakingo du, noski, ez dago zalantzarik.

Bulegoan zeudenak piztitxoak ikusi zituztenean, gero Zabaleta jaunaren langelara eraman omen zituzten, eta Zabaleta eta beste gaiñerako danak inguratu eta txoratzen egon omen ziran aiei begira. Zabaleta jauna emozioak gaiñez egin eta malkoa zeriola egon omen zala esan zuten, kaleko jendearentzat eta iñoiz alakorik ikusi ez duenaren-tzat gauza arrigarriak baitziran basapizti aiek.

Orrelakoxe lanak egiñaz asi nintzan Laurgaingo eremuan lantokia lortzeko ateak eta atexkak irekitzen. Baita bizialdirako lana lortu ere. Gero gerokoak.

Zazpi edo zortzi illabete leenago, Modesto basozaiñarekin eta Zabaleta jaunarekin arremanetan asita nengoen. Leena-go esandako afari berezi artako bertsoak, Laurgaingo ibillal-diak, basapiztiak arrapatzea eta orrelako ekintzak zirala medio tratu onean sartuta, alegia. Eta 1956ko abuztuaren 2an lantoki finkoari asiera eman nion. Egun gogoangarria uraxe benetan. Neretzako beintzat ala gertatu zan.

Aiako ogeita lau mutil gazte genbiltzan lanean Laurgain-go eremuan, iru taldetan banatuta. Batzuek ur-gordailua eta ubideak egiteko lanetan, besteak basetxe berriaren



eraikuntza-lanetan, eta irugarren taldea, berriz, beeko errepidetik basetxera bitarteko kamiñoa egiteko bidea ebaten. Ni azkenengo talde orretan asi nintzan, baiña tarteka eremu orretako zuzendari Azketa jauna eta on Antonio Zabaleta etortzen ziranean, aiei laguntzera eta orrelako eginkizunetara eramaten ninduten. Gaiñera, ordurako erbi eta faisán batzuk banatuta zeuden Laurgain inguruko basoetan, eta igande eta jaiegunetan eremu ori zaintzen ibiltzen giñan iru lagun.

Orrelaxe asi giñan Laurgaingo eremuak eskatzen zituen zerbitzuak betetzen. Eta orduan alakorik pentsatzen ez banuen ere, beste berrogei eta iru urte bertako zerbitzuetan pasa, eta erretiroa artu nuen. Urteak joan eta urteak etorri gazi-gozo askoren zama jaso banuen ere, badaukat norbaiti eskerrak emateko arrazoirik asko. Orrenbeste urtean ainbeste erasori aurre egiteak badauka meriturik asko. Nik orrela uste behintzat.



## Entrada prohibida

---

Garai artan Laurgaingo eremuan genbiltzan langilleoi lana egindako eguna bakarrik ordaintzen zigun Aldundiak. Egunean zortzi orduko soldata, eguneko 40 pezeta, asegu-rua eta kitto. Baiña gu iru lagun askotan larunbat arratsalde, igande eta jaiegunetan ere Laurgaingo eremua zain-tzen ibiltzen giñan. Ordurako faisán eta erbi batzuk bertan botata zeuden, eta orko basoak eiztariengandik babestea komeni zalako ibiltzen giñan.

Egun orietan lana edo zerbitzu ori egiten genuelako illa-betea osorik ordaintzen ziguten, eta ori gauza aundia zan guretzat garai artan. Orain asteburua danak jai egiten dute, eta ez dago esan bearrik nik eta nere lagunak ere pozik egingo genukeela, baiña xoxak irabaziko baziran astebu-ruetan ere lana egin bear.

Orrelaxe asi eta amar bat urtean asteburuetan zerbi-tzu oriek egiñez eta sufrítuz igaro genituen urte aiek. Gero-ra gauzak asko aldatu ziran ordea guretzat ere, geroxeago ikusiko degunez.

Ni 1956ko abuztuaren 2an asi nintzan Laurgaingo eremuan agintzen zizkidaten lanak eta zerbitzuak egiten. Leenengo urte ura orrela igaro eta urrengoaren asiera ere antzekoa izan zan, noski. Martxoaren erdi aldera-edo Azke-ta zuzendari jaunak eremu ori eizearen babesleku jartzea pentsatu zuen, eta orretarako eizea jartzea komeni zan, noski, batez ere erbiak eta faisanak.

Erbiarena beste koto batzuetatik ekarri eta egiteko modukoa ikusten zuten, baiña faisana ugaltzeko faisana-re-kiko lanak bertan egitea erabaki zuten. Eta Sarrola baserria nola berea zuen Aldundiak, aren soro barrenean etxola edo estalpe bat egiteko toki aproposa zegoelako, tokia bertan

prestatzen asi ziran bertan lanean zebiltzan mutillak. Gero, ura egiteko bear ziran gauzak garraiatzen bi idi parerekin ibili ziran, eta beste bi lagun etxola egiten, orretan adituak ziranak.

Etxola edo estalpe ura lau zatitan banatuta jarri zuten, eta zati bakoitzean lau faisán eme eta ar bat jarri zituzten. Eta aiek jartzen zituzten arrautzak Urnietako Arizmendí baserrira bidaltzen zituzten, an inkubadora zeukaten eta. Etxe ura ere Aldundiarena nola zan, faisankumeak an ateratzen zituzten, eta gero, zerbait indartzen ziranean, Laurgaiña ekartzen. Suspertu arte karioletan eduki eta gero basora botatzen genituen, beren gisa ugaldú zitezen.

1957ko apirillean Aldundian billera berezia egin zuten nonbait, eta batzar artan Azketa jaunak baldintza batzuk jarri zituen Laurgaingo baso eta mendiak bear bezela zaindu eta babestuta egon zitezen beti. Leenengo, eiztariantzat akotatuta jartzea erabaki zuten. Bigarrenik, perretxikotan eta mendian ibiltzeko aitzakian sartzen edo ibiltzen ziranei galerazteko, eremuaren jirabira guztian “Entrada prohibida” idazkiarekin egindako tableroak agerian jartzea, jendea jakiñean egon zedin. Eta eiztari eta gaiñerakoak zaintzeko iru basozain berri jartzea. Presidenteak eta gaiñerako aaldunik geienak onartu zuten lege ori, baiña Zabaleta jaunak esan omen zuen:

–Badakit inguru au zaindu bearra dagoela, baiña emen eskatzen diran baldintza oriek gogor samarrak iruditzen zaizkit, eta baliteke jendea orrela bidaltzen asi ezkeró Aldundira keja eta meatxuak iritsiko dirala. Eta gauza oriek egiterako ondo aztertzea komenigarria izango litzake. Joka dezagun buruz, zuzen eta zeatz.

–Badakit. Baldintza oriek oso arriskutsuak dira –erantzun omen zion Azketa jaunak–, baiña jendea askatasun osoan ibiltzen uzten badegu, eize eta gaiñerako gauzak ez

dago babesterik, eta asmo txarrez sartzen danak nai duen guztia egiteko aukera izango du.

Ori guztia entzun zuenean, Zabaleta jaunak ere onartu egin omen zuen Azketa jaunaren proposamena.

Batzar ura egin eta laster, Laurgaingo eremuaren jirabira guztian jarri zituzten “Entrada prohibida” idazkia garbi erakusten zuten tableroak, eta urte aren erdi ingururako iru basozain berri ere gure kargua artu eta pronto jarriak giñan Laurgaingo eremu osoa zaintzeko.



## Isunak eta debekuak

---

Laurgaingo eremua eizerako babesleku jartzeko, eta bertako biztanleak izan ezik gaiñerako jende guztiari Laurgaingo basoetan perretxikotan eta mendian ibiltzeko aitzakian orra sartzen oituta zeudenak zaintzeko, eremu orretako zuzendari Azketa jaunak agindu gogorrak eman zizkion Modesto basozaiñari. Eremuaren barruan eiztaririk arrapatzen bazuen, isuna jartzeko agindu zion, beingoz eskarmenta zitezten; eta perretxikotan edo ibillaldia egiteko aitzakian zebiltzanak aal zanik eta azkarrena aterazitzeko inguruko basoetatik. Eta aurpegia eman edo lotsagabe antzean jartzen ziranei isunak ezartzeko errukirik gabe, bestela nai zutena egiten asiko ziralako, eta ori ez komeni iñola ere.

Modesto basozaiñak ere bere menpean geunden iru basozain egin berrioi Azketa nagusiagandik artu zituen agindu gogor aiek eta berari gogoratu zitzaizkion beste bete-bear zorrotz eta gogorrak eman zizkigun.

Gero agindu oriek jendeari betearazten sortu ziran komeri larriak. Nik aal nuenik gozoena artzen nuen basoan topatzen nuen jendea, baiña tartean gizatxarrak eta setatiak ere izaten ziran, eta onean nai ez zuenari gogor egin bearra gertatzen zitzaigun. Alakoetan ikaragarri sufritzen nuela esan bear det.

Laurgaingo eremuan lanean asi giñan iru basozain berrietatik bat jenio bizi samarrekoa zan, eta eremuaren barrura sartuta iñor arrapatzen bazuen, gogor artutakoak izan zituen. Jende orren tartean nola mailla aundiko jendea ere gertatu oi zan, aiek Aldundira joan eta tratu txarrak jasan zituzten kexak ematen zituzten gero. Saltsa gogor askotxotan sartu zan basozain laguna, zoritxarrez. Asiera batean Modesto buruzagiarekin ondo konpondu zan, baiña

gero arekin ere aserretu eta alaxe nolabaiteko giroan beste urte bat-edo pasa zuen. Azkenean Laurgaingo basozaintzari utzi eta alde egin behar izan zuen.

Beste biok bakarrik gelditu giñan basozaintzan, eta gorriak eta bi ikusitako egunak izan genituen. Ala ere, bertantxe gelditu giñan eta asmatu genuela esango nuke. Leenengotik buruauste eta kezka betetako egunak asko izan genituen, baiña denborak ordaindu zizkigun leen igarotako momentu garratzak. Gauzak ohera egiten duenean, pena eta naigabe guztiak aazten dira, noski.

Laurgaingo eremua eizearen babesleku egin eta an ibiltzea galerazi zuten garaitsu artan, Zabaleta jaunak bere kotxean zijoala istripua izan eta anka autsi zuen –zauri geiago ere ba omen zuen–, eta aren ondorioz Laurgaiña etorri gabe ia urte osoa igaro zuen.

Modesto basozaiñak Zabaleta jaunari itzal aundia zion, aren bitartez etorri baitzan Laurgaingo basetxera. Eta ura min artuta egon zan denboran eskualdi geiagoren jabe egin zala iruditurik-edo, arrotu bezela egin zan eta gauza mingarri samarrak egin zituen. Laurgaingo eremuan orrelako gogorkeriak jasan zituztenak Aldundira joan eta aien berri ematen asi ziranean autsak arrotu ziran. Ain juxtu, Zabaleta jauna ere orduantxe zauriak sendatu eta Aldundira etortzen asita zegoen, eta egun batez, ura Laurgaiña zetorrela, biok topo egin genuen, eta galdetu zidan:

–Joxe Mari, egi al da eremu onetan sartzan dan jendea oso gogor artzen dezutela?

–Ba –erantzun nion–, ori esan dizunak ez dizu gezur aundirik esan izango. Izan ere, ementxe gabiltza nola jokatu ez dakigula. Arrapatzen degunari gogor egiteko agindua eman digu nagusiak, eta beste aldetik jendearen erasoak datoz. Bitarte orretan ez daukagu giro esandakoa beteazten saiatzen geranok. Emen asmatuko duenik ez dago, gizona.



–Joxe Mari, lasai artzen saiatu zaitez, erreza ez bada ere –esan zidan Zabaleta jaunak–. Badakit Aldundira kexa asko iritsi dala, eta emengo arazoak txukun konpontzen lasaitasunez saiatzeak asko lagunduko digu. Asieran esan nuen nik neurri aiek gogorregiak zirala, baiña ez zidaten jaramonik egin, eta oraingo naaspilla au oso ondo etorriko zaigu erdibidera jotzeko. Eroriaz ikasten da oiñez ibiltzen, eta zuen zainketa-baldintzak ere leen baiña era obean eta askatasun geiagorekin egiteko bidea aurkituko degu, ekaitzaldiaren ondoren giro ona etortzen da-eta geienetan. Seguru nago Laurgaiñen ere orixe gertatuko dala, eta aurrera, Joxe Mari. Itxaropenik ez galdu beintzat.

Zabaleta jaunak eman zizkidan animoak asko lagundu zidaten aurrera egiteko, aginduak eta betebeharrak txukun eginez.



## Modestoren ezkontza

---

1957ko urtearen erdi ingurutik aurrera iru basozain berri asi giñan Laurgaingo eremuan zainketa bereziak egiten, eta leen nola jendea nai zuen bezela ibiltzen oituta zegoen, orduan sortu ziran komeriak. Auzo-errietatik etortzen ziranak, moto edo kotxeak kamiño-ertzean utzi eta, batez ere bikoteak beren gustoko txokoren batean meriendatzeko aitzakian eta orrela babesten ziran. Askotan, maitasunezko arremanetan ere tokatzen ziran, antxe goxo-goxo zeudela. Orduan guk andik irtetzeko agintzean, batzuk isil-isilik joaten ziran, baiña beste batzuk aurrera egiten asten ziran, eta zeñiek jasan aien erasoak? Nagusiak eta gaiñetik zeude-nak, jendeari neurriak motzetik artzeko aginduak ematen, eta basoetatik aterarazten genuen jendea, berriz, artarako eskubiderik ez zegoela eta protesta egin eta suma aalak guri esaten. Bi aldeetako erasoei aurre egiten ez genuen giro izan, arranetan!

Nik andregaiia baneukan ordurako. Laurgain auzokoa gaiñera, Manterola baserriko alaba, bere izen-abizenak Maria Kontzepzion Iburguren, baiña Maritxu esaten zioten askok, eta beste batzuek Maria ere bai. Ordurako iru bat urte edo geiago izango ziran elkarrekin genbiltzala, eta, jaki-ña, zerbait pentsatzen asteko garaia zala ikusirik, Mariak esan zidan alako batean:

–Aizu, diru pixka bat irabazi eta sukaldaritzan ikasiz, Zarauzko Salegi jatetxera nijoa lanera. Zer iruditzen zaizu, Joxe Mari?

–Ondo egingo dezu, baiña bein aruntza joaten zeranean, nerekin aaztuko zerala iruditzen zait.

–Zu lasai egon, Joxe Mari, nere aldetik ez da ezer ald-tuko eta.

1957ko Santu Guztien egunean joan zan Maria Zarauzko Salegi jatexera, ain zuzen, eta nere bizitzan izan nuen egunik tristeena izan nuela esango nuke egun ura, zalantzarik gabe. Garai txarra pasa eta gero errez kontatzen dira gauzak, baiña gogor samarra egin zitzaidan. Leenago igande eta jaiegunetan beti etxera lagunduz elkarren berri izaten genuen, baiña andik aurrera Mariarengana joateko aukerarik gabe geldituko nintzan, ustez. Bizikletan gutxi ibilia, motorik edo kotxerik ez neukan, eta tabernan nola jende askorekin itz egiten dan, besteren batekin maiteminduko ote zan pentsatzen nuen. Baiña ez zan orrelakorik gertatu, bion zorionerako.

1958ko urtearen leenengo bi illabeteak leenago egiten genituen zerbitzuak egĩñez igaro genituen Laurgainen, baiña martxoan sartu giñanean, Azketa jauna Laurgaingo eremuan egiten ari ziran eraikuntza edo obrak aztertu ondoren, konturatu zan maiatzaren azken alderako ango lanak amaitzear izango zirala, eta Modesto basozaiña nola aspalditxotik andregaiarekin zebillen, esan zion:

-Abuztuan komeni da, ba, basetxe berrian bizitzen jartzea, eta kontuak ateratzen asteko garaia etorri zaizu. Ortik aurrerakoa zuek egin bearrekoa da.

Azketa jaunak agindu ori ematean, Modesto Arratibel basozaiñak bere andregai Garaxi Goikoetxeari esan omen zion zer agindu artu zuen nagusiagandik, eta biak ados jarri omen ziran ezkontzeko. Eguna izendatu, beren senitarteko eta lagunei gonbidapenak egin, eta ekaiñaren azkenengo larunbata aukeratu zuten ezkontzeko. Ezkondu eta bidaiatzera joateko uztailla osorik artu zuten.

Modesto eta Garaxi bidaiatzen ziran denbora artan ere Laurgaingo eremua zaindu bearra zegoen, eta Modestoren orde z garai artan Zarautzen bizi zan Lukas Gorrotxategi basozaiñari eman zioten iru basozain gazteoi aginduak emateko ardura. Ordurako berrogeita amar urtetik gora edukiko

zituen ark, eta astegunetan bakarrik etortzen zan. Igande eta jaiegunetan iru basozain gazteren kontura uzten zuen Laurgaingo zainketa guztia. Eta irukoteak onelaxe banatuta zaintzen genuen eremua: goizean, bi lagun; eta bestea arratsaldez joaten zen. Orrelaxe banatu genuen eremuaren ardurara eta zainketa geure kontura. Oso ondo konpondu giñala esan behar, bestela gezurra esango nuke eta.



## Nere moto berria

---

Modesto eta Garaxi ezkondu eta bidaiatzera joan eta andik laster, motoa erosi nuen: Lambretta dotorea, alajaiña. Ez nintzan aserre. Baiña, lanak ziran zorra ordaintzeko garaian: 18.000 pezeta balio moto berriak, eta 9.000 peze-ta bakarrik neuzkan eskura edo aurreztuta garai artan. Gaiñerakoa zatika ordaindu bear izan nuen. Gero, jakiña, zintzo ibili bear, eta asko sufritu nuen orduan ere.

Baiña gustoko tokian aldaparik ez. Bizitzen ikasteko oso ondo etorri zitzaidan lotura ura, uste orretan nago beintzat. Izan ere, zorraren beldurrik gabe dabillen gazteak ezer erosi gabe diru guztia gastatzen baitu, eta gero beti esku-utsik ibili bear geienetan. Baiña triste da gero beste lagunak eskuartean naiko dirua dutela ikusi eta zu esku-utsik zabil-tzanean!

Bestalde, moto berriaren jabe egitea gauza aundia ere bazan neretzat orduan, beste edozein gazterentzat bezelaxe. Noranaira joan-etorriak egiteko aukera ematen zidan motoak, eta garai artan ederra izaten zan ori. Dakienak badaki, noski.

Motoan ibiltzen asi eta laster, andregaiari bisita egite-ra Zarautza jaitsi nintzan. Maria bera zegoen tabernako mostradorean jendea zerbitzen. Asteguna zan, eta ni ikusi ninduenean, esan zidan:

–Baiña nola zu emen, Joxe Mari?

–Ba, enkargu batzuk egitera etorri naiz, eta bide batez zuri bisitatxo bat egitea pentsatu det.

–Oso ondo, baiña jakin dedanez, emendik aurrera leen baiño sarriagotan etortzeko moduan izango zera, noski. Egia al da moto berria ekarri dezula?

–Bai, ekarri det ba, eta zuk esan didazun bezela, ea leen baiño sarriagotan elkartzen geran, nik orixe nai nuke beintzat.

Egun artan gure izketalditxoa egin, eta “laster arte” elkarri esanez agurtu giñan. Asteartea zan, ain justu, eta urrengo larunbat arratsaldean nola Zarauzko feri eguna gertatzen zan, zerbait erosteko asmotan jaitsi nintzan berriro Zarautza. Baiña ferira joan aurretik Salegi jatetxeko tabernara sartu nintzan, kafetxo bat artzeko aitzakian Mariari bisita egitera. Eta kafea artuz berarekin berriketan lasai nengoela, an bazkaldu zuten nonbait, jangelatik or atera ziran on Antonio Zabaleta jauna, bere emazte Teresa eta beste bikote bat. Ni an ikusi ninduenean, on Antonio neregana urbidu eta bizkarretik elduaz esan zidan:

–Kaixo, Joxe Mari, nolatan zu emen?

–Ba, enkargu batzuk egitera etorri bearra izan det.

–Enkargu goxoren bat egitera etorriko ziñan, seguru asko?

–Beno, danetik zerbait. Begira, emen topo egin degun ezkerero, gauza bat esan behar dizut aurrez aurre: auxe da nere andregai...

Orduan, on Antonio eta bere emazte Teresak, baita beste bikoteak ere, Maria eta biok zoriondu gintuzten, eta on Antoniok esan zion neskari:

–Zuk gure berri jakingo zenuen, noski, bestela ez dago ain ondo bazkaria zerbitzerik.

–Barkatu, baiña etortzen diran bezero guztiak ondo zerbitzen saiatzen naiz ni, eta zuei ere orixe egin dizuet, nere egitekoa orixe da eta. Jakiñean egon izan banintz, urduri jarriko nintzan seguru asko, eta gauzak okerrago egingo nituen. Gaiñera, oso arrituta gelditu naiz Joxe Mariri egin diozuen arrerarekin, senitarteko bat bezela artu baitezue.

Orduan on Antonioren emazte Teresa neri zuzendu zitzaidan, onela:



–Joxe Mari, nolaz ez diguzu onen berri leenago eman? Urrena bazkaltzera ona etortzea pentsatzen degunean, abisatuko dizugu, eta zuk ere gurekin bazkalduko dezu.

Baiña nik:

–Barkatu –erantzun nion–, baiña ni ez naiz zuekin batera maaian eseritzeko moduko gizona. Asko eskertzen dizut gonbidapena, baiña zuek urrengoan ere zeuen giro ederrean bazkaria egitea obeko da, zuek endredatzea bakarririk lortuko nuke-eta nik.

On Antoniok Mariari esan zion:

–Au zurekin beldurtzen al da, gurekin bazkaltzera etorri nai ezik orrela jartzeko?

–Onek neregatik nai duena egiten du –esan zion–. Beste zerbaitegatik geldituko da zuengana bazkaltzera etorri gabe gelditzen bada.

Orrelakoxe berriketaldia egin ondoren, elkarri “laster arte” esanez agur egin eta bi bikoteak etxe aldera abiatu ziran. Baiña Mariak orduan galdetu zidan:

–Zuk bai al zenekien oriek gaur bazkaltzen emen izango zirala?

–Nik? Ezta pentsatu ere, emakumea. Ez nuen pentsatzen oriek emen topatzerik, eta ezusteko aundia artu det ikusi ditudanean, baiña ondo konpondu gera, eta gaitzerdi.

–Ni arritu egin naiz zuri orrelako arrera egiten ikusita. Oso jatorrak ematen dute. Neuri ere propiña ona eman didate, eta ori ez du edozeiñek egiten.

Eta orrelaxe agurtu genuen elkar arratsalde artan, berriro ere laster elkarrekin egoteko aukera izango genuen esperantzaz.



## Aserre eta naigabeak

---

Ezkonberriak bidaian ziran bitartean, jai eta aste zaintzen genuen Laurgaingo eremua, leen esan dedan bezela. Modesto eta Garaxi senar-emazte berriak abuztuaren aurrenean bidaiatzetik etorri eta Laurgaingo basetxe berrian jarri ziran bizitzen.

Goizero Aiatik Laurgaingo basetxera motorrean joaten nintzan ni garai artan, eta Garaxi etxeakoandre berriak neuri ematen zidan ogia eta egunero bear zituen gauzak eramateko mandatua, eta alde orretatik oso ondo konpontzen giñan. Garaxi oso emakume ona eta jatorra zala esango det beti, baiña bere senarra, gizon gozoaren itxura egiñaz asi bazan ere, denboraz zakartu zala. Izan ere, gauzak aldatu ziran bapo denbora gutxian. Nork esan Modestok alako aldaketa egin bear zuenik?

Leenagotik ere zerbait asita zegoen, baiña Laurgaingo basetxean bizitzen jarri zanetik Aiako jauntxoekin joera eta arreman berezia artu zuen, eta gizon garrantzitsua zala sinisturik, danak berarekin ibili nai izaten zuten. Jendeak eman zion estimu orren eragiñez-edo, bere buruarekin geiegi sinisten zuela jarri zan Modesto. Ala ere, orduan asko pentsatzen ez bazuen ere, denboraz kalte aundiak ekarri zizkion jarrera orrek.

Modesto ezkondu eta andik urtebete ingurura-edo, aaldun zaarrak irten eta berriak artu zuten leengoak utzitako agintea Gipuzkoako Foru Aldundian. Besteak beste, on Antonio Zabaleta ere Aldundian zeuzkan zerbitzuak utzi bearrean gertatu zan.

Zabaleta jaunari itzal aundia zion Modestok, eta askoz gozoago jokutzen zuen langilleekin aren garaian. Baiña andik aurrera ekaitzaldi gogorrek sortu ziran Laurgaingo

gure inguru txikian. Erriko ogeita bost mutil genbiltzan bertan lanean, eta danok aztoratu gintuen. Leen enkargatu zeudenak kendu eta berriak jarri zituen, lanorduetan ogitar-teko edo beste ezer jatea galerazi zuen, eta danok beldurrez airean jarri gintuen. Gaiñera, sindikaturik eta ezeren babesik nola ez zegoen an, bateren bat begitan artzen bazuen etxera joateko esaten zion azkar, eta ark deitu arte ez etortzeko geiago. Oriek eta antzeko gauza zatar askotxo egin zuen gure arduradunak garai artan. Tamalgarria benetan!

Langillerik onenak eremu orretan gertatzen ziran gauza aiekin asper-asper egin eta Zarautzen bi taller ireki berriak nola zeuden, aietako batean asi ziran lanean. Lau mutil bai beintzat. Eta Laurgaiñen gelditu giñan iru basozain berri eta gaiñerakoak ere ez genbiltzan batere gustora; baiña antxe jarraitu bear, ordurako lau urte eramango genituen-eta eremu orretako zerbitzuetan. Neri beintzat pena aundia ematen zidan Aldundiko lanpostua utzi eta beste lan berri baten billa asi bearrak.

Orrelaxe zijoazten gauzak Laurgaiñen, geroz eta okerrago, eta zuzendu edo konpontzeko itxurarik gabe. Eta orixe zan okerreña aurrera begira.

Laurgaingo eremuaren ardura artu zuen aaldun berria Erramun Etxeberria zan, Usurbilgo semea, eta on Antonio Zabaletarekin arremen aundia zuena gaiñera.

Bi jaun oriek elkartu ziran batean galdetu omen zion on Antoniok Etxeberria jaunari:

–Zer moduz dabil gure basozain Modesto jaun ori?

Eta Etxeberria jaunak bere modura erantzun itzetik ortzera:

–Oso ondo. Benetan gizon atsegiña da.

On Antonio ordurako jakinda zegoen, noski, Modestoren joerarekin aspertu eta mutillik onenak alde egiten asiak zirala Laurgaindik, eta esan omen zion:

-Nik arreman aundia izan diat Modestorekin, nere bidez Laurgaiña etortzea lortua da-eta, baiña ni erabat engaiñatu natxeok. Iri ere orixe egingo dik leentxeago edo gera-xeago. Leen neri egin zizkidan losintxak orain iri egingo dizkik, baiña langillerik onenak berarekin erabat aspertu eta Zarauzko taller batean lanean asi dirala jakin diat. Or zertsu pasatzen dan jakiten saiatzen ba aiz, ik ere aterako dek zerbaiten aztarrana, eta denboraz arrazoi nuela aitortuko didak.

Erramun Etxeberria jauna Laurgaingo ardura beregain zeukan aalduna izanik, urrena basetxera etorri zan batean, Modestori galdetu omen zion:

-Mutillak gustora al dabilta lanean?

Eta Modestoren erantzun:

-Bai, bestela gustora baiña soldata txikiaren kexa daukate, eta arrazoi orregatik, lau mutil Zarautza joan dira lanera, geiago irabaztearren-edo.

Egun artakoa orrela disimulatu omen zuen Modestok; baiña Etxeberria jaunak mutillak lanean asi ziran fabrikako nagusia laguna zuen nonbait, eta ari galdetu omen zion:

-Zuen fabrikan lanean asi al dek Aiako mutillik?

-Bai, lau mutil asi dituk, leenago Aldundiarekin Laurgaiñen zebiltzanak. Gure idazkariak leengo lana zergatik utzi duten-edo galdetzean, laurak berdin erantzun omen ziotek: burungarri egiten duen basozaiñarekin burutu ezin zutelako alde egin dutela andik.

Ori entzun zuenean, Etxeberria jaunak sinistu omen zuen eta ikusi Zabaletak esan ziona egia zala. Andik aurre-ara arretaz zaintzen omen zuen Modesto basozaiña.



## Hernanira bizitzera

---

Modesto Arratibel Aiara etorri zanean, leenbiziko zazpi bat urtean ospe eta garaipen aundia lortzera iritsi zan, leenago esan dedan bezela. Erriko apaizak ere itzal aundia zioten, eta erriko alkate, zinegotzi eta idazkariak ere erabat bereganatu zituen denbora gutxian. Izan ere, Modestok agintzen zien Gipuzkoako Aldunditik Aiako erriarentzat ondasun asko lortuko zuela, eta besteak sinistu egiten zioten. Esker onez-edo bereala lortu zuen Aiako udaletxean zinegotzi sartzea. Eta andik aurrera, puxka batean beintzat, beste danak baiño geiago agintzen zuela jarri zan errian, esaten zutenez.

Ortantxe doai berezia zuen nonbait, eta asieran erriko jendea engaiñatu zuen. Elizgizon, agintari eta gainera guztiak arekin itsututa zeuden. Eguerdiero baxoerdiak artzen-eta ibiltzen ziranak ere danak Modestorekin ibili nai izaten zuten. Ortik pentsatu nolako onarpena zeukan errian.

Antonio Zabaleta jauna Gipuzkoako Aldundian zerbitzu mota asko egiten zituena zan, baiña batez ere Laurgaingo eremuarentzat arreta berezia zeukan gizona, Azketa zuzendariarekin batera. Modesto basozaiña bere bitartez etorria zan Laurgaingo basozaintzako ardura artzera, eta Zabaleta jauna abertzalea nola zan bere oponioz, Modesto ere aren menpean zebillen bitartean euskera eta euskal oitura eta ekintza guztien maitale sutsuaren itxura egiñez ibiltzen zan. Baiña Zabaleta jaunak bere kargua utzi eta Aldunditik alde egin zuenean, orduan beste aldetik zegoen indarra, eta Modestok alde artara jo zuen bereala. Aaztu zitzaizkion ederki euskera eta euskal oituren goralpenak.

Laurgaingo basozaintetan genbiltzan iru basozain gazteok erabat asperturik geunden Modestorekin, leen esan bezela. Iñola ezin genuen asmatu arekin, eta zer egin ez genekiela genbiltzan. Gaiñera, Laurgaingo eremuaren zainketa jai eta aste egitera beartzen gintuen. Illean egun bakar bat ere ez genuen jai egiteko aukerarik izaten.

Nik ere, jakiña, noizean bein igande arratsalde bateko askatasuna nai izaten nuen andregaiari bisita bat egiteko eta abar. Baiña alperrik, ez zegoen orretarako baimenik. Eskerrak Mariak ere igande eta jaiegunak lanean pasatzen zituen geienetan, eta orrela errezago etsitzen genuen biok ere.

Ala ere, aspertuta nebillen ni Laurgaingo eremuan geneukan bizimodu estuarekin, eta egun batean andregaiari esan nion:

–Ez da erreza, baina beste lantokiren baten billa astea pentsatuta nago, Maria. Zer iruditzen zaizu?

–Sinisten dizut orrela ibiltzea oso gogorra egingo zaizula, baiña beste lantoki batean ere zerbait izango dezula seguru egon, eta Aldundiko lantokiari eusten saiatzeak merezi duela iruditzen zait neri.

Bein eta berriro Mariaren bultzadak indarberritu ninduen, eta Laurgaingo zerbitzuetan jarraitzea erabaki nuen. Erabaki garrantzitsu bat artzeko garaian lagun zentzudun baten kontsejuak asko balio izaten du, eta nerezat alaxe izan Mariak emandakoak.

Asieran esan det Modesto Arratibelek elizgizonak, udal-etzeko agintariak eta Aiako jauntxoak danak engaiñatu eta bereganatu zituela. Esaten zituen gauzakin zearo itsututa zegoen jende ori, eta neroni ere bai, asieran beintzat. Gizon gozoa zala irudituta asi nintzan Laurgaingo eremuan lanean, baiña denboraz gauzak ederki aldatu ziran. Ala ere, ortxe jarraitu nuen, eta ez daukat damurik.



Ni bezalaxe Aiako jende geiena, danak engaiñatu gintuen, baita bere burua ere, esan eta agindutakorik ez baitzuen ezer bete. Eta erriko jendeak ondo ezagutu zuenean, bizkarrara eman zion, eta orren eragiñez-edo Laurgaingo basetxea utzi eta Hernanira joan zan bizitzera.

Leenago izandako konpondu ezin guztiak gorabehera, nik arreman onean jarraitu nuen Modestorekin, eta noizik bein Laurgaingo basetxera etortzen zan gu bisitatzera bere emazte Garaxirekin. Nik ez nion sekula gorrotorik izan, eta aal nuenik gozoena artzen saiatu nintzan beti. Eta ez daukat orren damurik ere.

Orrek ere zerbait esan naiko duela iruditzen zait neri.



## Gure ezkontza

---

Leenago esan dedan bezela, Modesto basozaiña leenengo zazpi bat urtean-edo aurkari guztiak menperatu eta gora igotzen dan kirolari baten antzean ibili zan, uraren gaiñeko pitsetan. Jendearen omenak eta txaloak jasoz ibiltzen baitira txapeldunak, baiña norgeiagokak galtzen asitakoan izaten dira kontuak, leengo jarraitzaille geienak galtzen dituzte eta. Modestori ere orixe eta bera gertatu zitzaion: Aiako jauntxoak eta lagun ustekoak bizkarra ematen eta urrutiratzen asi zitzaizkion. Leen zioten itzal eta begirune ura ez zeukala konturatu zan, eta aurkariak gero eta geiago zituela. Alkate eta udaletxeko idazkaria ere erabat bere aurka zeudela bazekien, eta alkateak eta zinegotziak billerra nagusia zuten bakoitzean, Modestok neri papertxo bat ematen zidan gero erriko idazkariari entregatzeko eskatuz. Beti auxe jartzen zuen: Nere zerbitzuetan dauzkadan bete-bearrak dirala-eta, ez daukat billerara joaterik.

Nik nola antzeko paper ura askotan eraman nion, bein batean onela esan zidan udaletxeko idazkari jaunak:

–Kontxo, kontxo. Modesto ori oso gizon lanpetua daukazu Laurgain alde orretan. Leen edozein garaitan etortzeko libre izaten zan eta orain berriz beti zerbitzuko lanetan dabil. Auxe da aldakuntza egin duena.

Udaletxean bezelaxe beste askorekin ere zapuztu zan, baiña langilleekin leen bezela jarraitzen zuen, zorrotz eta gogor.

Ni urte askoan nebillen andregaiarekin. Urteak bai, baiña oraingo bikoteak urtebetean guk amarretan baiño elkarrekin denbora geiago pasatuko zutela seguru esan liteke. Mariak ere bost bat urte bazeramazkien Salegi jatetxean lan asko egiñez, eta bizimodua aldatzeko gogoa eginda zegoen.

Ordurako bion artean Aiako kalean etxea erosita geneukan, Galarzelai Txiki izenez ezagutzen zan etxea; eta 1963ko urtarillaren 9an, Mariak 27 urte bete zituen egunean bertan, Aiako Esteban donearen parroki elizan ezkondu giñan, eta nere anai zaarraren ostatuan, Joanene deitzen zitzaion jate-txean, bi sendietakoak eta lagunak giro ederrean bazkaldu genuen. Eta bazkalondo gozoa bezain alaia pasa ondoren, bazkaldar guztiak agurtu eta Madrilerako bidean abiatu giñan. Amar egun eder igaro genituen Espaiñiako iriburuan, eta etxera itzuli giñan gero, gustora ala ere. Gero, illabete edo orrelako bat oporretan etxealdetik pasa ondoren, berriro lanean asi nintzan.

Leenbiziko bi illabetean, Modesto leen baiño era obean zebilela iruditu zitzaidan, nerekin gozo samar beintzat, eta neu ere pozik, ezkondu giñalako gauzak aldatu ote ziran pentsatzen bainuen. Baiña eguzki goxoaren ondoren berriz ere ekaitz beltza sartu zan Laurgaiñen, eta ni sekula baiño bolada txarragoan nebillen Modestorekin. Bidezkoa zan bezela, nik ere ezkonberritan emaztearekin jai arratsalde bat edo beste an edo emen pasatzeko gogoia neukan, baiña Modesto ez zegoen iñori orrelako aukerarik emateko prest, ez orixe!

Besteoi sufrituarazten saiatzen zan, baiña berari ere iritsi zitzaizkion egun beltz eta illunak. Leen lagun izan-dako asko etsai biurtuta zeuzkan, esan dedan bezela. Eta Aldundiko bere lankide basozaiñak ere ez zuten begi onez ikusten. Berriro ere zearo aspertuta nenbillen ni eguneroko zeregiñetan neukan asmatu eziñarekin, eta berriro ere esan nion emazteari:

–Ez dakit, ez dakit Modestorekin orrela luzaro jarraitzeko gai izango naizen. Asper-asper eginda nago, Maria, eta beldur naiz benetan ez naizela gai izango orrela jarraitzeko.

Baiña emazteak berriz ere animoak eman zizkidan, eta aurrera txalupa! Zer egingo nuen?



Joxe Mari eta M<sup>a</sup> Kontzeptionen ezkontza. 1963  
(Jose Arg. Zumaia)



## Istripua eta Xenpelar Saria

---

Ezkondu giñan urtean istripu oso larria izan nuen, urrilla-ren 15ean, Santa Teresa egunez.

Beti bezela, bazkalondoan motoa artu eta lanera nindoala eguzkiak aurrez aurre jotzen ninduen eta, aren erruz edo bestela ere gure lantokian buruauste askorekin nenbillelako, bidean gora zetorren kamioia jo nuen ertzetik, eta besoa bi tokitan autsi nuen. Okerragoa izan zitekeen istripua, baiña gero ura sendatzen ia bi urte inguru pasa bear izan nituen.

Ala ere, artu nuen talkatekoa gogoan izanik, esan liteke ez nuela oker aundia izan. Zorionez. Baiña azkenerako naiko zama astuna izan zan senar-emazte ezkonberriortzat. Besteak beste, istripua izan eta berealaxe Laurgaingo eremuan lanean ari ziren langilleei soldata igo zien Aldundiak, baiña ni Aseguru Sozialaren eskuetan nola nengoen, neretzat ez zala soldata igoerarik tokatzen esan zidaten, eta uskeri batekin gelditu nintzan. Ura ere kolpe gogorra izan zan guretzat. Eskuartean diru gutxi samarrekin bizitzea zer dan ederki probatu genuen gurean. Ala ere, bizitzako egunik lasaienak orduantxe pasa genituela esango nuke senar-emazteok. Gaitz erdi, sikiera.

Eguna onelatsu banatzen genuen egoera artan: geienetan goizean meza entzuten nuen nik, eta gero gosaldut. Eta nik ibillalditxo bat egiten nuen bitartean, Mariak etxeko lanak egiñez bazkaria prestatzen zuen, gero biok lasai bazkaltzeko. Elkarrekin asko egoteko modua izan genuen, eta ori gauza ederra da ezkonberrientzat.

Penak eta pozak, danetatik izan nuen, ordea. Au da, bizitzako argi eta illunaldiak. Ospitalekoa pasa eta etxera etorri nintzanean, ezkerreko besoa igeltsutan neukan, baiña

eskubia ondo. Miñik ez nuen beintzat, eta osasunaren alde-  
tik ondo samar sentitzen nintzan.

Zerbait egin bear eta, denbora-pasa, bertsoak idazten asi  
nintzan. Ondoren artan bertso asko jarri nuen. Idatzitako  
bertso guztiak ez ziran goi-maillakoak izango, baiña artan  
asi eta laster “Asto bati”, edo “Asto baten bizitza” gai artu  
eta amalau bertso sortu egin nuen, eta bertso paper ura  
Errenteriako Udalak eta Euskaltzaindiak bien artean urtero  
antolatuta oi zuten Xenpelar sariketara bidali eta leenengo  
saria irabazi nuen, 5.000 pezetako saria, alajaiña. Ura zan  
nere poza! Ez zan asiera txarra izan, alazankoa.

Gaurko ikuspegitik begiratuta, sari ori utsaren urrengo-  
tzat joko litzake seguru asko, baiña garai artan diru asko  
zan bost milla pezeta. Neretzat bai beintzat. Garai artako  
langille baten bi illabeteko soldata ortxe nonbait.

Sari aundia zalako batetik, eta gaiñera ospe aundiko  
leiaketa irabazteak eman zidan bultzadaren animoari esker,  
indarberritu eta gogoz asi nintzan, eta buru-belarri eraso  
nion bertsoak idazteari. Ondoren artan, beste bertso-sorta  
askoren artean amabi bertso “Errugabeko ilketa” izeneko  
sorta bat ere idatzi nuen arian-arian. Sentimentu aundiko  
bertsoak ziran aiek neure ustez.

Gaia ere alakoxea zan: Españaiko anaien arteko guda  
zikin ura asi zanean, beste erri askotan bezela, Aian ere  
gertatu ziran ekintza lotsagarri eta negargarriak. Erriaren  
aldeko lanetan zintzo asko eta borondate osoz jardundako  
gizaseme bat, abertzalea izatea beste errurik gabe, Patxiren  
zerbitzari zebiltzan odolzaleak, gau batean bost gizon arma-  
tu joan omen ziran gizon jator ura bizi zan etxeko atarira,  
eta bere emaztearen ondoan lotan zegoena oetik aterarazi  
eta emazte gajoa eta seme-alaba gaztetxoak danak negarrez  
utzi eta eramanez omen zuten etxetik. Geiago ez itzultzeko  
eramanez ere, itxura danez. Esaten zuten, etxetik bosteun  
bat metrorra dagoen baso batean il omen zuten, tiroka.



Orrelako asko egin zan garai nardagarri artan gure errietan, zoritxarrez. Eta ilketa orren berri jakin nuenean, gaia sentimenduzkoa bezain sakona zala ikusi eta amabi bertsoko sorta egin nuen. Garai artan on Jesus Gaztañaga apaiza Laurgaingo erretore eta bertsozale amorratua nola zan, leenbizi berari erakutsi nizkion, irakurri eta zuzendu zitzan.

Aren bitartez beste batzuek ere jakiten asi ziran nonbait, eta lagun askok eskatu zizkidaten bertso oriek. Baita nik gustora eman ere. Besteak beste zirala, garai artan bazan eibartar bat Laurgaingo basetxera bisitari sarri samar etorri oi zana. Balentin Suinaga zan izen-deituraz, *Star* pistola fabrikako jerentea-edo, gizon atsegiña benetan, eta arekin batera etortzen zan beste lagun bat oso bertsozalea izanik, ark eskatu eta nik kantatuz, iru aldiz grabatu genituen bertso oriek. Pedro Mari Otañoren “Mutil koskor bat itsuarreko” doiñuan kantatu nizkion.

Andik laster, Eibarren zeukaten bere elkartean lagunekin afaria egin ondoren jarri omen zuen zinta ori bere lagunak entzun zezaten, eta an tartean zegoen lagun bat oso artetsu orietakoa izaki, eta bere aita zana ere gerra-garai artan orrelaxe fusilatua omen zalako, bertso aiek berarentzat jarrita zeudela iruditzen omen zitzaion. Entzun zitue-nean negar egin omen zuen gogotik. Eta gero gizon orrek eskuz egindako artelan bat bidali zigun Laurgaingo basetxera, leen esandako Balentin Suinaga orrekin. Maaiaren erdian jartzeko apaingarri orietako bat zan, Joxe Mari eta Maria bion izenak bere eskuz grabatuta zeuzkan opari ederra. Bai, oroigarri apaiña zan apaiñik bazan, eta neuk egindako bertsoengatik irabazia zalako-edo oraindik eta balio aundiagoa zuen guretzat.

Ala ere, ez zuen azken ederra izan artelan bikain hark. Autsak kendu eta txukuntzen ari zala, gure Mariari eskue-tatik erori eta txiki-txiki eginda gelditu zan. Ez orixe merezi

zuelako, baiña azken txarra izan zuen. Pena genuen biok ere, baiña dabillenari gertatzen zaizkio orrelakoak, eta bere orretan onartu bear izan genuen. Zer egingo dezu?

## Laurgaingo ganadu-feria

---

Nere ezbear edo moto-istripu ura 1963ko urrillaren 15ean izan nuen, eta ezkerreko besoa bi tokitan autsi nuen, esan bezela. Donostiako ospitalean ebakuntza egin eta besoa igeltsuz ondo lotuta jarri ondoren, ospitalean ogei egun pasa eta etxera bidali ninduten. Gaiñerakoan ondo nebillen, baiña besoa sendatzen ia bi urte igaro bear izan nituen, eta banuen aspertzeko aiñako txangoa.

Istripua izan eta gero baja artu eta etxean gelditu nintzanean asko aldatu zan nerekin Modestoren jarra. Oso tratu onekoa eta atsegiña, egia esateko, eta Aiara etortzen zanean askotan bisita egiten zigun gure etxean. Ark ori egitea gauza aundia zan neretzat benetan. Guk ala pentsatzen genuen beintzat. Izan ere, Laurgaingo basozaiñen buruaren aginduak betez ibili bearra geneukan langille gazteok, eta ez zan beti erreza izaten. Modesto zakartzen zanean, beldurra ematen zuen aren jarrerak. Asmatzen zailla eta uts egiten erreza egoten zan alakoetan. Gorriak ikusitako egunak izan genituen.

Nik min artu eta ia urtebete neraman garaian, Gipuzkoako Foru Aldundiak Nekazaritza Saillaren bitartez Laurgaingo basetxeko atarian ganadu-feria egiteko antolaketak egiten asi zanean, Modestok esan zidan:

-Laster basetxeko atarian feria jartzekotan dira, eta noiz izango dan jakiten dedan bezain azkar esango dizut, eta orduan zuk ere etorri bearco dezu, oso ikuspesta polita izango baita, giro ona egiten badu beintzat. Garaiz esango dizut noiz izango dan feri ori.

Feri orren berri jakin nuenean, izugarrizko poza artu nuen, eta geure auzoan bizi zan Antonio pentsu-almazeneko burungarriari esan nion nola Laurgaingo basetxe inguruan

ganadu-feri aundia egitekotan ziran. Antoniok ori aditu zuenean, alako feriak oso gogozko baitzituen, esan zidan:

–Feri ori egiten dan egunean, biok joango gaituk motoan, Joxe Mari.

Eta eguna iritsi zanean, alaxe egin genuen, gauza aundia baitzan feri ori guretzat orduan.

Eguerdiko amaikak aldera joan giñan, eta ordurako jendez bete-bete eginda zegoen basetxe ingurua, eta eguraldia, berriz, udazkeneko eguraldi zoragarri orientakoa egokitu zan. Naita ere ez zegoen ohea eskatzerik. Zezenak, beiak eta bigantxak basetxearen aldamenen dagoen pagadian danak bakoitza bere tokian txukun lotu eta illaran jarrita zeuden, eta jendea aiei begira gozaten, batez ere baserritarrak. Jakiña, alako giroa eta ganaduak ere alakoak izan eta jendea bazter guztiak betean bildu zan Laurgaiñen. Giroa ederra, eta ganaduak, berriz, txunditzeko modukoak. Benetan jendea gozatzeko auke-rako feria jarri zuen Aldundiak.

Antonio eta ni jende artean aruntz-onuntz zorutzen ibili giñan. Baiña Antonio nola pentsu banatzen ibiltzen zan, inguruko baserritar guztiak ezagunak zituen, eta batekin itz egin eta bestearekin geldialdiak egiñez antxe gindoazela, Basarri bertsolariarekin topo egin genuen. Leendik ere elkar ezagutzen genuen, eta elkar agurtu ondoren esan zidan:

–Giroaren segurantzia izan ezkeru, au da feria egiteko toki zoragarria, Joxe Mari. Eta ikusteko, berriz, alakoxe bei eta zezenak daude emen... Au da feria, au. Baserritarrak begiak gozatzeko a zer nolako aukera daukaten gaur. Baserriero bear lituzteke or dauden bezelako beiak. Ori da ori edertasuna dagoena. Au eta ori esaten jarduten degu, baiña Aldundiak erakusketa ederra ematen die gaurko onetan beiekin bizimodua atera nai duen baserritarrari.

Orrelakoxe izketaldia egin genuen Basarrik eta biok; eta laster eguerdiko amabiak ziranez, zezen eta beien

zerrendaren aurkezpen edo desfilea egiteko ordua etorri zan. Leenengo, ganaduen aurkezpena egiten Aldundiko jauntxo bat asi zan, baiña oitura aundirik ez zeukalako-edo, ezin antzean zebillen, eta Abalgintza Sailleko zuzendaritza zeukanak Basarriri dei egin zion, eta leen ari zanaren tokian jarri. Asmatu zuen ederki.

Bai, asmatu zuen ederki aldaketa ura egiten ausartu zanak, gero ikusi zan bezela. Basarrik gauza geiagotan ere lanak ondo egiten bazekien, eta egun artan ere erakutsi zuen artarako asko balio zuela. Nori berea ematen jakin bear da emen.

An bildu zan ganadu kopurua bere aurretik pasatzean, bakoitzaren historia irakurtzen zuen, nola bei eder aiek Kanadatik ekarriak ziran bakoitza bere izenarekin, eta izen arekin aurkezten zituen danak errimatuz, erdi bertsoetan, alegia. Jendeak gozatu ederra artu zuen egun artan.

Ondo gogoan artu nion leenengo beiauren aurkezpena:

–Onek izena du Marta. Auxe bai bei aparta!

Urrengoak ere era beretsuan egin zituen. Beia, bere umea, bigai ederra bere ondoren zuela Basarriren parera iritsi zanean, esan zuen:

–Auek ama-umeak dira. Amak izena du Anneke; umeak ere bai, amak bezela onek'e.

Eta jarraian, berriz ere ama-umeak omen ziran, eta ama oso bei ederra eta gizena nola zegoen, esan zuen:

–Onek izena dauka Dumia, lepua ez dauka mia.

Eta bigantxari:

–Onek ere amak bezela izena: Dumia. Au, orren umia.

Urrengo beiaientzat ere bazuen neurtitza:

–Bei oni deitzen diote Britto. Onek ematen omen ditu egunean berrogei litro.

Eta orrelaxe zerrenda luzea eman zuen Basarrik. Baiña itzak aizeak eramane zituen, eta orain nik ezin emen geiago jarri.

Basarrirekin arrituta egon nintzan egun artan. Beti ere izketan egokia eta garbia zan, baiña egun artan aldarte berezian mintzatu zala esango nuke. An bildu zan jendetza ura zoratzen egon zan, batez ere baserritarrak. Batek baiña geiagok esango zuen, noski:

–Gaur Basarri jarri izan ez balitz mikroan, feri onek erdia ez zuen balioko.

Gauzak noren eskuetan erortzen diran badago alde ederra!

Gipuzkoako Foru Aldundiak Laurgaingo eremua erosi zuenean, baso eta mendi saillekin batera eremuaren barruan zeuden bost basarri ere erosi zituen: Sagastizabal, Amezketalardi, Sarrola, Orbelaun eta Ibarrola baserriak.

Laboretarako eta esne-beiak ukuilluan mantenduz etekin ona kentzeko Sarrola, Orbelaun eta Ibarrola baserri onak ziran, eta iruretan ukuillu berriak egin eta arraza oneko amabi esne-bei jarri zituzten. Sagastizabal eta Amezketalardi baserriak, berriz, ardiak eta betizuak larratzeko bere artan utzi zituzten, orduan beintzat, gerora gauzak aldatu baziran ere.

Beeko babesean zeuden iru baserriak –Sarrola, Orbelau eta Ibarrola–, bizitoki eta ukuillu berriak eginda jarri zituztenean, nola leengo ganadu mota guztiak kenduta zeuzkaten, Gipuzkoako Foru Aldundiak frisona arrazako esne-bei ederrak ekarri zituen Kanadatik. Baserri bakoi-tzean amabi beiko taldea, ain zuzen. Ogeita amasei esne-bei guztira. Soin ederrekoak eta esne asko ematen zuten beiak ziran, esan zutenez. Inguruetakoa baserritarrak arrituta gelditu ziran alako beiak ikusi zituztenean.

Garai artan baserririk geienetan, danetan ez esateagatik, arraza kaxkarrako beiak eta esne-legorrrak zeuzkaten jeneralean. Orrez gaiñera, karen gaitza edo lanparoiz kutsatuak geienak. Ukuilluak ere oso baldintza txarretan zeuden baserri askotan, eta etorkizunik gabe-edo etekin

gutxi kentzen zioten egiten zuten lanari, eta bururik altxatu eziñik zebiltzan geienetan. Baldintza orietan ez zan arri-tzekoa.

Gure baserritarrak era orretan ikusirik, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Nekazaritza Sailleko batzordearen bitartez, baserriak suspertu eta indartzeko kanpaiña martxan jarri zuen, eta ukuilluak berritu eta arraza oneko esne-beiak ekartzeko laguntasuna edo subentzioak eskaiñi zizkien nai zuten baserritar guztiei. Baserritarrak animatu eta konbentzitzeko, berriz, Laurgaingo eremuan zeukan basetxeko atarian ganadu-feria jartzea pentsatu zuen. 1964ko urrian egin zan feri famatu ura.







Laurgaingo ganadu-sariketa (arg. Foru Aldundia)



## Miraria

---

Garai artan Gipuzkoan egiten ziran ospe aundieneko feriak Foru Aldundiak lagundu eta babesten zituen geienetan, eta Basarri bertsolaria beti gonbidatzen zuten, periodikoan eta irratian ere aipatu egiten zituen eta. Zezen eta esne-beien sariketa zanean, Basarriren kontu egon oi zan sarri sari-tutako ganaduen aurkezpena egitea. Eta, nola ez, Laurgaiñen ere feri ospetsu artara gonbidatu zuten, esan bezela. Bertsolari-doi berezia zuen, itz egin eta aurkezpenak egiteko patxada eta grazia ezin ederragoa, eta feria artan bildu zan jendeak izan zuen gozatzeko aukera bikaiña.

Baiña ez ori bakarrik. Beste miraritxo bat ere egin zuen bertsolari aundiak egun artan. Laurgaingo eremua erosi zuenean, eremu ori ondo osatu eta edertzeko faisanak eta erbiak bota zituen orko basoetan Aldundiak, eizea ugaldtu zedin. Ala ere, eremua eiztari eta bestela perretxikoak biltzeko aitzakian eta abar basoetan barrena sartzen ziranetatik babesteko, “Eizearen babeslekua”, “Sarrera eragotzita – Acotado de caza”, eta “Entrada prohibida” -idazkiekin txukun egindako tableroak jarri zituzten eremuaren jirabira guztian, eta komunikabide askotan zabaldu ere bai Laurgaingo baldintzen berri. Basarri bertsolari ezagunak berak ere Donostiako *El Diario Vasco* egunkarian idazten zuen egunero, eta Laurgaingo baldintza orien berri jakin zuenean, artikulu bat argitaratu zuen egunkarian, esanez:

“Aldundiak Laurgaingo eremuan jarri dituen baldintza oriek dirala-eta badakit jende asko minduta dagoela. Neronek ere pena aundia artu dedala aitortuko det, leenago tarteka-marteka perretxiko batzuk bilduz-edo baso orietan ibillaldi gozoak egiten baintuen. Baiña orain, dana galerazi dutenez, Laurgaiñen ez dago sartzetik. Lege gogorra benetan, gogorregia bearbada”.

Basarriren artikulua irakurri zuenean, Laurgaingo eremuko zuzendari zan Azketa mendi-injeniero jauna ere aserretu omen zan gogotik, eta urrena Laurgaiña etorri zanean Modesto basozaiñari esan omen zion:

–Basarri edo dalako orrek Aldundiaren ekintzak salatu ditu egunkarian, baiña orrek ez dauka zer itz egiñik guk jarritako legeen aurka, eta artu ditugun neurriak leen bezelaxe betetzen jarraituko degu, bestela gure bizkar parre egingo digute eta.

Ala, nagusiak agindu oriek eman zizkionean, Modesto ere aserre samar omen zan Basarriren idatzia zala eta.

Garai artan *La Voz de Guipúzcoa* irratiazen bidez astean iru egunetan-edo euskerazko irratsaioak egin eta ematen zituzten. Don Antonio izenekoak albaitari baten papera betetzen zuen; Joxemiel izenekoak, baserritarraren itxura egiten zuen; Maria Dolores Agirrek, antzerki eta kulturazko berriak ematen zituen, batez ere; eta azkena Basarrik egiten zuen, euskal kiroletan jokatzen ziran apustu eta baserritarren salerosketen berri emanez. Modesto Arratibelek irukote orren saioak oso gustokoak omen zituen garai batean, baiña Basarri asten zanean irratia itzali eta esaten omen zuen:

–Jardun adi nai badek, ire zozokeriak entzuten dagoena eu baiño ere zozoagoa izango dek eta. Utikan!

Alakoxe amorrua artu zion nonbait. Baiña ez betirako, itxura danez. Basetxeko feri sonatu artara Aldundiak gonbidatuta etorri zan Basarri urte artan, eta feriari eman zion gorazarrea eta jendeari eman zion gozamina zela-eta gauzak zearo aldatu zituela ikusirik, Aldundiko jaun aiek basetxean bazkaltzera gonbitadu zuten. Eta bazkalondan, etxera abiatzeko garaian sukaldean sartu eta bazkari zoragarria egin zutela eta abar esanez, Modesto eta emaztearekin izketalditxo gozoa egiñez egon omen zan, kontu-kontari. Une artatik Modesto zearo aldatu zan, noski. Leenago,

Baserriri entzun edota ura ikusi baiño naiago ez, baiña aren maitale eta mireslerik aundiena biurtu zan gero. Andik aurrera Basarri aundia non topatuko ibiltzen omen zan beti.

Asieran esan det Basarrik mirarritxoia egin zuela egun artan, eta ondo pentsatu ezkeron, mirari aundia egin zuela esan bearko nuke. Leen bere aurka amorratzen zeukan gizona bere lagunik aundiena biurtu baitzuen, eta ori ez du edozeiñek egiten. Ez orixe!



Basarri eta Uztapide. Zestoa, 1980 (K. Loubet)







## Eiztarien larria

---

Laurgaingo basetxe inguruan feri sonatua egin zan egunean Basarri bertsolariak miraritzo bat egin zuela esan det leentxeago. Baiña egun artan beste gauza bitxi bat ere gertatu zan inguru orretan, eta orren berri ematen saiatuko naiz, gauza oriek oroigarri politikak izaten baitira ondorenentzat ere.

Feria noiz izango zan iragarri zutenean, Zarautz aldeko lau eiztarik pentsatu zuten nonbait egun artan basozaiñak feriaren inguruan lasai ibiliko zirala, eta eizea babestutako tokitan faisanak arrapatzeko aukera ezin ohea izango zutela. Pentsatu eta egin.

Goizean garaiz Landarbide baserriko sailletan barrena sartu eta an jarri omen ziran begiak erne zituztela eiztari oriek, eta nola ura babestokitik kanpora zegoen, ez zuten uste an arriskurik izango zutenik. Andik talaian egon omen ziran bazter guztietara begira, eta basozaiñik ez zala agertzen oartu eta bat zaintzaille bertan gelditu eta beste irurak Iturran baserriko baso sailletan barrena sartu omen ziran, faisana batzuk eizatzeko asmotan.

Garai artan, errekaizaiñak edo *guardarrios* deitzen zitzaizaienak errekek begiratzera etortzen ziran illabetean bi-iru aldiz-edo. Geienetan bakarra etortzen zan, baiña egun artan, alaxe bearrez, bi etorri omen ziran, eta Mante-rola erreka ikusi edo aztertu ondoren, Manterola baserri-rik beeraxeago dagoen Presatxo deitzen zaion gunera iritsi ziran-ean, aritz baten azpian eseri eta ogitartekoa jateko presta-tu omen ziran errekaizain oriek, lasai asko.

Errekaizain edo guardia oriek gosaltzen ari ziran goikal-dean bertan omen zebiltzan eiztariak lasai antzean, eta faisana bat altxa zitzaizaienean tiroka eraso omen zioten.

Faisanak beerantza egin zuela ikusi zutenean, eiztariak aren billa korrika zetoze, errekaizaiñengana gerturatu omen ziran, ustekabeen. Guardia zibillen antzeko jantzia nola izaten zuten errekaizain oriek, igesari eman omen zioten eiztariak, baiña errekaizaiñak pistola atera, eta “geldi or!” deadar egin omen zieten. Baiña eiztariak aurrera zijoa-zela ikusirik, iru tiro jaurti omen zituzten airera, eiztariak beldurtzeko, jakiña.

Eiztariak beren erio bizian zijoa-zela, koska batean salto egin eta batek orkatilla biurritu-edo egin omen zuen, eta nolabait Landarbide baseritik Zarautz aldera ezkutatu izango ziran beintzat. Lasaitu eta indarberritzen egon omen ziran puxka batean guardietatik salbu zirala eta.

Lau eiztariak elkarrengana bilduta zeuden nonbait, eta batek eskopetak artu eta beste biak min artu zuenari lagunduz, etxeratzeko modua egin izango zuten.

Igesian zijoa-zela, elbarritu zanak nola min aundiak zeuzkan, Donostiako ospitalera eraman omen zuten badaezpada ere, eta an ebakuntza edo orrelako zerbaite egin eta bertan egun batzuk pasa ondoren, anka igeltsutan jarri eta etxera itzuli izango zan.

Ori dana gertatu eta berrogei bat egunera-edo, ni Zarautza jaitzita nintzan batean min artutako eiztari arekin topo egin nuen alabearrez, eta leendik ere ezaguna nuenez, agurtu nuen. Anka igeltsutan zuela ikusi nuenean, galdetu nion, kortesiak agintzen duen bezela:

–Istripuren bat izan al dek?

Eiztariak zorrotz erantzun zidan itzetik ortzera:

–I, neri adarra jotzen asi al aiz? Ik ondo dakik neri zer pasa zaidan.

Eta nik, orduan:

–Barkaidak, nik ez zekiat ezer, benetan esaten diat.

Eiztariak, ni egitan ari nintzala iruditurik, gertatutakoa goitik beera kontatu zidan. Ori entzun nuenean esan nion:

–Orain ulertzen diat, bai. Zuek guardia zibillak zira-la uste zenuten aiek errekazaiñak ituan. Beraiek esanda zekiat zerbait gertatu omen zala eiztari batzuekin Laurgain alde orretan. Zuen ezustekoa ori izango zuan, jakiña. Gaizki dabilienari orrelakoxeak gertatzen zaizkiok, eta zuei ere ondo etorriko zaizue eskarmentuan sartzeko...

Orduan, eiztariak:

–Leen ere gogo aundirik gabe joan ninduan ara, eta ni berriz eizean ez natxiok iñork arrapatuko. Leenago ere ederrak sufritu dizkiat, eta onekin naikoa diat.

Zorioneko feri egun artan orrelakoxe gauzak gertatu ziran. Eta orrelako gertakari bitxiak ondorengo belaunaldientzat jakingarri bereziak dira, bestela igarotakoaren berririk gabe eta historia etenda gelditzen baita. Eta ori ez da komeni.



## Soldaduzkako bertso-eskola

---

Nik, izan nuen istripua zala-eta, lanik egin gabe edo bajaran ia bi urte aundi egin bear izan nituen. Baiña, naiko ezbearra izan banuen ere, danerako ez zitzaidan gaizki etorri alako etenaldi edo geldialdi bat lanean.

Garai artakoa izateko, naiko garaiz asi nintzan bertsoak moldatzen edo idazten. Amasei urterekin, ain zuzen. Eta nola beste bi edo iru lagunek ere bertsoan egiteko zaletasun aundia zuten gure inguru onetan, jai illuntzetan-eta tabernaren batean elkartzen giñanean, eta gero etxerako bidean ere bai, bertso-saioak egiñez norgeiagoka ibiltzen giñan mutil gazteok. Uraxe izan zan benetako gure bertso-eskola garai artan.

Zerbait ikasi eta bere doaiak obetu nai dituenak norberak dakien baiño geiago dakien maisuarekin ikasi bear izaten du. Baiña gure garaiko bertsolari gaztetxoentzat ez zan orrelako aukerarik izaten. Ondo landu eta ongarritu gabeko lurtean jartzen dan landareak ez baitu fruiturik ematen, neri eta nere lagunei ere orixe gertatu zitzaigun, gutxi gorabeera. Gaur eguneko laguntasunak izan bagenitu, gu ere zerbait geiago egitera iristeko moduan izango giñan, seguruenik. Baiña garaian garaiko gauzak izaten dira emen, eta egindakoarekin konformatu eta kitto egin bearke. Zer egingo dezun urak joanda gero? Joandako urak ez omen du errotarik mugitzen. Orrela dio beintzat gure esaera zaarrak.

Soldadu joan artean, erri-giroan eta lagunartean egin genituen bertso-saio bakar aiek beste prestakuntzarik gabe ibili giñan, ni bai beintzat. Soldaduzka ere, alabearrez, iru illabetekoa egokitu zitzaidan, eta ori eskertzekoa zan orduan, baiña an izan nuen bertso-eskola falta gero.

Gure batailloian beste bi bertsolari egokitu zitzaizkidan, eta antxe egin nituen nere gazte-denborako bertso-saiorik onenak, edo luzeenak. Beste soldadu askok bezela urte eta erdi egin izan banitu, orduantxe izango nuen bertsoan zerbait geiago ikasteko aukera. Baiña, bertsoak bertso, etxera etortzeko baimena eman zidatenean, ez nintzan aserre. Gustora etorri nintzan etxera, bai orixe! Bertsoak bertso, nik etxera etortzea naiago aukeran.

Soldaduzkatik etxera etorri nintzanean, nolabait ere lantoki egoki bat billatzea zan neure ametsik aundiena. Eta alako batean Aiako Joanene ostatuan gizon berezi batekin topo egiteko suertea izan nuen, leenago kontatu dizudanez. Gizon ori on Antonio Zabaleta zan, Gipuzkoako Foru Aldundian Nekazaritza eta Basogintza Sailleko zeregiñetan aurreko muturrean zebillen gizona. Ez zan bertako enpleatu edo funtzionarioa, baiña oso gizon aditua zan. Ark ondo zekien eskuartean zerabilkien eginkizun eta eginbearren berri. Laurgaingo eremu orretara askotan etortzen zan Azketa zuzendariarekin batera. Baita bakarrik ere sarritan.

Zabaleta jauna Laurgaiña etortzen zanean, nola eremu orretako basozaiñen buru Modesto Arratibel zan, eta ura Joaneneko ostatuan apopillo zegoen, Laurgaiñen bere ibillaldi bat edo beste egin ondoren, askotan ostatu orretara sartzen zan, eta batzuetan bertan bazkaltzen zuten biok. Izan ere, Zabaleta jauna laster konturatu zan oso jatoki ona zala ostatu ura. Eta neuk ere alakoxe egun batean izan nuen gizon atsegin ura ezagutzeko aukera eta zori ederra. Ura izan zan neretzako loteria bikaina.

Zabaleta bertsozalea nola zan, ni bertsolaria nintzala jakin zuenean arremán berezia izan genuen elkarrekin. Andik aurrera Laurgaiña etortzen zan bakoitzean ni ere aruntza joatea nai izaten zuen, eta antxe egindako afari batean kantatu nituen bertsoengatik, eta berak eskatuta arapatu nizkion basa-piztiengatik, edo aiek zirala medio

beintzat, oso arremán ona izan genuen. Laurgaiñen lanean asteko aukera ere bere bitartez izan nuen, eta bai ni pozik asi, garai artan lan-aukera gutxi baitzegoen inguru auetan.

Lanean asi eta leenengo urtean gutxi gorabeera, ilusio aundiarekin ibili nintzala esan bear. Etorri zitzaizkidan bestelako egunak ere, leengo ilusio eta bizipozak zearo aldatzeraiño. Baiña ez nuen suerte makala izan.

Zabaletarentzat Laurgaingo bisitak amaitu zira-  
nean gauzak ederki aldatu ziran eremu orretan. Baiña ez onerako, zearo alderantziz baizik. Nik ondorengo sei bat urte benetan garratzak eta bizipozik gabeak pasa nituela esan bearra daukat, eta gaiñerako langilleak ere gorriak eta bi ikusi zituzten. Ori egia dan ala ez jakiteko, Laurgaiñen lanean jardun ziran aiei galdetzea aski izango da. Danak ere berdintsu erantzungo luketela nago.





## **Laurgaingo arduradun berria**

---

Motoan izan nuen istripua zala-eta, bi urte inguru pasa bear izan nituen lanuzte edo bajaran. Noizbait sendatu eta aurrerako moduan nengoela ikusirik, sendagille jaunak lanean asteko baimena edo alta eman zidan, ordea, eta 1966ko maiatzaren aurrenean berriro Laurgaiñen leen utzitako lanpostuan asi nintzan eguneroko zeregiñetan.

Lanean asi eta egun mordoska batean, Modesto Arratibel naiko ondo eta era gozoan portatu zan nerekin, eta emazteari esan nion:

-Ni Laurgaiña joan gabe egon naizen denbora orretan, Modesto zearo aldatu dala iruditzen zait, eta onerako aldatu ere. Ea orretan irauten duen urte askoan, mesede ederra izango genuke danok ere.

Baiña gure Mariak erantzun:

-Ez zaitez geiegi fiatu, zuk gutxiena pentsatzen dezun garaian berriz ere leengora itzuliko da eta.

Alaxe, emazteak esan bezela, Modesto berriz ere leengo zakarkeriak egiten asi zan gaiñerako langilleekin bezelaxe nerekin ere. Ez zan asmatzen errez gizon arekin. Ezin bere gustorik egin inola ere. Eta erabat etsipenak jota utzi ninduen.

Ain aspertuta nenbillen lantokian, emazteari esan nion berriro:

-Laurgaingo eremu orretara joateko batere gogorik gabe aurkitzen naiz berriro ere...

Mariaren erantzuna:

-Begira, Joxe Mari, badakit era orretan ibiltzea gogorra egiten zaizula, baiña beste ezertan asterako ondo pentsa ezazu. Laurgaiñen amar urte daramazkizu, eta orrek asko balio dizu gaur edo biarko. Denborak emango

dizu ordaiña. Gaiñera, beste lantokietan ere sinistu ezazu beti izango dezula nagusia edo enkargaturen bat gaiñean. Zakurrak anka-utsik ibiltzen dira toki guztietan. Laurgaiñen tarteka mendira edo beste norabait joango zerate, baiña taller batean beti gaiñean izango dezu norbait zu zainduko zaituena. Orretan etsi-etsian egon, Joxe Mari.

Nere emaztearen itz oriek entzun nituenean esan nuen neurekiko:

–Bete-beteko arrazoiak eman dizkidazu orain ere, eta zure bultzadak eman didan animoari esker, aurrera egin eta bertan jarraitzeko indarra eman didazu.

Esan eta egin, bertantxe jarraitu nuen, emazteak esan bezela, etsi-etsian. Eta berriro lanean asi nintzan urte ura nola edo ala igaro eta urrengo urtearen asiera ere era bedintsuan izan genuen.

Otsaillean sartu eta laster, gure basozaintzako lankide zan Olazarrek esan zidan:

–Modesto bere familiarekin Hernanira bizitzera aldatzekoa dala jakin diat, eta orren tokira Iribar albaiataria ona etortzekotan ote dan-edo. Gizon atsegiña dek, eta iruditzen zaidak guretzat ere mesedegarri izango dala aldaketa. Leen baiño okerrago ez gaituk izango beintzat.

Iribar albaiataria Usurbilgo semea zan, eta garai artan Aldundiak Laurgaingo eremuan zeuzkan bei eta ardien ardura osoa beregain zeukana. Olazarrek albiste ori eman zidanean, bereala erantzun nion:

–Aizak, Modesto bere sendiarekin Hernanira joango dala sinisten diat, emengo egunik onenak bukatu zaizkiola ematen dik eta. Baiña Iribar albaiataria basetxe onetara etortzea eziñezkoa dala iruditzen zaidak neri. Azketa jauna dek eremu onetako zuzendari nagusia, eta ark Iribar ez dik begi onez ikusi izan bein ere. Bein baiño geiagotan esan izan dik oso gizon zabarra eta utzia dala. Neronek entzundako itzak dituk, ez beste batek esandakoak, eta seguru egon

adi Iribar ez dala emen agintzera etorriko. Laurgaingo base-txera etorriko dana Azketa jaunaren gogokoa izango dek berriz ere, guretzat aldrebesena izango bada ere. Badakik, agintzen duenak erabakitzen dizkik gauza oriek.

Andik egun gutxi barru, Azketa jaunaren aginduz, bere idazkari Agote jaunak Laurgaingo basetxera deitu zuen arratsalde batez, eta an bizi zan Garaxiri esan omen zion:

–Joxe Mari ortik al dabil?

Eta Garaxik:

–Bai, ementxe ari da jardiña txukuntzen.

–Deitu zaiozu mesedez, berarekin itz egin nai det eta.

Alaxe, Garaxik deitu zidan, eta barrura sartu eta urrut-izkiña artu nuenean, esan nion:

–Zer nai dezu, Isidro?

Eta Agote jaunak:

–Gure nagusi Azketa jaunak esan dit biar zu eta zure emaztea goizeko amarretarako gure langelara etortzeko, zuen zai ementxe egongo gerala eta.

Nik arekin izandako izketaldia bukatu bezain azkar, Garaxik galdetu zidan:

–Zer nai zuen Agotek?

–Biar goizean amarretarako bere langela edo bulegora joateko esan dit. Ez dakit zer naiko duen. Auskalo.

Modesto illuntzean etxera joan zanean, Garaxik kontatu izango zion Agotek nola deitu zidan, eta ori entzun zuenean, aserretu omen zan zearo, berari ezer aitatu gabe saltsa orretan asi ziralako. Ala esan omen zion orduan berekin zegoen lagun bati:

–Joxe Mari mutil ona dek, baiña ez dik balio emengo ardura eramateko. Eta emengo zeregiñetan ez dik urterik iraungo.

Bien bitartean, bat zalako edo bestea zalako, nik sufritu bear izan nuen orduan ere. Ori jakin zuenean, gure lankide

Olazar ere neretzako amorru gaiztoan jarri zan, eta aserre mintzatu zitzaidan:

–Ik gauza orren berri baekien leenago ere, argatik neri afaria jokatzeko ausardia izan uen. Nik uste nian elkarrekin konfiantza geiago genuela!

Ni saiatu nintzan gauzak gertatu ziran bezela esaten, baiña danak alperrik izan ziran. Olazar lankidea berean gelditu zan.

Gauzak orrelaxe izaten dira askotan. Batzuen gogokoa ez izanagatik, basetxeko kargu berria neri eta nere emazteari eman ziguten, Olazar saminduta gelditu bazan ere. Ark naiagoko zuen kanpokoren bat jarri izan balute nere tokian, baiña guri aukera orixe eman ziguten, eta borondate onez emandakoa onartzen jakin bear da, eta esker onez artu genuen. Eta ez zitzaigun inoiz damutu. Orrelako lote-riak oso noizbeinka bakarrik gertatzen dira mundo onetan.

## Maizter berriak

---

Min artu eta lanuztean nengoela, gure Mariak leenengo seme zoragarri ura izan zuen. 1965eko uztaillaren 10ean jaio zan mutikoa, eta bere aitaren aldeko aittona Anjel nola zan, billobari ere izen orixe jarri genion ilusioz gaiñezka. Bere guraso eta aittona-amonak pozik artu genuen aurtxoaren etorrera, eta Galarzelai Txikiko sukaldea izugarri alaitu zuen semetxoaren etorrerak. Ura zan zoramena gurea! Bagenuen abealdi berria, eta zer oberik familian?

Leenengo semea izan eta andik bi urte ingurura beste semetxo bat izan genuen, baiña erditze gogorra izan zuelako, edo sendagillearen erruz, aurtxoari buruan zerbait ondatu zioten nonbait, eta aren eragiñez ordu batzuk bakarik bizi izan zan. Neri erakutsi zidaten aurra artean bizerik zegoela. Nere begientzat leenengo semeak bezelakoxe aurpegia zuen, baiña amari semetxoa ikustea galerazi egin zion medikuak, bizi guztirako irudi txar bat gelditzeko arriskua zeukala esanez.

Amak bere erraietan sortu eta bizia eman zion seme kuttun ura ikusi gabe gelditzeak amari kalte aundiagoa egin ziola esango nuke nik, gero bere onera etorri eziñik illabeteak pasa baitzituen gure Maria gaixoak. Ama baten-tzat semetxoa galtzea gauza samiña izango dala ez dago zalantzarik, eta ark utzi zion zauria bere bizitza guztian izan zuela ziur nago.

Gure leenengo bi semetxo aiek Aiako Galarzelai Txikiko etxean bizi giñala izan genituen. Gero, 1967ko maiatzaren 2an Laurgaingo basetxera bizitzera joateko prest jarri giñanean Mariari negar-malko aundiak jaurti zitzaizkion bere begietatik. Izan ere, bi semetxo izan eta aingerutxo bat Aiako illerrian utzi eta etxe berrira aur bakarrarekin joan

bearra gogorra zan gurasoentzat, batez ere amarentzat. Une artan negar egiten ez duen amak biotzik gabea izan bear duela uste nik.

Laurgaingo basetxean bizitzen jarri eta andik urte eta erdira, beste semetxo bat izan genuen, 1967ko iraillaren 2an, eta Laurgaingo elizan bataiatu genuen, Nikanor izena jarritz.

Irugarren semetxo orrek Lertxundi eta Iburguren sendiko sormenari amaiera eman zion. Iru seme izan genituen, esan bezela, baiña zaarrenak eta gazteenak bakarrik izan dute bizitzan aurrera jarraitzeko suertea. Azkenengo ori etorri zanean, izugarritzko alaitasuna ekarri zuen basetxeko sukalde artara. Gurasoentzat bezela anai zaarrenarentzat ere, ume bakarra motz samar gelditzen baita familian. Senide asko dauden etxea, txiki-denboran beintzat, askoz alaiagoa izaten da beti ere, eta basetxe artan ere alaxe gertatu zala esan dezaket.

Basetxeko bizimodu berriari ekin genionean, izan genituen geure buruauste eta kezka larriak. Izan ere, etxe artara etortzen zan jende mota ura berezi samarra izaten zan geienetan. Nik aurretik ere ango billera aien berri zerbait banekien, eta Mariak, berriz, jatetxe garrantzitsu batean bost urtez lana eginda nola zegoen, jendearekiko arremanaren berri bazekien ondo. Baiña basetxean berriak giñan, eta ango tratuan poliki-poliki sartu giñan, badaezpada ere. Eta asmatu genuen.

Mariak eta nik, garai artako erri txikietako beste askok bezela, oso ikasketa murrizak genituen, baiña bakoitzak dakienarekin moldatu bear izaten du bizitzan, eta guk orixe egin genuen. Jendea zerbitzeko borondate ona geneukan, eta orrek urreak baiño geiago balio izan zigun. Guk basetxe artan asi genituen zerbitzu aiek egiñez ogeita amairu urte pasa genituen, eta iñorekin ez genuen izan arazo txarrik. Eskerrak emandakoak, berriz, asko izan ziran, asi aaldun

nagusietatik eta Aldundiko beste lankideetara. Ez daukat saltzeko antxe irabazitako izen ona.

Orrek zerbait baiño geiago esan naiko du, noski. Ondo samar portatu giñan seiñalea da ori, eta orrek diruak baiño geiago balio du pertsonaren bizitzan. Orrela pentsatu izan genuen beti.





## Modestoren portaera kaskarra

---

Laurgaingo basetxean izan zan bi familien arteko aldaketa egin zan egunean ere ez genuen izan gauza guztiak onez onean egiteko aukerarik. Ainbeste urte Aldundiko zerbitzuetan elkarrekin lanean igaro eta gero esan zitekeen ba elkar gozoro agurtuz banatu bearco genukeela. Baiña orduan ere zakarkerian eta modu txarrean amaitu genuen Modestorekin. Bere emazte Garaxi oso emakume ona zan, baiña alakoetan ark ere senarraren alde egin bear, eta ura ere aurpegi illunarekin agurtuta joan zitzaigun, zoritxarrez. Orretxen pena daukat oraindik ere.

Basetxeko zerbitzuetarako Aldundiak jarrita zeukan kotxea Modestok eraman zuen Hernanira aldatu ziranean. Gero, biaramunean etorri zan Laurgaiña berriro kotxea gure eskuetan uztera. Modestok nai zuena zan bera eta ni elkarrekin Billabonara joan eta ni kotxearekin Laurgaiña itzultzea berriro. Baiña orduan ere larri nintzan. Giatzeko karneta nuela baziran lau urte edo geiago, baiña geroztik batere ibili gabe nengoelarik, ez nintzala ausartzen esan nion, eta Modestok:

–Emen basetxeko atarian pixka bat ibiltzen lagunduko dizut, eta bereala jarriko zera.

Alaxe, ni autoa giatzen eta Modesto aldamenen nuela abiatu giñan atariko ordekan aruntz eta onuntz ibiltzeko asmotan; baiña jiratzen asi eta nik frenuari sakatu bearrean azeleratu egin nuen, eta aurreko pendiza jo genuen, zapla! Bolanteari elduta ni joan eta nik ez nuen izan ezer, baiña Modestok kopetarekin aurreko kristala jo zuen, eta bi eskuekin buruari eldu eta “Ai, ama!” eta “Ai, ama!” esaten zuen.

–Odolik ez dezu beintzat –esan nion–, eta ez zaizu ezer gertatu izango. Lasai, Modesto.

Baiña ark:

–Leengo astean orrelakoxe kolpe batekin il zan Zarauzko gizon bat!

Istripu batean il baitzan Modestok esaten zuen zarauztar ori, eta ura gogoratzen zitzaion nonbait. Baiña bereak ematen zion beldurrik aundiena ari, besterena beti ere ariñagoa izaten baita, naiz eta ura ere batzuetan naiko gogorra izan.

Basetxeko atarian asi genuen ariketa onean amaitu izan bagenu, ni gero Modestorekin kotxean Billabonara joango nintzan, eta ondoren nere gisan Laurgaiña itzuli. Bide arriskutsua da, ordea, Aiatik Asteasurako ori, eta bearbada istripu larriagoren bat izan nezakeen. Eskerrak basetxeko atarian bertan gertatu zitzaigun okerra. Suerte aundia izan zan ura. Neretzat beintzat bai, ondo pentsatu ezker.

Modesto Laurgaindik Hernanira joan eta urtea eta geiago igaro zuen Laurgaiña berriz azaldu gabe. Baiña etenaldi luzearen ondoren, udako igande goiz batean beste bi lagunekin etorri zan. Ni ez nintzan etxean, baiña nere emaztea sukaldean ari zan bere lanetan, eta Modestok basetxeko ataritik pasatzean kanpotik buruarekin agur egin sukaldeko leiotik begira zegoen Mariari eta aurrera jarraitu omen zuten, eta an gertu zegoen pagadian perretxikoak biltzen ibili omen ziran. Geiago kasurik egin gabe alde egin omen zuten azkenean.

Ori dana gertatu eta laster, Aldunditik Isidro Agote jaunak deitu zuen Laurgaingo basetxera aaldun nagusiaren izenean bazkari baten enkargua emateko, eta Mariarekin zer bazkari jarri bear zuen eta abar itz egin ondoren, galde-tu omen zion:

–Modesto azaltzen al da alde orietara?

–Ara –erantzun zion Mariak–, emendik joan zan ezkerroztik nik leenengo aldiz leengo igandean ikusi nuen. Beste bi lagunekin etorri zan, eta ataritik sukaldeko leiora bere

buruarekin agur egin eta aurrera jarraitu zuten, eta aldameneko pagadian perretxikoak biltzen ibili ziran. Geiago kasurik egin gabe alde egin zuten berriro.

–Kontxo, kontxo, bera or zegoen garaian danak bidaltzen zituen eta orain bere lagunak artu eta perretxikotan asi al da?

Itz oriekin amaitu omen zan Agote eta Mariaren arteko elkarriketa.

Agotek Mariarekin itz egin eta laster, Modesto basozaiña Aldundiko Agoteren langelara joan omen zan, eta esan:

–Ara, Modesto, jakin det lagun batzuekin Laurgaiñen perretxikoak biltzen ibili omen zerala oraintsu. Leen zedorek iñori ez zenion uzten, eta orain lagunak artu eta ango basoetan ibiltzea ez dago ba ondo. Ez orrela iruditzen?

Ori entzun zuenean, Modestok:

–Alkaueteak ere badaude beraz?

Eta Agotek:

–Ori esan didanak bere eginbearra bete du, eta zuzen dabilleni ez dago alkauetea zertan deiturik. Beste iñork baiño geiago errespetatu bear zenuke zuk Laurgaingo eremua.

Agote jaunak gogor samar egin izango zion, eta ura zalako-edo, leendik ere ez omen zuen oso gogokoa eta aurrera ere ez zuen begi onez ikusten Modestok. Baiña ark agindutakoa bete bearra zeukan, Agote basozaiñen gainetik zegoen eta.



## Basetxeko zerbitzuak

---

Mariak eta biok basetxeko ardura artu eta bazkari eta afariak ematen asi giñanean, beldur pixka batekin ibili giñan, eta lanari tiñua artzea zerbait kosta zitzaigun asieran. Bereala jarri giñan artara, ordea, eta basetxeko ardura artan urtea ez genuela pasako esaten jardun ziranak ederki isildu ziran, sekula baiño bazkari geiago egiteko aldia etorri baitzan basetxera. Ez urte bat edo bian, ogeita amairu urtean zerbitu genuen Laurgaingo basetxe eder ori. Eta orko martxa ondo generamakiela zurrumurrua zabaltzen asi zanean, orduan zera esaten omen zuten:

–Orko lan ori egitea utsaren urrengoa izango dek.

Lagun usteko aiek inbidia zeukatelako-edo, utsaren pare jartzen gintuzten bitartean, Aldundiko jende askok gorralmenak ematen zizkigun, eta orrek balio zuen guretzat, ez beste jende orren jardunak eta esamesak.

Garai artan eta geroago ere basetxe orretan bazkari asko egiten zan, eta aundi samarrak ere bai tarteka. Orrelakoe-tan kamarera-zerbitzuetan ibiltzen oituta zeuden emakume batzuk ekartzen genituen, eta aietako bat tartean lan gogorak egiten oituta zegoena zan. Eta Maria etxekoandreari ala esaten omen zion:

–Besteren batek esanda ez niñan bereala sinistuko etxe onetako lanetan onela nekatuko nintzanik. Azkenerako zearo jota gelditu naun, neska, leer eginda.

Askotan gertatzen zaigula uste det norberak egiten duen lan edo ekintza ura izugarria eta meritu aundikoa dala iruditzen zaigula, eta bestek egiten duena, berriz, utsaren urrengoa. Orrelakoxeak gera gizakiok. Naiz eta jakintza-maillan gorakada aundia egitea lortu duen gizakiak urte auetan, besteren ekintzak onartu ezin ori oso indarrean

dagoela esango nuke oraintxe ere, eta aurrera ere orrelaxe izango dala, seguruenik.

Laurgaingo basetxean gauza bitxi asko gertatu zitzagun, eta tartean xeble samarrak ere bai. Ala ere, orrelako toki batean bizi danak, naiz eta kontatzeko gauza politik iruditu, dana norbere kolkoan gorde bearrekoa izaten da askotan. Guk ere orixe egiten genuen, bestela gure ogibi-dea galtzeko arriskuan jarriko genuen eta. Ori burugabeak bakarrik egiten dute gainera, sekretuaren konfiantza baita gauzarik ederrenetakoa orrelako tokietan.

Gertakizun orren lekuko edo adierazgarri bezela, artean diktadura garaian geundela gertatutakoa izan zan. Orduko Aldundiko presidentea eta diputatuak billera bitxi eta berezia egin zuten bein batean Laurgaingo basetxean. Pentsa, beren emazteei esatea ere galerazita omen zeukate-la jakin genuen gero, eta bazkaria zerbitzeko ere kanpotik inor ekartzea galerazi egin ziguten. Mariak bazkaria prestatu eta nik zerbitu bear genuela agindu ziguten, eta orrelaxe egin genuen.

Baiña alako sekretuan beren ustez gauzak egiten jardun eta biaramuneko egunkarian or azaltzen da bezperan Laurgaingo basetxean zer billera egin zuten Gipuzkoako Aldundiko presidentea eta diputatu jaunak. Guztia argi eta garbi agertu zan. Egun artako egunkaria okiñak ekarri zigunean irakurri genuen senar-emazteok, eta leenengotik beldurtu ere egin giñan. Baiña guk nola ez genion inori ezer esan, beste nonbaitetik jakingo zutela pentsatu genuen, eta orrek eman zigun lasaitasuna. Aldunditik ere nola inork ez zigun deitu, ez zigutela errurik guri botako pentsatu genuen.

Ikusten danez, beren tarteko norbait izango zan azpijan ura egin ziena. Ardilarruz jantzita izango zan diputadu otsoren bat tartean nonbait, eta oriek izaten dira ortik onakoak askotan. An ere izango zan orrelakoren bat, itxura danez. Luzaro baiño leen jakingo zuten zein zan ala

zebillena, eta andik aurrera arekiko konfiantzak galduko zituzten bere inguruko guziak.

Orrelakoak lagunik gabe gelditzen dira azkenerako, baiña beti izaten dira eta izango ere orrelakoak tartean. Orduan baziran, orain badira, eta gero ere izango dira zalantzarik gabe, belar onaren tartean beti sortzen baitira belar gaiztoak. Gizartean ere berdin gertatzen da. Garai eta aldi guztietako kontua da ori, eta ez genuke orrelako gertakizunekin batere arritu bear.





## Zuzen jokatur

---

Leenago ere esana daukat nola senar-emazteok geure semetxo kuttunarekin Aiako kaletik Laurgaingo basetxera bitokiz aldatu giñan, 1967ko maiatzaren 2an. Egun ura osteguna gertatu zan, ain zuzen, eta leenengo iru egunak lasai eta iñor bisitara etorri gabe igaro genituen.

Maiatzaren 5a igandea zan, eta arratsalde artan, orduan Aldundiko presidente zegoen Antonio Epelde jaunaren emaztea eta beste iru lagun andere etorri ziran Laurgaiña. Sarrerako atean txirriña jo zuten, eta nere emazte Mariak atea ireki zienean, aurrena zegoen andereak esan zion:

–Ni Aldundiko presidentearen emaztea naiz, eta auek, berriz, nere lagunak dira.

–Barkatu –erantzun zien Mariak–, nik ez zintudan ezagutzen, baiña sartu barrura, etorri lasai sukaldera.

–Ez dago zer barkaturik, andrea. Nik banekien etxe onetara maizter berria etortzekoa zala, eta zuek ezagutuz bisitatxo bat egitera etorri gera. Bide batez, zerbait baldin badaukazu jateko, meriendatxo bat egingo genuke.

–Gauza aundirik ez daukagu, baiña zuen gogoko balira, xixekin egindako tortilla eta arkume-txuleta batzuk jarriko dizkizuet erreta. Zer iruditzen zaizu?

Andere gorenaren erantzuna:

–Ezustean etorri eta eskaintza ori egitearekin arrituta uzten nauzu. Baiña zuk jartzen badituzu, guk pozik jango ditugu. Eta nola giro ederra dagoen, kanpoan ibiliko gera paseatzen, eta pronto zeranean deitu.

Ori esan eta atarira irten ziran.

Lau andere aiek atarira irten ziranean, Maria sukaldaritzan eta ni jangelan aientzat maia prestatzen asi giñan. Ni, jangelako lana amaitu nuenean, sukaldera joan eta

Mariari laguntzen asi nintzan. Eta jakiak prestatu ziranean, dei egin nien lau andereei. Barrura sartu ziranean, leen-bizi xixa-tortilla eraman nien, eta gero arkume-txuletak. Gaiñean, arrosesnea, eta maai-azken bezela, kafea, merienda amaitzeko.

Afari-merienda ostean, maai-inguru goxoan kontu-kontari saio bat egin, eta etxera abiatzean sukaldaraiño sartu ziran. Eta, besteak ere bai, baiña batez ere etxeoandre gorenak biziki eskertu gintuen, Maria bereziki, ustekabean etorri eta ain jaki goxoak jarri zizkielako, esanez:

–Oso sukaldari ona izango zerala iruditu zait, eta ori Aldundiarentzat oore aundia da. Orrelaxe urte askoan elkar ikusteko zoria izan dezagula. Gu oso pozik goaz, eta berriro ere laster etorriko gera bisitatxo bat egitera.

Elkar besarkatu ondoren etxera bidean abiatu ziran lau andere aiek.

Aldundiko presidente jaunaren emaztea eta bere lagunak ain gustora joan zirala ikusirik, Maria eta ni biok ere poz-pozik gelditu giñala esan bear, jakiña, egin genuen zerbitzuarekin asmatu genuela pentsatuz. Ura garaipen aundia izan zan guretzat, Laurgaingo basetxean leenengo zerbitzua gainditzeak konfiantza eman baitzigun. Ori gabe ez dago aurrera egiterik.

Aldundiko andere gorena eta bere lagunak zerbitu genituen eguna 1967ko maiatzaren 5a zan, esan bezela. Geure lan berriari asiera eman genion egun gogoangarria. Andik aurrera, beste ogeita amabi urte paseak egin genituen Mariak eta biok, eta geure semeak ere bai, eskolatik etortzen ziranean. Asteburuetan asko laguntzen ziguten bi mutikoak basetxeko zeregiñetan, eta ori gurasoentzat poztasun aundia da. Estuasunetan asko balio du alako laguntza izateak.

Laurgaingo basetxean eta eremuaren barruan lan eta arazo asko sortzen zan, batzuetan naiko astunak ere bai, eta estualdi eta lan-bolada galantak izaten genituen sarri. Baiña estualdi guztietan elkar ondo artuz arazo guztiei aurre egin eta gainditu genituen, zorionez.

Politika aldetik oponio guztietako bisitariak etortzen ziran, baiña danekin asmatu genuen. Eta garai artan zegoen gizarte naastu aren barruan ori lortzea miraria ere bazala esango nuke.

Jakintsuak giñalako ez genuen jendearekin asmatze ori lortu, zentzun eta borondatez jokatu genuelako baizik. Eta ori ez da diruarekin erosten dan zerbait.



## Beti zerbait ikasten

---

On Antonio Zabaleta Laurgaingo eremura Azketa zuzendari jaunarekin batera sarritan etortzen zala esan det leenago. Bakarrik zetorrenean, Modestok nola jakiten zuen aren etorreraren berri, neri ere esan oi zidan, eta lanean asi baiño leenago eremuan zear ibillaldiak egiten genituen sarri.

Zabaleta jaunak begi onez ikusten ninduela bazekien, eta Modestok ere neri oso era onean egiten zidan. Benetan maite ninduen itxurak egiten zizkidan beintzat. Neu ere gaztea eta gaizki pentsaturik gabea nola nengoen, benetan sinisten nuen bi aien maitasuna egitazkoa zala. Eta Laurgaiñen lanean asteko aukera eman zidatenean, ez zan munduan ni baiño mutil zoriontsuagorik. Zabaleta jauna nere aita bezela zan, eta Modesto, berriz, ain gozo eta atsegiña izaki, bi nagusi obeagorik gertatzea eziñezkoa zan nere ustez, eta aien mende lantokia izatea baiño loteria aundiagorik ez zegon tokatzerik.

Nik orrela pentsatzen nuen. Suerte ori parez pare tokatzea geiegizkoa zala ere iruditzen zitzaidan askotan. Gure ama zanak egun batean esan edo eman zidan kontsejua leenengotik onartu ez banuen ere, gero gauzak okertzen asi ziranean neure artean pentsatzen nuen: pertsona elduak eta, batez ere, ama zentzudun batek bere seme-alabei emandako kontsejuak onartzekoak dirala, geienetan bai beintzat, eldutasunak eta eskarmentuak emandako esperientzia edukitzen dutelako. Gure amak Modestorekin kontuz ibiltzeko esan zidanean, leenengotik ez nuen onartu, baiña bete-betean asmatu zuela aitortzen nion gero, egi borobilla baitzan amak esan zidana. Pertsona elduak asko jakiten dute, eta nere amak iñork baiño geiago.

Laurgaiñen lanean asi nintzanean, gaztea eta eskarmen-turik gabea nengoen, soldadu joan arte baserrian lanean jarduna, garai artako baserriko seme geienak bezelaxe, neure erritik iñora atera gabe.

Soldaduskako zerbitzua Gasteizen egin nuen, eta alabea-  
rrez iru illabete bakarrik. Soldadu egiteko naikoa eta geiegi  
izango zan, baiña munduko berri ikasteko denbora gutxitxo,  
bearbada.

Gaiñerakoan, garai artan ez zegoen ezer ikasteko auke-  
rarik gure baserrietako bizitzan. Irrati eta telebistarik ez  
zan, errebista eta egunkaririk gutxiago. Irakurtzen geni-  
tuen gauza bakarrak kristau-ikasbideko liburuxka eta  
bertsopaperak izaten ziran. Ez zegoen beste aukerarik.

Nik ere neure kideko mutillak zuten bizimodu beretsua  
egiten nuen: igande eta jaiegunetan, goizean meza entzun,  
eta eguerdira arte, uda-garaian, ganadu-jatekoak ekarri eta  
abar. Neguan, berriz, geienetan eguerdira arte eizean ibili,  
eta arratsaldean lagunekin erromeriren batera, inguruan  
ezer bazan. Ala ere, geienetan Aiako enparantzan bertan  
izaten zan erromeria, edota bestela, erriko auzoren batean.  
Orixe genuen jaiegunetako jolasa eta entretenimentua gure  
gazte-denboran. Eta orrekin naikoa, gure ustez. Ez zegoen  
oraingo konturik.

Erromeriak garai artan nola oso goiz bukatzen ziran,  
aukera zanean neska-laguntzera joaten giñan. Eta ori ez  
zanean, afaltzeko dirurik nola ez genuen izaten, "Café to-  
ro" bat artu eta ondoren erriko ostaturen batean bertsotan  
saioen bat edo beste aal ziranak egin, eta etxerako bidean  
ere bertsotan egiñez joaten giñan elkarrengandik banatu arte.

Garai artan aste guztia baserrian lanean pasatzen  
genuen, orduan ez baitzegoen oraingo konturik. Oraingo  
gazteak asteburuak non festa edo jaia, an anka ibiltzen  
dira, baiña bein baiño geiagotan esan eta idatzi izan deda-  
nez, gaurko gazteak dituzten aukerak izan bagenitu, gu

ere aspertu egingo giñakeela bearbada, oraingo gazte asko bezela. Gure garaian ez zegoen aspertzeko arrisku eta astirik orde. Beti festa-goseak egoten giñan.

Ala ere, gaurko gazte asko baiño zoriontsuago izan giñala esango nuke geure gaztaroan. Orain, aukera guztiak dituztela ere, ez omen dira konforme bizi gazteak. Orduan gauza gutxirekin bizitzen oituta nola geunden, jaietako erromeria izan ezker, gu pozik. Zer geiago bear genuen ba?

Ni amalau urtera arte ibili nintzan eskolan. Baita zerbait ikasi ere. Baiña bein eskolatik gelditu nintzanetik, beste zazpi bat urtean beintzat ez irakurri eta ez idatzi egin nuen. Orrelaxe igaro nituen eskola ondorengo zazpi urte, eta ikasitako gauzarik geienak aaztu samartu zitzaizkidan. Izan ere, pertsonak, ofizioa ondo ikasita ere, gero erabat utzita urteak pasatzen baditu, gauza asko aaztu egiten du, eta ikasteko erreztasuna galdu.

Neri orixe gertatu zitzaidan. Gero, bearra etorri zitzaidanean, berriro zerbait ikasten asi bear izan nuen, neure gisara, maistra-maisu bizimodua bera nuela. Alakoxe bearra izan nuen, eta aalegindu egin bear. Eta orrelaxe saiatu izanari esker, bizimoduan aurrera egin genuen beti Laurgaingo basetxean ere. Ez da gutxi.





## Balduino eta Fabiola Laurgaiñen

---

1961ean Modesto eta Garaxi senar-emazteak Laurgaingo basetxean bizi zirala, on Antonio Epelde Aldundiko presidentete zegoela, Belgikako errege-erregiñak –Balduino eta Fabiola– Zarautza etortzen ziran udako oporrak pasatzera. Izan ere, Fabiolaren gurasoak jauregi edo txalet eder bat zeukaten erri orretan, eta antxe igarotzen zuten udako atsedaldia.

Leen esandako urte orretan, on Antonio Aldundiko presidente jaunak Laurgaingo basetxea eta bere ingurua errege-erregiñei eskaiñi omen zizkien, berak nai zutenean joan eta bazkari eta billerak, edo nai zutena egiteko aukera izan zezaten.

Aldundiko presidente jaunaren aginduz, Balduino eta Fabiolak beren sendiko eta laguntzaille talde osoarekin bazkaria egin bear zutenean beintzat, beren zaintzaille, sukaldari, zerbitzari eta eguneroko bizitzan zeuzkaten laguntzaille guztiakin joan oi ziran Laurgaiña, eta bazkari eta afariak egiñez ibili ziran uda artan.

Gipuzkoako presidente jaunaren aginduz, Laurgaingo eremuaren zuzendari Azketa jaunak Aldundiko basozaiñak bidaltzen zituen basetxe ingurua zaintzeko aginduz, errege-erregiñak bertan zebiltzan bitartean. Eta bertako iru basozain gazteok ere antxe ibiltzen giñan egun aietan sortzen ziran eginberrak betetzen.

Aipatu dedan urte orretan, Balduino eta Fabiolak beren taldearekin bisita asko egin zuten Laurgaiña. Baiña, bi nazioetako politikarien artean zerbait gertatu zalako-edo –ala esan ziguten beintzat–, orren ondorioz ia beste sei urtean ez ziran geiago azaldu basetxe orretara.

Lertxundi-lbarguren sendia osatzen genuenok, 1967ko maiatzaren 2an Laurgaingo basetxean bizitzen jarri giñan,

leen esan bezela, eta urte artako iraillean Balduino eta Fabiola sei urte leenago bezela berriro basetxera etortzen asi ziran. Geiagotan ere izan zirala badakit, baiña bi egunetako bazkariak eta billerak izan ziran historiarako gelditzen diran orietakoak. Bat, irailaren 5ean egin zutena, oso berezia; eta andik bost egunera, irailaren 10ean egin zutena oraindik eta bereziagoa.

Balduino eta Fabiolaren besoetako neskato batek, Fabiolaren illoba izango zan noski, 14 urte betetzen zituela egun artan eta benetan ospakizun unkigarria egin zuten. Leenengo, goi-maillako jakiz prestatutako bazkaria izan zuten, eta maai-azkena ere alakoxea. Ondoren, berriz, kantaldia, antzerkia eta zer ez zuten egin. Ikusgarritzko eguna pasatu zuten errege-erregiñak eta gaiñerakoak illobaren urtebetetzea zala eta.

Ospakizuna egin eta urrengo igandean, talde aundia etorri zan berriro Laurgaiñen bazkaltzera. Bazkalondoan, berriz, oso eguraldi ederra nola egiten zuen, atariko zelaian gazte-jendea jolasean eta elduak antxe aien tartean zebiltzala, Pagoeta mendiko gaillurreko gurutze aundia ikusi zuen Balduinok, eta neri galdetu zidan zer esan nai zuen gurutze ark mendigain artan ala egoteko. Neure moduan esan nion gurutzea an egiteko arrazoiak zeintzuk ziran: Euskaldunen oitura eta ekintza aundi bat zala gurutzea mendigaiñean zutik jartzea, eta Pagoetakoak, berriz, beste berezitasun bat ere bazuela, Aia eta Zarauzko abertzaleen elkarteak danen artean jaso zutelako gurutze ikusgarri ori, eta abar. Aal nuen bezela kontatu nizkion Pagoetako gurutzearen istorioak.

Ori jakin zuenean, Balduino jauna, bere bizkarzaiñak eta illoba gazte mordo bat inguruan zuela, Pagoetako gurutzea ikustera abiatu zan. Baiña nola Fabiola bere lagunekin basetxean gelditu zan, ni, badaezpada ere, bertan gelditu nintzan, alaxe agindu zidaten eta. Gurutzerako bidea

erakutsiaz gure lankide Olazar gidari zutela, talde osoak Pagoetako gaillurrera bideari ekin zion.

Balduino bera ibiltari ona zan. Gaiñera zapatillak eta mendirako bear ziran oiñetako eta jantziz ondo osatuta zegoen, baiña bizkarzain gizarajoak zapatekin nola zeuden, alaxe abiatu bear mendian gora. Larri ibili omen ziran gero erregeari jarraitu eziñik. Izerdi galanta atera omen zuten. Gizarajoak!

Erregea eta bere taldea mendira joan ziranean, Fabiola bere lagun eta zerbitzari batzuekin basetxean gelditu zan, esan bezela. Eta Maria nere emazteak nola ontzi-garbigailurik ez zuen basetxean, arraskan ontziak eskuz garbitzen asi zanean, Fabiolak mantala eskatu zion, ark ere ontziak garbitu bear zituela eta. Asko gustatzen omen zitziola lan ori, baiña Belgikan ez ziotela uzten esan zion, eta gozatu nai zuela iñoren aitzakirik gabe.

Bistan da. Etxeko lanak eta askatasuna gustatzen nonbait ari ere noizean bein, kapritxoz bada ere. Bere gustokoa izate orrek gauzak asko aldatzen ditu beti ere. Bearrak eta egunerokotasunak aldatzen ditu gauza oriek, zoritxarrez.





Fabiola eta Balduino errege-erreginak Zarautzen (arg. foto Ramiro)



## Erriko esamesak

---

Nere emazteak eta nik 1967ko maiatzaren aurrenean asiera eman genion Laurgaingo basetxean artu genuen eginbearrari. Eta leenbiziko illabete batzuk lan puska bat egiñez, baiña lasai antzean igaro genituen. Baiña andik aurrera beste ogeita amar bat urtean, astean lau edo bost bazkari izaten genituen, eta orietako asko talde aundi samarrekin gaiñera. Nekatualdi ederrak izaten genituen, baiña jendea pozik joaten zan basetxetik, eta batek baiño geiagok eskerak eman zizkigun egiten genuen lanagatik. Eta orrek aurrera jarraitzeko indarra eta adorea ematen zigun.

Guk basetxeko ardura geure gain artu genuenean, norbaitek esan omen zuen etxe artara joaten zan jende mota ura zerbitzeko guk ez genuela balio, eta urtebete baiño leen bidaliko gintuztela andik. Baiña oso oker zebiltzan ori esaten jardun ziranak, ogeita amabi urtez zerbitu bait genuen Laurgaingo basetxea. Gaiñera, basetxeko zeregiñak ondo egiten genituen zurrumurrua zabaldu zanean, ederki isildu ziran au eta ori berriketan ari ziran leengo mingainluzak. Lagun ustekoak ere, basetxeko martxa ondo generamakiela jakin zutenean, sufritu eziñak eraginda-edo, “orko lanak egitea utsaren urrengoa izango dek, itxura danez”, eta orrelakoak esanez mintzatzen omen ziran goralmenak eman partez. Utsaren urrengotzat jartzen zuten nonbait guk egiten genuen lana. Guk geurean jarraitu genuen ordea, zintzo jokatzuz beti ere.

Nolanai dala ere, esames eta jardunerako aukerak askotan gertatzen dira gure bizmodu onetan. Norberak egiten dituen lanak izugarriak izaten dira, eta besterenak uskeriak berriz. Baiña bakoitzak artzen duen kargu ura ondo betetzea beti izaten da txalogarri, eta Laurgaingo basetxean

geundenok orixe egiten saiatu giñan egunero, geure bete-bearrak zintzo betetzen, txorakerietan ibili gabe. Aldundiko jaun batek baiño geiagok eskertu zuten gure lana, eta orretzek animatuta igaro genituen ainbeste urte Laurgaiñen.

Senar-emazteok Laurgaingo basetxeko ardura artu genuenean, on Antonio Epelde jauna zegoen Aldundiko presidente, eta basetxera etortzen zanean oso tratu gozokoa zan. Berez jenio bizi samarrekoa omen zala esaten zuten, eta, gaiñera, karrera militarra egindako gizona zala.

Alaxe izango zan, gero jakin genuenez. Bein baiño geiagotan etorri zan gradu aundiko militarrekin Laurgaingo basetxean bazkaltzera. Nik gero jakin nuen zergatik gonbidatzen zituen militar aiek. Aldundiko Basogintza Sailleko bulegoan idazkari zegoen Agote jaunak ala esan zidan, Epelde jaunak Ondarrabiko aireportuko zuzendari izatea lortu nai omen zuela militar aien bitartez, eta argatik gonbidatzen zituela bazkaltzera. Baiña azkenean zerbaitek uts egin zion nonbait ari ere, eta elburu ori lortu gabe gelditu zan. Ez zuen bere ametsa betetzeko suerterik izan.

Orrelaxe da gizonaren bizitza. Amets asko izaten ditugu buruan, eta gure elburu nagusia amets oriek egi biurtzea izan oi da. Baiña batzuek bakarrik izaten dute suerte ori. Epelde jaunak bere amets nagusia bete gabe gelditu bear izan zuen. Aldundiko jaun goren izatera iritsi zan, eta ori oore aundia zan orduan ere. Gaur ere bai, noski. Baiña giza-kiaren gaitz nagusia orixe da: eskuartean daukaguna baiño zerbaite geiago nai beti. Ori bakoitzak daramagu barruan itsatsita, eta Epelde jaunari ere orixe gertatu nonbait. Bere barrengo egarri aundia ase gabe gelditu zan, ordea.

Joanak joan ziran, baiña garai artako politikarien artean gertatzen ziran gertakari eta tirabira asko jakiteko aukera ere izaten genuen Laurgaiñen, baiña garrantzitsuenak edo pisu aundi samarrekoak isilik gordetzen saiatu giñan beti, danon onerako. Bearko!



## Estuasun galanta

---

1967ko uda artan, askotan etorri ziran Balduino eta Fabiolar Belgikako errege-erregiñak Laurgaingo basetxera. Baiña iraillaren 20an, edo inguru orretan, beren bisitak amaitutzat eman zituzten.

Garai artan Gipuzkoako Foru Aldundian presidentearen ordeko egiten zuen Santiago San Martin jaunak bere senitartekoekin egiteko ogeita amar bat lagunentzat bazkaria enkargatuta zeukan. Eta San Martin jaunak bazkaria zuen egunean, eguerdiko amaika t'erdiak aldera-edo dozena erdi bat kotxe etorri ziran Laurgaiña, danak jendez gaiñezka. Zeintzuk ote ziran begira jarri giñan senar-emazteok sukaldeko leiotik. Balduino eta Fabiolar beste guztien artean azaldu ziranean larritu giñan gogotik. Leenago jangelan ogeita amar lagunentzat maai jarrita gendukan, eta beste talde ura dana non sartu bearke genuen pentsatzen genuen. Berealaxe Fabiolar erregiña etorri zitzaigun, ordea, sukaldera, eta esan:

–Deitu ere egin gabe etorri gera, baiña zuek lasai egon. Eguraldi ona ikusi degunean pentsatu degu ementxe bazkalduz eguna pasatzea. Baiña bazkaria geuk prestatuko degu, eta gaiñerako gauza guztiak ere geuk ekarri ditugu. Zuek lasai egon zaitetzten etorri naiz sukaldera. Ez kezkatu guregatik.

Orduan, Mariak:

–Ondo da, baiña zerbait falta izan ezker, etorri zaitetzte lasai, baldin badago beintzat zuek nai edo bear dezuena pozik emango dizuegu eta, eskatzen dezuena eskatzen dezuela.

Fabiolar erregiñarekin berriketaldia egin eta andik ordubetera-edo etorri ziran San Martin jauna eta bere senitartekoak. Balduino eta Fabiolar eta gaiñerako talde ura an ikusi zutenean, beldurturik sukaldera etorri zan San Martin jauna, eta galdetu zidan:

–Oriek gaurko eskatuta al zeukaten bazkaria?

–Ez, ez. Ustekabean etorri dira, eta ikusi ditugunean geu ere zer egin ez dakigula gelditu gera. Baiña Fabiolak berak esan digu eguraldi ona ikusi dutenean pentsatu dutela ona etortzea egun-pasa, eta orrelaxe etorri dirala. Baiña lasai egoteko esan digu, atariko zelaian bazkaria berak prestatu eta ortxe bazkalduko dutela eta. Eguna orrelaxe pasatu eta agurtu nai dutela Laurgaingo paradisua. Orixe esan digu, itzez itz.

Mariak gauza nola zan esan zionean, San Martin jauna ere lasaitu zan ederki, eta Balduino eta Fabiolarengana joan eta agurtu ondoren, esan omen zien zerbait bear bazuten eskatzeko beldurrik gabe, bere etxean zeudela eta. Bere eskaintza eta agurra errege-erregiñei egin ondoren, bazkaltzeko tokira sartu zan.

Basetxera iritsi zan une artan, Balduino eta Fabiola beren taldearekin ikusi zituenean, bere barruan korapillo ederra jarri izango zitzaien, ala esan zuen beintzat. Badakizu, Aldundiko jaun oriek ere iñori aginduak emanaz dabilzan garaian ondo ibiltzen dira, baiña berak baiño aundiagoren bat aurrean jartzean estutu eta larritzen dira, zerbaitetan uts egingo duten beldurrez-edo. Orrelaxe baita gizakiaren izatea eta bizilegea.

Orrelakoxe bitxikeriak gertatzen ziran Belgikako errege-erregiñak Laurgaingo basetxera etortzen ziran garai artan.

Errege-erregiñei tokatzen zitzaien moduan, beren zerbitzari, sukaldari, kotxe-gidari eta zaintzaille edo sekito osoa beti beren inguruan izaten zuten, eta taldearen buru edo zuzendari koronel bat zegoen. Eta berak ordaintzen zituen basetxetik artzen zituzten gauza guztiak, eta azkenengo egunean bere taldeko zerbitzari guztiei eta basetxekoei, eta Aldundiaren partetik zerbitzen ibili ziranei, bakoitzari sobre bana eman zigun koronel jaun orrek, barruan bosteen pezetakoa zuela –garai artan diru asko zan ori, baiña

nazio bateko erregearentzat ez zan ezer asko izango, noski-. Gauzarik aundiena zan errege aiek borondatea izatea, eta eskupeko ura jaso genuenok benetan pozik geldituko giñan, batez ere gu, senar-emazteok.

Ez zitzaidan gustatzen orrelakoak esatea, baiña ango martxan geundela eskupeko berezi bat baiño geiago artuak giñan geu ere, mesedeen ordaiñez. Alakoetan isilik egoteak asko balio zuen, ordea, eta guk orixe egiten genuen: isilik egon bear zanean, isilik egon.



## **Añabasoko borda berria**

---

Gipuzkoako Foru Aldundiak Laurgaingo eremua erosi baiño bi edo iru urte leenago erosi zuen Zegamako erriari zego-kion mendi sail bat, Añabaso izenez ezagutzen zana.

Baso-lur ona zan eta, orretaz gaiñera, udazkenean usopasa berezia izaten zan tokia. Garai artan Gipuzkoako aaldun batzuk eiztari amorratuak ziralarik, aien bultzada zala medio eize-garaia zetorrenerako gai orretan adituak ziranak prestatu eta jartzea pentsatu zuten nonbait, eta baita egin ere, usopasa garaian bertara joan eta egun batzuk antxe usotan egin eta jan eta lo bertan egiñez pasatzeko.

Baiña artarako aterpe edo borda bat komeni zan, eta eraikuntza egiteko eremuaren erdigunean iturria ere bazan, eta leenbizi iturritik ura ekartzeko tuberia ekarri eta, gero borda egin bear zan tokia baiño goraxeago, ur-depositoa egin zuten. Ondoren, borda ederra ere bai: sukalde aundia, alde batean sukaldaritzarako gauzak, eta beste aldean maai aundi bat, komuna eta trasteak gordetzeko zirkillua. Eskaillerak igo eta goian lau bat lagunek lo egiteko toki ederra ere bai. Argia egiteko jeneradorea edo orrelako zerbait ere bai, kamiñoa bordatik eun bat metrora eta abar.

Eguraldi onarekin kotxeak bordaren ondoraiño igo zitezkeen. Eize-aitzakian joan eta zortzi-amar bat egun bertan ederki pasatzeko leku ezin aproposagoa zan. Mendi batean ez dago geiago eskatzerik. Zertarako gero?

Añabasoko eremuan borda berria egin, usotarako etxolak eta beste gauzak prestatu eta eiztariak joaten asteko pronto jarri zutenean, 1953an ireki zituen ateak Añabasoko borda berri orrek, ura egiten jardun zuen Joxe Lasa alegitarak esaten zuenez.

Añabasoko borda berria, ur-depositoa eta gaiñerako gauzak egin eta martxan jarri zantetik, Gipuzkoako Foru Aldundia arduratzen zan andik aurrera bordaren zainketaz, eta garaia etortzen zanean urtero irekitzen zuten. Borda zabalik zegoen denboran, berriz, Aldundiko basozaiñak txandaka bertako ardura edukitzen zuten. Era orrelaxe amasei bat urte.

Baiña borda eta ur-gordaillua oso ondatuta zeuden, eta berrikuntza-lanak egiteko berriz ere leen ango lanak egin zituen Joxe Lasari eman zion ardura Aldundiak. Lasa orrek ordurako Aiako neska batekin ezkondu eta bizitzen urteak eramango zituen, eta bera nagusi zutela beste iru mutillekin asi zan berrikuntza-lan oriek egiten. Iru mutilletatik bi alegitarrak ziran, eta irugarrena, Aiako sakristaua, eta elizako koruan kantatzen zuena gaiñera. Laurok ekin zioten lanari jo eta ke, abuztuaren azken aldera, urrillaren aurrenerako dana bukatu eta pronto egon bear baitzuen, usogaraia asterako.

Iraillaren 26 osteguna zan, eta ordurako Añabasoko berrikuntza-lanak bukatzeaz zeuzkaten Lasa eta bere langilleak. Ori jakin zuenean, Aldundiko Basogintza Sailleko bulegoko idazkari nagusi Isidro Agote jaunak, ostegun goiz artan deitu zidan Laurgaingo basetxera, eta esan zidan:

–Arratsaldean laurak alderako-edo Donostiara etorri zaitez, Joxe Mari, Añabasoko bordako almazena eize-garaia asterako edari eta gaiñerako jenero gauzekin ondo bete eta ornitu bearra daukagu-eta, eta orretarako erosketak egin bear ditugu, urrengo goizean Añabasora eramateko.

Esan bezela, Donostiara joan nintzan, eta an erositako jaki eta edariz furgoneta kargatu genuenean, Agote jaunak esan zidan:

–Joxe Mari, orain etxera joan zaitez, eta biar goizean ni Aldundiko Felix txoferrarekin zortzietarako abiatuko naiz, eta zu ere garaitsu orretan abiatu zaitez Laurgaindik, danok bateratsu iristeko Añabasora.

Orrelaxe elkar agurtu eta bakoitza bere etxera. Biaramunean, ostiralez, zortzietatik laster abiatu nintzan neure furgoneta bete gauzarekin Añabasora bidean. Otzaurteko bidegurutzean, Añabasoko pista asten dan gunean, atzetik arrapatu ninduten Agotek eta Felixek, eta elkarren jarraian iritsi giñan Añabasoko bordara.

Lan askotxo genuen eskuen artean, eta bereala asi giñan, Felixek eta nik kotxeetan eraman genituen jaki eta edariak barrura sartu eta Agotek esaten zuen tokian jartzen dana, bear bezela ordenatuta.

Eraman genituen jaki-edariak beren tokietan jarri genituenerako Joxe Lasak bazkaria pronto zeukan danontzat. Lasaren iru mutillak bordaren jira txukuntzeko lanak bukatuak zeuzkaten, eta ordu bata inguruan, zazpikotea umore ederrean bazkaltzen asi giñan. Nor gu baiño obeki une artan?

Udazkeneko eguraldi zoragarri orietakoa gertatu zan, eta bapo bazkaldu genuenean, maai bat atarira atera eta antxe jarri giñan, kafea eta kopa artuz, edozertarako prest.

Isidro Agote jauna oso abots ederrekoa zan, eta Lasak ere eztarri indartsua izaki, Alegiko mutil aietako batek ere abots ona, eta Aiako sakristaua, berriz eliz koruan urteetako jaiegun guztietan kantatzen ikasia, eta neu ere alako umoreko tokian bertsotan egiteko kupirarik gabea... Itz gutxitan esateko, danon artean koro berezia osatu genuen bordako atari artan.

Añabasoko bordatik eun bat metrora, gutxi gorabeera, beste borda bat zegoen, Zegamako artzai batena, inguruan garaman ederra zeukala. Leenago ebakita zegoen garoa, eta orduan lau lagun ura biltzen ari ziran. Añabasoko bordaren atarian geunden taldeak ateratzen genituen kantu-orroak entzunda, arritzen zeuden gu geunden aldera begira, zer gertatzen ote zan. Seguru asko mozkortuta edo erotuta egongo giñala pentsatuko zuten. Ez zan gutxiagorako guk ateratzen genuen zarata entzunda.

Kantuan aspertu giñanean, Agotek esan zidan:

–Nik papera eta lapitza pronto dauzkat, eta zuk bertso batzuk kantatu bear dituzu, Joxe Mari, mendi-gain onek merezi du eta. Zuk kantatu aala nik idatziko ditut, edo saiatuko naiz beintzat. Asi nai dezunean.

Alaxe, ondorengo bertso auek kantatu nituen, eta Agote idazkariak jaso zituen. Eskerrak berari:

Bazkaria sukalde  
barruan genduan.  
Kanpora irten gera  
jan degun orduan.  
Orain kantu ta bertso  
bordaren onduan.  
Gaur gu baiño obeto  
zein dago munduan?

Emen festa jartzeko  
gu izan gera gai,  
eta inguru dana  
orain degu alai.  
Lanean saiatzea  
bearrezko da, bai,  
baiña noizik eta bein  
egin bear da jai.

Gaurko antzera saia  
bear degu biltzen,  
gure bertso ta kantuz  
bazterrak alaitzen.  
Aleginduz besteri  
guk erakutsitzen  
jakin bear degula  
pozikan bizitzen.



Bazkalondo onetan  
gaude gozo-gozo.  
Emen giro ederra  
dadukagu oso.  
Billera au gogoan  
bear degu jaso.  
Amets-toki biurtu  
zaigu Añabaso.

Aseran oso estu  
nedukan arnasa,  
emen kantatutzia  
ez baitzan jolasa.  
Zerutik jaitsi zaigu  
gaur zorion-jasa.  
Bazkalondo oberik  
ez det inoiz pasa.

Zeruko aitak ere  
gaur onetsi gaitu,  
olako giro ona  
berak egin baitu.  
Nere bertso-saioa  
bear det amaitu.  
Ni isiltzera noa  
ta zuek jarraitu.

Alaxe, nik amaitu nuela esan nuenean, “Agur, jaunak”  
kantatu genuen danok batean, marru aundian gaiñera, eta  
orduak Agote jaunak esan zuen:

–Orduak aurrera dijoaz eta bukatu egin bearko degu.  
Egia esan, pena aundia ematen dit emengo giro eder au  
utzi eta Donostiako zarata artera joan bearrak. Pasatakoak

aaztu egiten dira, baiña bizi guztian pasa dedan bazkal-  
ondorik ederrena gaur pasa dedala esango nuke. Aurrez  
prestatutako oriek askotan gaizki atera oi dira, eta gaurko  
billera xume au, berriz, begira zein zoragarria atera zaigun.  
Gauzak parean tokatu bear orretarako, gaur bezelaxe.

## Araluze jaunaren biltzarrak

---

Antonio Epelde jaunak 1968an Gipuzkoako Aldundiko presidentetza amaitu zuen, eta Juan Maria Araluze jauna eseri zan Aldundiko aulki preziatuan. Aldaketa aundia, beraz.

Laurgaingo basetxeko arduradun geunden bikotearentzat gertakari aundia izan zan Araluze jauna Gipuzkoako presidente jartzea. Sarritan etorri izan zan gero Laurgaiña, eta gurekin oso arremen onekoa eta atsegiña zan mailla artako gizona izateko. Andik kanpora politiko guztiak bezelaxe ura ere batzuentzat oso ona izango zan eta beste askorentzat txarra, edo ez ain ona beintzat. Orretan ez dago zalantzarik, ori garai guztietan orrela izaten da, eta aurrera ere orrelaxe jarraituko duela iruditzen zait.

Araluze jauna presidente izan zan garaian Laurgaingo auzoan zegoen basetxean jaialdi eta biltzar berezi asko antolatu zuten. Garai artan, Donostiako estropadetara etortzen zan Españaiko agintari goren Franco Aieteko jauregira. Baita bere ministro eta gobernu-taldekoak ere. Eta munduko nazio askotako enbaxadoreak. Danak Donostia-ra biltzen ziran, eta ango billeraz baliatuz, Araluze jaunak Laurgaingo basetxera gonbidatzen zituen askotan. Franco bera ez zan iñoiz etorri izango, baiña gaiñerako agintari geienak bai. Bosteun lagunetik gora bildutako urteak izan ziran, eta ortik atera kontuak nolako ospakizunak egiten ziran basetxe orretan.

Laurgaingo biltzarra aundikiro ospatzen zuten basetxearen aurreko jardin edo zelaian. Oltzadura zabal bat jartzen zuten, eta aren gaiñean dantzariak, aizkolariak, arri-jasotzailleak eta abar. Danetik jartzen zuten jendearen ikusgarri. Iñaki Perurenak ere, artean mutil gaztea zala, bi edo iru urtetan eman zuen bere erakutsaldia. Luis Atxega ere

izana zan urte batean, eta jauntxo jendea aiei begira zegoen bitartean, zoragarritzko luntxa banatzen zan jendearen artean. Atzerrietatik etorritako jendea txoratzen gelditzen zan, alako bat berriro noiz izango zan galdezka. Kanpokoak bezela bertakoak ere billera atsegiñak zirala aitortzen zuten komunikabideetan. Baiña bistakoa dan bezela, nik eta nere emazteak nekatualdi ederrak artzen genituen alakoetan, zerbitzera ekartzen genituen beste guztiak bezelaxe.

Araluze jaunak antolatu zituen jaialdi aiek lau urtean jarraian egitera iritsi ziran. Eta ospakizuna egiten zanean, batez ere leenengo iru urtetan, oso giro ona eta ederrak egitea gertatu zan. Laugarren billera egin bear zuten bezperan euria gogotik egiten zuen eta jaialdia bertan beera uztekotan ibili ziran zuzendariak. Azkenean, ordea, egitea erabaki zuten, eta oso giro ona egokitu zalako gauzak ondo atera ziran, eta danak kontentu.

Leenengo iru urtetako billera ospetsuak, naiz eta lan asko eman eta gogor samarrak izan, nik eta nere emazteak oso lasai eta patxadan artu genituen, lan asko eta estuasun batzuk pasa arren. Ala ere, laugarren urteko jaialdia prestatzen asi baiño leen, Araluze jauna ETAk meatxua eginda nola zeukan, egun ura etortzeko kezka bizia eta beldurra neukan nik. Emazteari ez nion ezer esan gai orri buruz, bere lanetan lasaiago jarraitu zezan.

Biltzarra egin bear zan bezperan, Aldundiko ardura-dunak-eta basetxeko atarian prestatu bear ziran gauza guztiak jartzen jardun ziran, eta dana pronto jarri zute-nean, illuntze aldera, lasai joan ziran bakoitza bere etxera. Basetxea eta inguruaren ardura ni eta nere emaztearen esku utzi zuten. Ura zan Aldundiko jauntxo aien ardura-gabekeria garai artako egoera kontuan izanda. Gauzak ondo atera ezkeru, goralmen guztiak aientzako izango ziran, baiña zerbait okerrik gertatu izan balitz, errua basetxeko bikotearentzat, orretan ez dago zalantza txikienik ere.

Gau artan, nere emazteari ez nion ezertxo ere esan, berak benikan lo lasai egin zezan. Baiña neroni oso kezkatu eratu nintzan. Badaezpada ere logelako leioa zabalik utzi nuen, eta gauerdetik laster, erdi lotan nengoela, zerbaiten otsa iruditu zitzaidan kanpoan. Erne antzean jarri nintzan, eta berriz ere beste trakateko bat. Orduan, beldur-ikara galantarekin, poliki-poliki jaiki eta leio-ertzetik kanpora begira jarri nintzan. Eta, zer ikusiko eta dantzariantzat jarritako oltzaren gainean azeria batetik bestera, usmeaketan. Ziurrenik, bezperan langilleak utzitako ogitartekoen apurren batzuk aurkituko zituen, eta aien billa ibiliko zan pizti gosetia. Ala ere, lasaitu ederra eman zidan ura ikus-teak, bestela txarrena pentsatzen jarraituko nuen eta.

Alako estuasun eta buruausteak osasuna galtzeko bidea jartzen dute sarritan. Urteak pasa eta gero uskeriak ematen dute, baiña orrelako batean zuzen jokatu nai duenak izugarri sufritzen du. Ori jakiteko bizi egin bear da.



## Araluze il dute

---

Araluze aaldun nagusi jaunaren Laurgaingo basetxeko jaialdi ospetsu aietako azkena 1974an egin zan, ordurako zabalduta baitzegoen ETAk meatxua eginda zeukala jaun ori. Orren beldurrez-edo, geiago ez zan alako billerarik egin Laurgaingo basetxean.

Naiz eta bizkarzaiñak bere ondoan zituela ibili beti, noiz erasoko zioten beldurrez zebillena egongo zan seguru asko. Eguna igaro Aldundiko bere lantokian eta gaiñerako zeregiñetan, eta illuntzean etxera itzultzen zanean bere emazteari ala esaten omen zion beintzat:

–Egun bat geiago bizirik igarotzeko suertea izan det, eta pozik nago.

Itz oriek bere emazteari esaten zizkionerako, etsipenaren mende zegoela garbi ikusten da, eta ortik pentsa politikakargu orietako batean egon bearrak gizona zertaraiño lotu eta estutzen duen. Araluze jauna ere, zeukan Aldundiko presidentetza utzi eta bere leengo notari-lanetara itzuli izan balitz, meatxu artatik aske izango zan, bearbada. Baiña bere alderdikideak jarraitzera beartuko zuten, bestela ETArri garaipena ematea zala pentsatuko zuten eta. Azkenean, 1976ko urrillaren 4an, Frantzisko Asisko donearen egunean, Donostiako iriaren erdi-erdian il zuten, beste bost gizonekin batera. Araluze jauna, bere txoferra eta iru bizkarzain edo polizia il zituzten. Benetan egun beltza emazte eta seme-alabentzat, eta Aldundiko bere lankide eta gizatasunez jokatu nai zuten guztientzat ere! Nik ondo dakit zer ikara eta larri pasa genituen ondorengo egunetan.

Araluze jaunaren illotza Aldundiko areto nagusian jarri zuten bereala. Eta Aldundiko basozaiñak eta polizia armatukoak txandaka egin genuen zainketa gau osoan. Ni ere

antxe nintzan besteekin batera, eta goizean etxera etortzeko baimena eman zigutenean, pozik etorri nintzan nere txokora, an zegoen giro naastu artatik Laurgaingo paradisuari zegoen pake santua gozatzera. Nere emaztea eta bi semeak ere kezkatu zeuden neri zer gertatuko. Orrelako gizon bat era orretan iltzeak ondoren gogorak izaten ditu askotan. Baiña onez etorri nintzan, eta danok pozik.

Arratsalde artan egin zan illeta, eta bazkalondoan beste basozain bat lagun nuela Aldundira joan nintzan berriro. Araluze jaunaren illotza Aldunditik Artzain Onaren elizara bidean Laurgaindik joan giñan bi basoizaiñak zerraldoaren aurrean arranbillote aundi bat alde banatatik artu eta eramane genuen. Era artantxe elizako aldarearen aurreraiño sartu bear izan genuen.

Ordurako, ataria eta eliza jendez gaiñezka zeuden, eta antxe aurreko txoko batean gelditu giñan, ikara gorrian. Bero ikaragarria zegoen eliza barruan, eta jende mota batzuen animoak are eta beroagoak. Beldurra ematen zuen, ikara, izua.

Jazinto Argaia Gipuzkoako gotzai jaunak eman zuen illetako meza, beste apaiz talde bat lagun zuela. Eta bere itzaldian indarkeriaren aurka sentimenduzko itzak esaten zituen bitartean, eskaintza arrigarria egin zuen benetan: giza iltze, gorroto eta naaspilla oriek amaitzeagatik bere bizia emateko prest zegoela, eta bere burua eskaintzen zuela. Ala ere, mezaren amaiera iritsi zanean aaztu ziran gotzaiaren pakerako dei eta eskariak, elizan zeuden asko eta kanpo aldekoak gogor asi baitziran oiuka “Guerra a ETA, ejército a la calle!”, eta orrelakoak oiue egiñez. Ultraeskuindarrak ziran, noski. Laguna eta ni elizaren aurreko muturrean nola geunden, erabat izututa egon giñan, sarraskiren bat bertan egingo ote zuten.

Noizbait andik irtetzeko modua egin genuenean, kotxea artu eta laster abiatu giñan etxe aldera. Bitartean, mani-



festariak kalez kale nola izugarrizko tropela zijoan, ozta-ozta bestaldetik irtetzea lortu genuen, eta lasaitu ederra artu genuen. Laurgaingo basetxera iritsi nintzanean lasaitu nintzan, eta gure Maria eta semeak ere gustora ziran, alako naaspillatik alde egin eta etxera onez eta zuzen etorri giñanean. Ikaragarria izan zan ura, gizona. Beldurgarria!

Ilketa bat tarteko danean, eta ain mailla aundiko gizona gaiñera, bere jarraitzaileak berotu egiten dira, eta edozer gauza gerta liteke orrelakoetan. Une orietan ez dago ez errukirik, ez begirunerik. Lege bakarra: indarra nagusi. Eta orrek ondorio garratzak sortzen ditu geienetan. Ez zan beste okerrik gertatu eta obe, baiña orduko izu-ikara ezurretaraiño sartuta gelditu zitzaigun.



## Santiago San Martin eta Aroztegitarrak

---

Juan Maria Araluze jaunaren aroa amaitu ondoren, Gipuzkoako Foru Aldundian Santiago San Martin jaunak artu zuen aren aulkia eta agintea, eta aginte artan jarraitu zuen 1979ko urtera arte, Gipuzkoako jaunik gorenaren tronuan.

Basetxeko arduran geundenok sarritan esan izan degunez, San Martin jauna oso gizon atsegiña zan etxean ibiltzeko. Baiña agintean dagoenak beregan daukan botere edo eskualdia nola edo ala agertu nai izaten du, eta San Martin jaunak ere gai orretan bazuen alako mania berezi bat.

Laurgaiñen egiten ziran bazkari ofizialak zirala-eta bere senitartekoeekin sarritan etortzen zan Laurgaingo base-txera. Baiña etorri bear zuenean, aurrez deitzen zigun zer bazkari jarri, zenbat lagunentzat eta abar esanez, eta jangelako maaia zenbat lagunentzako eskatu zuten jakitean, nik maaia aren arabera bezperatik prestatzen nuen, gero egun berean lasaiago ibiltzeko. Baiña San Martin jauna geienetan garaiz etorri oi zan, eta bazkaltzeko maaia oiko eran egoki jarrita egon arren, bazkaldarrak elkarri begira zirala giro obean jartzeko aitzakian, maaia goitik beera aldatuarazteko oitura zuen. Une artan sortzen zuen naasketa ez zan ederra izaten guretzat. Baiña nagusiak agindutakoa egiteak asko balio izaten du, eta guk orixe egin bear, agintzen duenari kontra egitea txarra izaten baita. Arreman ona genuen geienetan San Martin jaunarekin, eta orrek urreak baiño geiago balio zuen guretzat.

Santiago San Martin jaunaren emazteak ere –Ana Aroztegi andereak, alegia– diktadurako garaian kargu aundia zeukan. Gipuzkoako gobernadore zibillaren ordezkoko, edo bigarren maillan zegoen, eta berak nai izan balu, Gipuzkoako

gobernadore izateko aukera ere izan omen zuela esaten zuten. Baiña bigarren postu orretan jarraitu naiago izan zuten. Berak jakingo zuen zergatik.

Ana Aroztegi anderearen anaiak lau baziran gutxienez, eta aietako bakoitzaren seme-alabaren batek leenengo jaunartzea egiten zuen egunean Laurgaingo basetxean bazkaria egiñez ospatzen zuten.

Ez dakit zein seme edo alaba izango zan, baiña aietako baten eguna guztiz gogoangarria gertatu zan. Gogoan daukadanez, maiatzeko eguraldi euritsua eta otza zan, aterrunerik gabea, egun guztian euria eta euria. San Martin jaunak eta bere emaztearen aldeko senideak beti egiten zuten gaztetxo aietakoren baten jaunartzea zutenean, leenbizi txikitxoeki bazkaria eman eta aiek atarian jolasean jarri, eta guraso eta jende nagusiak lasai bazkaldu gero. Baiña esan bezela, egun artan euria etengabe nola ari zuen, Laurgaingo basetxeak garaje aundia zuen eta araxe bidali zituzten aurra TBO eta jostailluak eskura emanez.

Alabaiña, gaztetxoak aspertu egin ziran, eta gurasoak bazkaltzen ari ziran tokira joaten asi ziran bereala. Eta pakerik izango bazuten, Aroztegi anaietako bat, Iñaki zuen izena oker ez banago, bere bazkari-tokia utzi eta asi zan txikitxoekin jolasean. Aspertzeko beldurrik gabe igaro zuen arratsalde ura ume-jendeak. Beste anaiak ere oso jatorrak ziran, baiña Iñaki benetan gizon atsegiña zan, eta txikitxoak jolastuarazteko bazuen adur berezi bat. Ori ez du edozeiñek izaten.

Laurgaingo basetxeko billera aiek demokrazia etorri zanean amaitu zitzaizkien San Martin eta Aroztegitarrei. Eta ogeita bost bat urte aien aztarnarik gabe igaro nituen gero. Aiako Balentin Aldalur Donostiako Gaztelubide elkar-teko partaide egin zanean, ango beste partaide eta abeslari talde bat Aiako jaietan erriko Alkar elkartera etortzen asi ziran Balentiñek gonbidatuta. 2008an, ni erriko enparantz

lagunekin denbora-pasa nengoela, Iñaki Aroztegi orrekin topo egin nuen. Ura ezustekoa, noski! Biok elkarri lepo-lepotik eldu eta aspertu eziñik antxe egon giñan berriketan.

Ez zan arritzekoa, leen alako arremana izan genuenok ainbeste urte elkar ikusi gabe egonda gero.

Orrelako amaika oroitzapen utzi zigun San Martin eta Aroztegitarren sendiak ere. Leen ondo konpondutako jendearekin elkartzea beti izaten baita gauza atsegiña, nerezat bezela nere emaztearentzat ere.

Iñoiz edo bein Laurgaiñen izandako jende askorekin arreman ona izan genuen ondorengo urteetan ere. Ondo portatu giñan seiñalea izango da ori, seguruenik. Ara joaten zan jendeak gurekin eta guk aiekin tratu ona izanez bukatu genuen seiñalea, alegia. Ezaugarri ona da ori, eta arro sentitu izan gera basetxe artako urteak gogoratzean.



## Xabier Aizarnaren garaia

---

Gipuzkoako Aldundiko presidentetza diktadura-aroaren amaiera arte izan zuen Santiago San Martin jaunak. Ura amaitu zanean, ordea, demokrazia maite zutenak agintaritza artu zuten, eta Gipuzkoako Foru Aldundia Eusko Alderdi Jeltzalearen eskuetara pasatu zan, eta Xabier Aizarna jauna izan zan leenengo aaldun nagusi.

Itz gutxi eta itzal aundiko gizona zan benetan, ofizialki zebillen toki eta garaietan bai beintzat. Egunero bere inguruan zebiltzan idazkari eta berebil-gidariak ere zuzen ibiltzen omen ziran arekin, nola asmatu ez zekitela askotan.

Xabier Aizarna jauna aaldun nagusiaren aulkian jarri zanean, Aldundiak Gipuzkoan zeuzkan ondareak bisitatzea pentsatu zuen nonbait, eta ondarerik preziatuenetakoa Laurgaingo eremua zan garai artan –gaur ere alaxe izaten jarraituko du, seguruenik–, eta leenbizi Laurgain bisitatzea erabaki zuen, ikusten danez.

Laurgaingo etxea eta inguruak ikustera etortzeko eguna jarri zutenean, eremuko zuzendari Askasibar mendi-injenerio jaunak bezperan deitu zigun basetxera, esanez:

–Biar goizean aaldun nagusi jauna eta beste bi edo iru lagun joango gera orra bisita egiñez inguru oriek ikustera. Jakiñean jartzeko deitu dizuet. Erne egon.

Eta alaxe, “biar arte” esanez agurtu ninduen. Eskerrak bezperatik deitu zuen, bestela oean arrapatuko gintuen Aizarna jaunak, seguru asko. Nola ni ala emaztea ere goizeko zazpiak aldean jaiki giñan, eta Maria kafea egin eta pronto jarri zan, nagusi berriak an gosaltzea pentsatzen bazuen ere. Ni, berriz, gaiñerako gauzak txukundu eta atariko atea ireki eta pronto nintzan, nai zuten tokitik etxera sartzeko aukera eman naita.

Goizeko zortziak laurden gutxi alde orretan bi kotxetan iritsi ziran; eta kotxetik jaitsi eta aaldun nagusia zuzenean atariko atetik sartu eta sukaldean geundenoi begiratu ere egin gabe, jangela edo saloia ikusi, beste atetik irten eta inguruko pagadiari begiratutxo bat ematera joan zan. Ingu-ruan jiratxo bat eman eta alaxe joan ziran, guri agurrik ere egin gabe. Arritu giñan, baiña, agintari berriak oitura berriak, pentsatu genuen.

Ala, aaldun nagusiak egin zuenarekin arri eta zur, emazteari esan nion:

–Orain arte Aldundian ezagutu ditugun presidente edo aaldun jaunak diktadura garaikoak izango ziran, baiña oraingo au izango dala uste det diktadorerik aundiena eta gogorrena. Auxe da gizonaren bisita modua! Aserre etorriko zan nonbait.

Alabaiña, leenengo bisitaldi artan alaxe iruditu arren, gerora gauzak zearo aldatu ziran, ikusiko degun bezela.

Aaldun nagusi jauna eta beste aaldun guztiak demo-krazi garaian sartutako berriak nola ziran, Gipuzkoako Foru Aldundiaren leenengo batzar nagusia egin zutenean, bazkaria ofizialki egiten zuten alako egunetan. Leengo batzarretan egiten zuten bezela, orduan ere Laurgaingo basetxean enkargatuta zeukaten, eta berrogei lagun inguru etorri ziran.

Etxekoandre Mariak laguntzaille batzuekin sekulako bazkaria prestatu zuen, eta zerbitzariak banatu zien bazkal-darrei. Aaldun nagusia eta bere emaztea bazkalondoan etxera abiatzerakoan biak sukaldera joan eta Mariari eske-rrak eman zizkion Xabier jaunak ain bazkari ederra prestatu zuelako, esanez:

–Eskerrik asko, eta berriz ere laster etorriko gera, eta urrengora arte.

Itz oriekin agurtu zan. Eta andik bereala beste bi bazkari egin zituen aaldun nagusiak Laurgaiñen, bata militarrekin



eta bestea bere sendikoekin. Eta asieran ain zakar-itxurako gizon ura, benetan gozo eta atsegin biurtu zitzaigun base-txean bizi giñanoi. Andik aurrera sendi-giroko bazkaria basetxean egiten zuen bakoitzean, maai-gaiñeko edo postrea artutakoan neri esaten zidan:

–Kafea, kopatxo bat whisky eta purua sukaldeko maaian artuko ditut, eta zuk ere nerekin batera artu.

Alaxe, nerekin eta nere emaztearekin kontuak esanez, eta Laurgaingo gorabeerak nola zijoazen galdetuz, pozik pasatzen genuen sukaldean.

Aizarna aaldun nagusiaren idazkari Marisol Agirrek egun batean zerbaitetarako deitu eta bere enkargua eman zionean, Mariari galdetu omen zion:

–Aizarna jaunarekin zer moduz moldatzen zerate or, Laurgaiñen?

–Ondo, oso ondo. Bazkalondoko kafea artzera sukaldera etortzen zaigu, eta Joxe Marirekin emengo kontuak esanez ementxe egoten da kontu-kontari. Gizon atsegiña da oso.

Orduan, Marisolek:

–Zuk esan dezulako sinisten det, baiña beste batek esan izan balit, berak asmatutako istorioa zala pentsatuko nuen. Zure senar orrek zerbaiten birtutea eduki bearke du, Aizarna jauna ain era gozoan jartzen duenerako. Gu egunero bere ondoan gaude, eta ala ere beldurrez ibiltzen gera. Joxe Marirekin maaian kafea artuz kontu-kontari? Badala zerbait esan liteke ori lortzea.

Aizarna jauna aaldun nagusia izateaz gaiñera, bestela ere gizon berezi samarra zan, noski. Aldundiko burungarri izan zan garaian, Gipuzkoako erriren batean euskal giroan zerbaitetan ospetsu izandako gizon edo emakumerik omentzen bazan, ez zuen uts egingo. Oso kunplittua zan orretan.

1982an Aiako Udaletxean berrogeita iru urte idazkari-tzan egin zituen Maria Auritzenea andereñoari omenaldia egin zion Udalak; eta Isidro Iturain alkate nola zegoen

garai artan, berak eskatuta bi bertso idatzi nituen Mariaren irudiaren aurreko aldean jartzeko. *El Diario Vasco* egunkarian beste lau argitaratu ziran.

Omenaldia nola erri-girokoa zan, elizatik asi zan ospakizuna, eta aaldun nagusia eta bere emaztea, Imanol Murua aalduna bere emaztearekin, Aiako alkate jauna eta bere emaztea, eta beste zinegotziak danak batera meza nagusira sartu ziran San Esteban parroki eliza aundira. Elizako lanak amaitu ziranean, Aldundiko eta erriko agintari jaunak, eta beste erritar asko, danak batera Kalbariotako eremu politean jarrita zegoen Mariaren irudiaren ondora joan giñan. Alkate jaunak eskatuta, Mariaren irudiaren aurreko aldean jarrita zeuden nere bertsoak kantatu bear izan nituen. Aaldun nagusiak, bizkarrean eskuarekin joaz:

–Zorionak, Joxe Mari –esan zidan–, bertso zoragarriak eskaiñi dizkiozu Mariari.

Eskertu nituen Aizarna jaunaren itzak.

Maria Auritzenearen irudia Kalbariotan dago, eta bere irudiaren azpian bi bertso auek:

Berrogei eta iru urteko  
langintza arrigarria  
bukatu eta atsedentutzen  
ementxe zaude jarria.  
Ezin obeto zuk zerbitua  
dezu Aiako erria.  
Bera zainduaz egongo zera,  
irudi maitagarria,  
ondorengoak izan dezaten  
zein ziñan oroigarria.

Ara, Maria, aldatu zera  
negutik udaberrira.  
Lanaren neke eta samiñak  
zuretzat amaitu dira.  
Zorionean iritsi zera  
atsegiñezko aulkira.  
Pake-pakean gozatu zaitez  
sorterriari begira,  
zeure indarrak eta aalmenak  
utzi dituzun tokira.

Egun artan Kalbariotako Mariaren irudiaren aurrean egin bearreko ospakizunak amaitu ondoren, erriko Kanua jatetxean bildu giñan, aurrez enkargatuta zegoen bazkarian. Jakiña, omendutako Maria eta bere senitartekoak barruan zirala, noski. Eta egunaren alaigarri, bertsolari, eliz koruko kantari eta soinu-jole eta abar an izan giñan. Baiña Aizar-na jaunak eta bere emazteak beste erriren batean bazuten beste omenaldiren bat, eta bazkaria amaitutzat eman zute-nean, Aldundiko gidaria eta berebilla pronto zeuzkaten, eta alaxe joan ziran. Murua jauna eta bere emaztea bertan gelditu ziran, eta izan zuten bazkalondoko giro eder ura gozatzeko aukera. Imanolentzat gauza aundiak izaten ziran orrelako egun eta ospakizunak.



Aizarna Imanol Muruari aginte-makila ematen (arg. GFA)





## Atariko erlesemea

---

Altzolako eremuan zeuden baserri eta lur saillak ikusi eta aztertu ondoren, gai artan adituak ziranak beren iritzia eman zituzten, inguruetan zer egin eta zer kendu edo jarri zitekeen ausnarketa egiñez. Baiña erabaki zeatzik artu gabe, berriro ere Laurgaingo basetxera itzuli ziran. Goizean antxe gosalduta joanak ziran Altzolara, eta gero bazkaria ere bertan egin zuten.

Bazkari denboran ere Altzolari buruz asko itz egin zuten, baiña Aldundian luze joaten dira orrelako tratuak, eta Altzolakoarena ere orrelaxe joan zan nonbait.

Altzolako auzo osoa Narrosko Markesa etxekoandearena zan garai batean, baiña ura aspalditxo nola illa zan, eta ark bere iru illoberu utzi zien erentzian, asieran beintzat eremu ori saltzeko konforme omen zeuden irurak ere. Baiña gero batek atzera egin zuelako-edo, Altzolaren salmenta moztuta gelditu zan aldi baterako. Andik aurrera zer gertatu zan gero ikusiko degu.

Aldundiko jaun eta adituak Altzolako auzora leenbizo bisita egin eta laster, Xabier Aizarna jaunari aaldun nagusiaren kargua uzteko garaia iritsi zitzaion. Lau urterako artu zuen agintea, eta aiek bete zituenean bere garaiko zuzendariak berriro kargu orretara aurkezteko eskatu omen zioten, baiña ark ezezkoa eman zuen, eta kitto. Itzeko gizona zan Xabier, eta orrek asko balio izaten du.

Aizarna jaunak bere agintealdia garbi eta zuzen bete zuen, beste politiko askok bezelako ustelkeri eta azpijokorik egin gabe. Orrelako postuetatik izen onarekin erretiratzeak munduko urte guztiak baino geiago balio izaten duela esango nuke, kontzientzi garbiarekin bizi nai duenarentzat beintzat.

Lasaitasunez eta ezeren kezkarik gabe bizitzea aberastasun aundia da gizonarentzat.

Eusko Alderdi Jeltzaleko buruzagiak Aizarna jaunak utzi zuen aulkia betetzeko Jose Antonio Ardantza jauna autatu zuten aaldun nagusi, eta Gipuzkoako aulki prezia-tuan bera eseri zan, aginte-makilla bere eskuetan zuela. Ark ere kargua lau urterako artuko zuen, noski, baiña ez zuen ainbeste denbora pasatzerik izan. Orren zergatia bere garaia iristen danean azalduko dizut.

Ardantza jauna, 1983an aaldun nagusiaren kargua artu zuenetik aurrera, Laurgaingo basetxera etortzen zan Aldundiko billera eta bazkari ofizialak egitera. Bere senitartekoekin-eta egiten zituen billeretan ere oso toki maitea zuen basetxe ortako giroa.

Ardantza senar-emazteak neska-mutillak zituzten ondoren. Neskak eta mutikoak leenengo jaunartzea egin zuten egunerako, Laurgaingo basetxean bazkaria enkargatuta zeukaten. Baiña bazkaria zuten goiz artan, komeri gaiztoak ikusi bear izan genituen basetxeko jangelan. Nik egun ura pasata gero bein baiño geiagotan kontatu nuen nere lagun-nen artean, baiña egun artan sekulako estuasunak pasa genituela aitortu bearra daukat. An ez zan txantxarik eta berriketarik.

Maiatzaren 18an zuten jaunartzeko eguna. Garaia ere aproposa, gertatu zana gertatzeko. Ospakizuna baiño bi egun leenago, basetxetik gertu zegoen gereziondo baten adarretik zintzilika erlesemea gelditu zan alabearrez, eta egun aiek lainotsu eta goibel antzean izan ziralako, antxe geldi-geldi jarraitu zuen erle multzoak. Eta multzoa an zegoen bitartean, bertako mezulariak an eta emen ibiliko ziran bizitoki baten billa, gero famili osoa ara aldatzeko.

Basetxean bazkaria zan igande goiz artan, oso eguraldi garbia eta eguzkitsua gertatu zan, eta orduan asi ziran benetako komeriak eta estuasunak. Larunbat arratsaldean,



urrengo egunerako lanak aurreratzeko asmoz, basetxeko jangelan ogeita amar bat lagunentzat maaia dotore apainduta pronto neronek jarri nuen. Baiña igande goizeko amarrak alde orretan, or asi ziran multzo artako erleak arrotzen eta leioko zirriztu guztietatik basetxeko jangelara sartzen. Sartu eta sartu, geroz arroago erleak, eta ni zearo beldurtuta zer egin ez nekiela. Leenbizi, sartzen ziran leioaren aurrean sua egin nuen, kearekin erleak izutuko ziran itxaropenez. Baiña alperrik, dana alperrik. Leenean jarraitzen zuten erle madarikatuak.

Beste zerbaiten proba egin bear, eta urrena mangera luze bat jarri eta leioaren kanpo aldea urez bustitzen saio bat egin nuen. Ala ere, erleak sartu eta sartu, jangela dana bete eta arazoak konpontzeko itxurarik ez. Orduak aurrera, eta nere emaztea eta biok erotzeko zorian, zulo beltz artatik nola irten ez genekiela.

Aaldun nagusi jauna bere ilusio guztiarekin seme-txoaren leenengo jaunartze-eguna aundikiro ospatzeko asmoz, senide eta lagunekin batera antxe bazkaltzera gonbidatuta. Erlesemearen arazoak zirala-eta bazkari-rik gabe gelditzea ez zan ederra izango, oso mingarri eta lotsagarria baizik. Ni eta Mariarentzat, berriz, naiz eta gero-  
nek errurik ez izan, lanpostua galtzeko arrisku bizia. Gauza asko zeuden jokoan egun artan. Bagenuen estu eta larri ibiltzeko arrazoirik asko.

Urteak joanda gero lagunarteko afari edo orrelako bille-  
retan bizitzan gertatutako gauza xebreak elkarri kontatzen asten giñanean, bein baiño geiagotan kontatu nuen erleare-  
kin pasatako eromen ura, baiña une larri artan ez genuen berriketarako gogorik Laurgaiñen. Nola edo ala erlea izutu eta andik bidaltzeko modua egin nai eta San Antoniori fede aundia nola nion, 200 pezeta eskaiñi nizkion. Diru asko-  
txo zan garai artarako, baiña erlea andik bidaltzeak geia-  
go balio zuen guretzat, eta ain benetan eskatu niolako-edo,

San Antoniok entzun egin zidala seguru nago. Eta miraria bezela gertatu zan nik eskaintza ura egin eta bereala.

Aurretik ego-aizea zebillen, baiña nik eskaintza ura egin eta bereala, une batetik bestera, mendebaletik aizea indartsu jotzen asi zan, eta oztu ere asko samar oztu zuen. Eta aize-aldaketa arekin erleak ere beren norabidea erabat aldatu zuten, eta basetxeko jangelara sartzeari utzi.

Baiña ordurako barrena sartuta zeudenak nola uxatu? Ura zan beste arazo larria. Pentsatu eta egin. Euliak iltzeko neukan spraiara bota nuen ermo samar eta danak erori ziran, batzuk lurrera eta besteak maai-gaiñera. Eta egun artako bazkaria zerbitzeko etorrita zeuden bi neska eta neuk, iruron artean danak txukun-txukun jaso eta jangela pres-tatu genuen berriro. Orduantxe lasaitu giñan basetxeko arduradunok. Egoera artan gauzak konpontzeak asko balio zuen, garaipen izugarria zan guretzako.

Erleen erasoari nola erantzun ez nekiela nebilen garaian San Antoniorekin sinismena izan nuelako, mirari bat bezelaxe gertatu zala esango nuke basetxean. Eta ari esker, etsipenak jota nebillela aizearen aldaketak erleak andik bidali zituelako lasaitasunez arnasa artu nuen. Orduko pozak ez zuen neurririk, eta ori edozeiñek sinisteko modukoa da.

Ardantza jauna, bere emaztea eta seme-alaba eta senitarteko guztiekin, ordu biak inguruan iritsi zan basetxera. Eta sukaldera sartu ziranean, elkar agurtu ondoren, egun artako izarra zan semetxoari bi musu eman zizkion gure Mariak, besarkada aundi bat emanez; eta alaxe, jangelara sartu ziran danak, pozik.

Maria, basetxeko ardura eta sukaldaritzaz nola beregain zeuzkan, beti aal zuenik ondoen gauzak egiten saiatzen zan. Baiña egun artan aalegin berezia egin zuen bazkari ederra prestatzen. Baita festa ederki antolatu ere! Bazkaria

zoragarria izan bazan, maai-azkena oraindik eta berezia-  
goa. Jan eta edan, jendeak gozatu zuen, arranek ezik!

Bazkaldu eta bazkalondoko giro atsegin eta gozoan  
arratsaldea ederki pasatu eta jendea etxerako aipamenak  
egiten asi zanean, gaiñerakoak maaitik altxatu baiño leen  
Ardantza jauna sukaldera etorri zan, eta Maria sukaldariari  
eskerrak eman ez, esan zion:

–Bazkari guztia izan da zoragarria, baiña maai-azkena-  
rekin danok arrituta gelditu gera. Toki askotan bazkaltzea  
tokatu zait, jatetxe ospetsuetan ere bai, baiña gaur bezelako  
maai-azkenik inun ez didate zerbitu. Eta ni bezela besteak  
ere arriturik gelditu dira.

Orduan, Mariak:

–Nik ere eskerrak eman nai dizkizuet ain esker oneko  
eta pozik zaudetelako. Zuek gustora gelditu zeratela jakitea  
orixe da neretzako pozik aundiarena. Baiña esan bear dizuet  
ere gaur gertatu dan miraria gertatu izan ez balitz, bazkari-  
rik gabe geldituko ziñatela.

Ardantza jaunak, arriturik:

–Zer diñostazu baiña?

Eta nik orduan erlearekin izandako arazoan berri konta-  
tu nionean, arri eta zur utzi genuen.

Erlearekin izan genuen arazo ura nola edo ala konpondu  
nairik, estuasun eta larri artan San Antoniori dirua eskaiñi  
niola, eta benetan gaiñera, esan nion Ardantza jaunari, eta  
une artan parre gustora egin zuen artxek, ni txantxetan ari  
nintzala uste baitzuen. Baiña maai zerbitzera etorritako  
neskak ere an zeuden eta aiek ere egia esaten ari nintzala,  
ba, eta etsita egon zirala jangela artan bazkaltzerik ez zala  
izango eta. Gero nik San Antoniori dirua eskaiñi nionean  
aizearen norabidea aldatu zala kontatu ziotenean ere parre  
egiten zuen Ardantza jaunak.

Azkenean, orratik, ulertu zuen zer-nolako estuasuna  
pasatu genuen, eta orduan esan zuen:

-Bai ezerezak gerala. Ustez dana seguru bazkaritarako martxa ondo jarrita zeneukaten, eta erle ziztrin batzuk diralako ea dana pikutara joan zitzaigun, alajaiña!

Eta nik orduan:

-Obeto sinistu dezazun, erle multzo ori oraindik ere ortxe dago zuaitzean zintzilik, eta erakutsi egingo dizut...

Ilusio aundiarekin joan zan nerekin batean, eta erle multzoa ikusi zuenean, arriturik:

-Kalean bizi geranok natura ez degu ezagutzen. Nik beintzat ez nekien erleak orrelako bola eginda egoten zira-nik. Joxe Mari, zuk suerte aundia daukazu, eta zure ondoan bizi diranak ere bai, naturarekin bat eginda bizi zeratelako. Zuek izan ez baziñate, gaur bazkaldu gabe gelditu bearrean izango giñan.

Erlesemе ura ain era berezian ikusi zuenean, nola erabat arrituta gelditu zan, jangelan zeuden beste guztiak ere gauza polit ura ikustera ekarriarazi zituen, bein ere alakorik ikusi ez duenarentzat arrigarria baitzan ura.

Erlesemе edo erlekume ura zala-eta, goizean estu eta larri ibili bagiñan ere, batez ere ni eta emaztea, bagenuen arrazoirik asko kezkatu izateko. Gero gauzak aldatu ziran, eta leen beldurgarriak izan ziran erleak danen pozgarri izatera iritsi ziran. Ara nola izaten diran gauzak.

Ardantza jaunari oso gogoan gelditu zitzaion nik egun artan San Antoniorekin egin nuen tratu-kontua, eta gero ere Laurgaingo basetxera etortzen zan bakoitzean beti aipatzen zidan:

-Zer, bitarte onetan San Antoniok miraririk egin al dizu?

Orrelaxe oroitzen zuen bere semetxoaren leenengo jaunartzeko eguna, umorez.

## Laurgaingo billerak

---

Ardantza jaunak Gipuzkoako Foru Aldundian bi urte inguru zeramazkien garaian, Eusko Jaurlaritzaren barruan goreneko maillan zeuden bi politikariren artean zurrumbillo edo naasketa aundia sortu zan, berealaxe ikusiko degun bezela.

Garaikoetxea jaunak sei urte zeramazkian Eusko Gobernuko Leendakari, eta Eusko Alderdi Jeltzaleko presidente Arzalluz jaunak bere kontra eraso omen ziola esaten zuten, Garaikoetxeak bere alderdiarekin kontatu gabe erabaki aundiak artzen zituela leporatuz. Eta Leendakari-tzatik botatzeko joera artu zuela ikusirik EAJ-ko Zuzendari Batzordeak, beren alderdia bi zati egiteko bidean sartzera zijoala konturatu ziranean, konponbidea egiteko asmoz billera eta aalegiñak egitea pentsatu zuten nonbait. Leenengo lau billerak beintzat Laurgaingo basetxean egin zituzten, eta ez ziran batere gozoak izan, ez orixe.

Garai artan bazan politiko ospetsu bat, Uzturre izen-goitiz ezaguna, Tolosako semea bera, eta leenengo billera egiteko egunean bazkalondoan, gaiñerakoak baiño leenago iritsi zan basetxera, eta gogoan daukat sukaldera sartu eta Mariak emandako kafea artuz kontu-kontari zegoela, –oso gizon atsegiña zan Uzturre jaun ori–, gu sukaldean geunden senar-emazte bikoteari nola esan zigun:

–Errezatu zazue aal dezuen guztia, gure arteko saltsa gaizto au ondo konpondu dezagun, ala ere naaspilla au zuzentzen naiko lanak izango ditugula iruditzen zait baiña.

Uzturre jaunak ori esan zuenerako bere kolkoan naiko beldurra bazuela ematen du. Eta ez zebillen oker, konpondu ez baiña urteetarako ondamena ekarri zuen zatiketa gertatu baitzan Eusko Jaurlaritzaren barruan. Naasketa

orrek Euskalerriarentzat kalte aundia ekarri zuela esaten dute adituak.

EAJren barruan sortu zan naaspilla zala-eta, alderdi orretako partaideak Garaikoetxearen aldera jo omen zuten batzuek, eta gaiñerakoak Xabier Arzalluzekin gelditu zira-la, eta berriro danak batzeko asmoz billera sakonak egiteko erabakia artu zuten alderdi bietako zuzendariak.

Imanol Murua jauna Gipuzkoako aalduna zan garai artan, eta Garaikoetxearen jarraitzaille sutsua. Billerak egiten asi baiño bost egun leenago, Laurgaingo basetxean bazkaria egin zuten lau lagunek, bezperan enkargatuta baitzeukaten otordua.

Seguruenik, billera aiek asterako zerbait prestatzera joan izango ziran. Ala pentsatu nuen nik beintzat. Bazkailondoan tarte batean sukaldera etorri zitzaigun eta senar-emazte bioi esan zigun:

–Orain emen billerak egiten asiko gera, eta nik, badaezpada ere, abisu bat emango dizuet: billera oriek isilpean egitekoak dira, eta kazetari eta komunikabideak jakin gabe egitea nai genuke eta, bearbada, zerbait jakin naian norbaitek deituko balizue, zuek ezer ez dakizuela esan, eta moztu azkar. Orrela gauzak guztiontzat obeki egin ditezen ematen dizuet guzti onen berri.

Orduan, Imanol Murua jauna benetan eskertu genuen, ezjakiñean egon bagiña ankasartzeren bat egiteko arriskuan geunden eta.

Gero, billerak egiten asi ziranean, ogeita bat lagun izaten ziran. Billera egiteko maaiak aurrez pronto jartzen genituen, ur botellak eta basoak jarri, lanerako eseri baiño leen nai zuenari kafea edo orrelako zerbait eman eta orrela, berak bakarrik nola egon nai izaten zuten. Isilka billerak egin nai zituztela, baiña eztabaidan asten ziranean garai bateko arrain-saltzailleak kalean barrena egiten zituzten baiño oi uundiagoak egiten zituzten. Orduan isilik gorde

nituen, baiña andik urte batzuetara lagunei kontatu izan nizkien, eta aiek gozaten ziran politikoen saltsa aiekin.

Politiko aiek danak karrerakoak eta jende ikasia izan arren, odola berotuta elkarri amorru bizian erasotzen asten ziranean, ura zan eskandalua, jakintsuenak ere basati biur-tzen baitira eta alakoetan arrazoiak eta legeak alperrik izaten dira geienetan. Laurgaingo basetxean ere orixe gertatu zan.

Aipatutako billera oriek astean bein edo orrelatsu egiten zituzten, itxura danez. Eta laugarrena egiteko taldea bildu eta laster, nonbaitetik billera aren aztarna atera izango zuten, eta iru kazetari eldu ziran basetxeko atarira. Bille-ran zeudenak konturatu ziranean leioak eta ateak ixteko agindua eman zuten, eta laster itxi nituen. Ala ere, kazeta-riak saiatu ziran zirrikituren bat aurkituko ote zuten. Baiña alperrik ari zirala ikusi zutenean, ezer lortu gabe alde egin bear izan zuten. Eta billera-toki ezkutuaeren berri kazeta-riak jakin zutelako, andik aurrerakoak Gasteizko Lakuan egin zituztela esan zuten.

Guk senar-emazteok esaten genuen billera aiek pisu aundia zeukatela guretzat. Ez lanagatik, baiña politiko aiek elkarren artean zeuzkaten tirabira eta saltsak zirala-eta urduri eta jenio txarreko nola zebiltzan geienak, orduan aiekin asmatzea oso zailla zegoen, eta uts egiten erreza zegoela esan bear. Gaiñera, arrazoi izanda ere guk isildu egin bearra gendukan, aundiak beti arrazoi izaten baitu, eta txikia beti galtzaille. Orduko naaspilla artan oraindik ere areago. Beti gertatzen dana, indarra nagusi.

Kazetariak etorri ziralako Laurgaingo billerak amaitu ziran, eta guretzat lasaitasun ederra, egia esateko. Izan ere, ala gertatu izan ez balitz, billerak egiten antxe jarraituko zuten, eta zertarako?

Bi alderdien artean gero eta amorru aundiagoa zegoela nabaritzen genuen geuk ere, eta ez dakit ezer konpondu zuten. Eta alperrik biltzekotan leenbaileen amaitzea obe.

Azkenean, EAJ, leen indarrean zegoen alderdi bakarra, bi zati egin zan, eta abertzaleentzat aulezia gogorra ekarri zuen orrek. Etsaiak ordutik asi ziran indartzen eta arrotzen emen, eta gaur egun berak dira nagusi. Orratx tamalaren tamala geure erruz ekarria.

EAJ alderdiaren batasuna lortuko zutelakoan aalegiñak egin zituzten benetako abertzale batzuek, alderdia zatitu gabe konponbidea aurkitu nairik, billera asko egiñez eta abar. Baiña billera guztiak alperrik izan ziran, ez baitzuten fruiturik eman. Azkenean, Garaikoetxea jauna Leendakari-tzatik bota zuten, eta EAJren geiengo agintzen zegoena, zatituta gelditu zan ordu ezker, abertzale eta euskaldun zintzo asko erdibituz

Garaikoetxeak Leendakari-aulkia utzi zuenean, Eusko Alderdi Jeltzaleak Jose Antonio Ardantza jauna aukeratu zuen, eta bera eseri zan Ajuria Eneako aulki preziatuan. Andik aurrera bera izango zan Euskalerriko Leendakari eta jaun gorena.

Ardantza jauna Leendakariaren kargua artzera iritsi zanean, Gipuzkoako aaldun nagusiaren aulkia utsik nola gelditu zan, ura betetzeko Imanol Murua jauna autatu zuten. Kargu artan beste sei urte egin zituen buru-belarri lana latz egiñez. Benetan eta adoretzu saiatu zan Gipuzkoaren aldeko borroka artan, baiña amets guztiak bete gabe gelditu zan azkenean. Pena aundia izan zuela badakit, berak esaten baitzituen kargua uztera beartu zuten zergatiak, eta orrek min aundia egiten du. Imanoli ere alaxe egin zion.

Xabier Aizarna jauna aaldun nagusi zegoen garaian, Altzolako eremuaren salerosketa-tratuan asi ziran, leen ere esan degunez. Baiña jabegotza zeukatenen artean zerbait gertatu zalako-edo, tratua bertan beera gelditu zan, baiña ez betirako, zorionez.



1985ean Imanol Murua jauna aaldun nagusi aukeratu eta laster, berriz ere Altxolako eremua saltzeko asmoak arturik, Aldundiari eskaini zion leenago garai batean Marquesa de Narros etxekoandreaken oiñordeko iru illobetako batek. Baiña bigarren eskaintza orretarako, gauzak asko aldatu omen ziran. Itxura danez, aietako batek bakarrik agintzen zuen eremu orretan, eta argatik, nagusi ori Gipuzkoako Foru Aldundiarekin tratuan asi zan.

Altxolako eremuaren nagusiak Aldundiari eskaintza egin zionean, Murua jauna nekazaritza, mendi eta basogintza saillean adituak ziran Aldundiko iru lagunekin elkartu eta Altxolara joan zan laukotea, eta eremu orretan zer egin edo zer jarri zitekeen kalkuluak egin zituzten. Itz gutxitan esateko, auzo orrek zer balio zuen, eta zenbat ordaindu zitekeen jakin nai zuten. Orixe zan Murua jaunaren naia.

Ala beintzat, Altxolako auzoaren nagusia eta Gipuzkoako arduradunak Foru Aldundian bildu omen ziran eremuaren salerosketa-tratua egiteko asmoz. Tirabira batzuk izan omen zituzten, baiña tratua burututzat eman zutenean, baldintza bat jarri zion saltzailleak Aldundiari: ainbeste urtean errenta ordaindu zuten baserrietako maizterren batek bera bizi zan baserria bere soro eta belardiekin erosi nai bazuen, orretarako eskubidea izan zezala gutxienez. Orrela eskatu saltzailleak, eta aaldun nagusia eta bere laguntzailleak bere orretan onartu zuten eskaria.

Ala ere, bi baserrietako maizterrak bakarrik ausartu ziran bizi ziran baserriak eroatera. Gaiñerako beste amasei baserri, auzoko eliza, apaizetxea, moja-etxea eta bosteun ektareako baso eta lur sailak Gipuzkoako Foru Aldundiaren ondare biurtuta gelditu ziran. Murua jaunarentzat sekulako garaipena izan zan auzo orren erosketa-tratua, maite zituen bazterrak Gipuzkoarentzat ondare egin baitzituen bein eta betiko.

Altzolako eremua bere baserri eta guzti Aldundiaren ondare biurtzean, eremu ori Laurgaingo auzoaren jarraian nola dagoen eta gaiñera bien erdiko gaillurra Pagomendi edo Pagoeta nola dan, bi auzoak batu eta sortu zuten parkea Pagoetako parkea izena jarrita bataiatu zuten. Euskalerrian eta emendik kanpora ere izen orrekin ezagutzen da orain.

Parke orretan egiten diran lore-feriak eta beste ekin-tza askogatik, baztarretan oso ospetsu eginda dago orain, zorionez.

Imanol Murua jauna leenbizi Zarauzko alkate eta gero Gipuzkoako Aldundiko agintari gorena zalarik, Laurgaingo basetxera sarritan etortzen zan, eta bertan bizi giñanokin arremen aundia zuela esan bear det. Baiña aaldun nagusi izendatu eta Pagoetako parkea martxan jarri zanetik aurre-ra, edozein arrazoi naikoa zuen Imanolek basetxean bille-rak egin eta bazkariren bat antolatzeko, eta etxeko bezela ibiltzen zan gurekin. Bearbada, konfiantza aundiegia ere artuko genuen, eta orrek eraginda igual zerbaitetan uts egin ere egingo genion. Bazkalondo askotan, neri bertsoen bat edo beste kantatzeko eskatzen zidan, eta berak ere, ala jartzen zanean, bazekien bertso bat edo beste ederki kanta-tzen, eztarri ona ez bazuen ere. Umore bereziko gizona zan Imanol Murua. Biotz aundiko gizona, ona.

## **Aiako bertsolarien txapelketa**

---

Iraganaren laburpen au egitean, gaia aldatu eta bertso-giroan sartu nai nuke, garai bateko gure bizipenak kontatzeko, labur-labur bada ere.

1963ko urtearen asiera aldean, Aian eta emengo azoetan zeuden apaiz batzuk asi ziran errian bizi ziran bertsolarien artean txapelketa edo norgeiagoka bat antolatu bear zala esanez. Bertso-giro ona zegoen orduan ere gure erri onetan, eta apaiz oriek oso bertsozaleak ziran.

Tartean bertako gazte batzuk ere baziran, baiña benetan sua piztu zutenak apaizak izan ziran, batez ere Laurgaiñen erretore zegoen on Jesus Gaztañaga asteasuarra; eta laguntzaille izan zituen Aiako Altzolan zegoen Andoni Lekuona eta Urdanetan zegoen Xabier Azurmendi. Aiako erretoreordea zan on Jesus Iturrazpe ere tartean zuten.

Aiako bertsolariekin errian bertan bertso-jaialdi bat jartzeko aitzakia orrekin, danak berotuarazten ekin ziona Gaztañaga jauna zala badakit, eta gero beste apaizak ere berak bilduarazi zituela leiaketa ark indar aundiagoa izan zezan.

Gaztañaga orrek bereala animatu gintuen Aiako errian bertan bizi giñan bertsolariak. Baiña Elkano eta Urdaneta auzoetan bizi ziranak ere taldera erakartzea komeni zitzairen itxura antzeko jaialdia antolatzeke, eta aiei bein eta berriz bisitak egin zizkien, eta lortu zuen beintzat azkenean talde polita martxan jartzea. Ez zan aserre gure on Jesus!

Ni eta Maria urte artako ilbeltzaren 9an ezkonduak giñan, eta erriko Galarzelai Txiki etxean bizitzen jarriak. Senar-emazteok biok ere bertsozaleak nola giñan, geure etxean bertan asi giñan bertso-ariketak egiten inguruan bizi giñanok, txapelketarako txukun samar prestatzeko asmoz.

Olaxe biltzen giñan Joxe Antonio Arrillaga “Arruti”, Jaime Manterola “Argurutze”, Joan Joxe Rezabal “Leola Berri” eta neu, Joxe Mari Lertxundi. Gaztañaga jauna izaten genuen gai-jartzaille eta zuzendari-lanak egiten.

Esan bezala, billera eta bertso-saio batzuk egiten asi giñan, erriko txapelketarako zerbait prestatu nairik. Ala ere, bertsolariok geure buruarekin konfiantza aundirik gabe aurkitzen giñan alako norgeiagoketa baterako. Lan berria eta berezia zan gure aalmen urriak bertsozaleen aurrean agertze ori, eta estu eta larri genbiltzan.

Bertso-jaialdia, edo erriko bertsolarien leenengo txapelketa, maiatzaren 26aren arratsalderako izendatu eta jarrita zeukaten zuzendariak. Eta bederatzi bertsolarik artu genuen parte. Leen esan ditudan lau oriek, Elkano auzotik Markos Manterola eta Joxe Mari Roteta; eta Urdanetatik, berriz, Nikolas Zendoia “Izeta”, Luis Uranga “Otzarreta” eta Jesus Etxabe.

Epaille-lanetan, Gaztañaga eta Azurmendi ziran. Gaiak ematen, berriz, Andoni Lekuona jauna; eta Jesus Iturrazpe jauna altaboz eta megafonia-lanak zuzentzen. Ederki moldatu ziran lau apaizak eta, leen esan dedan bezela, erriko gazte-talde bat.

Asentziotatik urrengo igandea zan txapelketarako egun seiñalatu, eta giro zoragarria nola gertatu zan, jendetza aundia bildu zan Aiako enparantzan.

Bertsolariok estu eta larri ibili giñan, bakoitza geure galtzetan sartu ezinda. Ain saio gutxi egiñak nola geunden, bearko estutu jendetza ura aurrean ikusita. An eran-tzukizun aundia zegoen une artan, baiña ez zegoen atzera egiterik. Itza emanda geunden eta, zetorrena zetorrela, aurrera egin bear nai eta ez, zer erremedio!

Erri-maillako leenengo txapelketa xume eta apal bat egiteko asmoz asi ziran apaiz jaunak, baiña jendearen eran-tzuna ain oparoa eta bertsolarien aldetik ere uste baiño

obea gertatu zala ikusi zuten. Eta azkenerako izen aundi eta ospetsuaren jabe eginda gelditu zan erritarren txapelketa ura.

Jaialdi borobil samarra egin genuela esango nuke, bertsoak entzutera bildu ziran bertsozaleak gustora ziran beintzat. Eta epailleen erabakia era onetan izan zala gogoan daukat:

Leenengo, Joxe Mari Lertxundi  
Bigarren, Markos Manterola  
Irugarren, Jaime Manterola "Argurutze"  
Laugarren, Luis Uranga "Otzarreta"  
Bosgarren, Joxe Antonio Arrillaga "Arruti".

Ondorengo beste laurak nola sailkatu ziran ziurtasunik ez daukat, eta bere orretan utziko degu. Barkatu.



## Laurgaingo bertso-eskola

---

Leentxeago esana det nola antolatu zuten Aiako bertsolarien-tzat txapelketa. Baiña ez zan artan gelditu gure erriko bertso-giroa eta zaletasuna. Leenengo txapelketa egin eta andik ogeita iru urtera, 1986an, berriro ere erriko eta auzoetako bertsolarien txapelketa antolatu zuten. Eta urrengo urtean, au da, 1987an parte artu genuen geienok bildu giñan berri-ro ere, oso oker ez banago: Markos Manterola, Jose Antonio Manterola “Zatain”, Martin Rezabal “Olaso”, Nikolas Zendoia, Joxe Mari eta Manuel Lertxundi, Luis Otamendi eta abar.

Jaialdi borobilla izan zala badakit, eta egun artako bertsoen bat buruz kantatuko nuke oraindik ere. Txapeldun, Luis Otamendi izan zan bigarren leiaketa orre-tan, eta bigarren saria, Nikolas Zendoia “Izetak” jaso zuen.

Baiña berriz ere bertso-giroa pil-pil zegoen errian. Eta Aiako festak antolatzen zituen gazte-taldeak pentsatu zuen aurreko urtean bezelaxe erriko bertsolariekin txapelketa egin bear zala berriro, nola edo ala. Orretarako, eratzailleak eta aurreko txapelketako bertsolariak afaritxo baten babe-sean, erriko Alkar elkartean bildu giñan lanerako prest, bear ziranak itz egin eta erabakiak artzeko txapelketa berria nolatsu antolatu-edo.

Txapelketan bete bearko genituen baldintzak eztabai-datu genituen leenengo, eta geuk jarritako baldintzak eta legeak onartu ondoren. Gero, Alkar elkartetik irten eta plazako Joaneneko tabernara sartu giñan, eta Otamendik eta Zendoiak proposamen eder bat egin zuten:

–Orain bertso-saio batzuk egitea komeniko zaiguk eta, ik nai izan ezkerro beintzat, zuek bizi zeraten Laurgaingo basetxea orretarako toki aproposa iruditzen zaiguk. Zer derizkiok, Joxe Mari?

-Ba, nere emaztea bertsozale amorratua izan ez balitz, ez nian onartuko zuen proposamena, baiña bertso-giro ori oso maitea dik, eta neuri ere oso ondo iruditzen zaidak. Nai badezue, urrengo ostiral illuntzean bertan asiko gaituk bildu eta ariketa batzut egiten. Zuek ala nai izan ezkerro, afaritxo bat egiñez asiko gaituk. Badakizue, janak eta edanak gauza asko konpontzen dik, eta komeniko zaiguk puska bat xuxpertuta eltzea lanari.

Esan eta egin. Danak onartu zuten proposamena, Jesus Etxabek izan ezik. Arentzat urruti samar zegoela astero etortzeko esan zuen, baiña bazitekeela tarteka Laurgaiña etortzea. Eta orretan bukatu genuen egun artakoa.

Eta bereala asi giñan Laurgaingo basetxean ostiral illuntzetan bertso-saioak egiten, aurretik afari-mokadu bat egingda. Gutxienez ere bi urtean jarraitu genion langintza ari, eta fruitu onak eman zituzten billera xume aiek. Pentsa, Laurgaingo basetxean egiten genituen bertso-afariak arrakasta aundia izatera iritsi ziran deboraz.

Ara zein giñan leenengotik biltzen giñan bertsolariak: Nikolas Zendoia, Markos Manterola, Luis Otamendi, Joxe Antonio Manterola "Zatain", Leon Endaia, Martin Rezabal "Olaso", Xaldubi, Pello Esnal eta neu. Tarteka, Errezilgo Bernardo Azpillaga eta Itziarko Lizarreta ere etortzen ziran. Guztira amar-amabi bat lagun biltzen giñan astero Laurgaingo basetxean bertsoan ikasteko aitzakian. Eta benetan billera gozo eta atsegiñak egin genituela esango nuke.

Gure Mariarentzat lan askotxo sortzen zan afari-billera prestaketan, eta ondoren ontziak garbitu eta abar. Baiña ark ere bertso-giroa oso gogoko zuen, eta orrek asko balio izaten zion nekeak eta lanak arintzeko. Gaiñera neuk laguntzen nion lanak egiten zer bait, bidezkoa zan bezela.

Basetxean bertso-billerak egiten asi giñan garaitsu artan Imanol Murua jauna Gipuzkoako Aldundiko aaldun nagusia



nola zan, ura ere bertsozalea baitzan, bi afaritan-edo parte artu zuen.

Ni neroni askotan esana nago Laurgaiñen lanean asi nintzanean, leenengo amabost urtetan nere bertso-giroa zearo atzera utzita egon nintzala. Baiña andik aurrera, poliki-poliki berriro ere leengo giro artara iristea lortu nuen. Eta mirari aundirik egin ez badegu ere, ogeita amar urte nituen garaian baiño bertso-mailla ohea nuen beintzat berrogeita amar edo irurogeirekin. Eta ori guztia lortu genuen bertsolari talde bat osatu giñalako. Orretan ere jarduteak asko balio izaten du, ez zalantzarik izan. Gaurko gaztetxo askok bezela bertsotarako prestatzeko aukera izan bagenu, guk ere zerbait geiago egingo genuen, seguru asko. Baiña egindakoarekin konforme egoteko arrazoiak badauzkagu, eta ez da gutxi.

Basetxera joan giñan ezkerro, ia astebururik geienak lanean pasatu genituen, baiña geure bizitzako egunik ederrenak ere Laurgaingo basetxe orretan igaro genituela esan bear det. Aitormen ori egiaztatzeko, zortzi edo amar bertsolari lagun dauzkat lekuko: Markos, Zendoia, Otamendi, Pello Esnal, Artzain, Olaso, Olaberria, Zatain, Lizarralde, Azpillaga, eta tarteka Egaña aundia eta Telleria ere etorri izan ziran. Xaldubik ere parte artu izan zuen iñoizka.

Basetxeko sukaldean afaritxo bat egin eta ondoren bertso-saio ederrak egiten genituen, bat-batean. Batzuetan saio luzeak gainera, iru eta lau ordukoak ere izan ziran iñoiz. Ondo gogoan daukat bein baiño geiagotan gertatu giñala afalondoko bertso-saioa egiten asi, eta nere andre zanak esango zigun, gozo asko:

–Orain baratzuri-zopa egingo dizuet, eta ori jandakoan berriz ere beste bertso-saio bat egiteko moduan jarriko zerate.

Bertsolarien partetik ez zegoen ezezkorik, eta gero goizeko bostak arteko saioak egindako egunak izan genituen. Zer alakoxe saioak baiño ederragorik bertsoa maite duenarentzat?

Gustora geunden señaleari zion orri. Eta ez gu bakarrik, etxeakoandrea ere ala egongo zion, bestela ez zigun esango baratxuri-zopa egingo zigunik ordu txikietan. Ikaragarri bertsozalea zion gure Maria.

Billera aiek gogoratuta asko gozatzen dit oraintxe ere; eta orduko nere bertsolari lagunak ere askotan aipatu izan dituzte afari gozo eta bertso-saio zoragarri aiek.

Joxerra Gartzia eta oriek basetxetik “Hitzetik hortzera” programa bat edo beste ere egin zuten Euskadi Irratian, talde osoarekin, zuzenean. ETBko kamarak ere etorri izan ziran inoiz Laurgaiña, eta orrelaxe, azkenerako oso ospetsu egin zion Laurgaingo bertso-eskola edo bertso-afari ura.

Orain ere tarteka egiten ditugu bertso-afariak, baiña Aiako Alkar elkartearen bilduta. Billera guztiak bertako partaide dan Balentin Aldalurri esker izaten dira, bera ere orrelako billera eta bertsoen zalea da eta. Bestela ez lituzke artzen dituen lanak artuko: afaria prestatu, zerbitu eta beste zenbat lan. Baiña esaera dan bezela, gustoko bidean aldarrik ez. Orrek ia dana esaten du.

## **Gipuzkoako Bertsolarien txapelketa Nagusia**

---

Aiako bertsolarien txapelketa 1963ko maiatzaren 26an egin zala esan det. Eta urrengo urteko udaberrian, berriz, Gipuzkoako Txapelketa Nagusirako kanporaketak asi ziran an eta emen. Neri Zarauzko saioan tokatu zitzaidan.

Amabost partaide bildu giñan Zarautzen, eta berriro ere neronek jantzi nuen saio artako irabazlearen txapela. Bigarren, Joxe Mari Roteta gertatu zan, Aiako saioan irugarren egin zuena. Roteta ori oso gazterik il zan, zoritzarrez, motoan izan zuen istripu txar batean. G.B.

Andik aurrera, azken aurreko saioa Eibarren tokatu zitzaidan neri, eta goizeko saiotik arratsaldekoa lau bertsolari pasatu giñan: Lazkao Txiki, Mitxelena, Garmendia eta neu.

Goizeko saioan ondo samar jardun nintzan Eibarren ere; baiña gero aundien ondoan jarri nindutenean, naiko justu. Ezin geiago eman, gizona. Prestatu ere gutxi presatuta nengoen, eta plazak jan egin ninduela esango nuke, bete-betean iruntsi. Ez nuen beintzat neurerik eta gutxiagorik ere eman. Baiña egindakoarekin konformatu bear, ura joanda gero presa egitea alperrik baita.

Gipuzkoako txapelketako azken saioa Tolosako Leidorantzokian egin zan. Goizeko saioa egin eta arratsalderako, leenago beti lau bertsolari pasatu oi ziran, baiña egun artan iru bakarrik pasatu nai izan zituzten epaileak: Lazkao Txiki, Mitxelena eta Garmendia, ain zuzen.

Egia esan, epailleen jokabide orrekin gaiñerako bertsolariak eta neroni ere aserre samar gelditu giñan. Arratsaldean ere lau aukeratuko zituztela pentsatuta jardunak giñan leiatu giñan danok.

Kontuak kontu, bertso-txapelketako kontuak alde batera uztea erabaki nuen egun artan. Eta ondorengo ia ogei

urte luzean, arik eta Zumaian Urola baillarako txapelketa jarri zuten arte, ez nintzan geiago sartu norgeiagoka-kontu orietan. Naiago izan nuen bertsoak jendartetik entzun, besteak zer egiten zuten lasai-lasai ikusi, alegia.

Ala ere, Zumaian egin zan Urola baillarako bertsolarien txapelketan parte artu nuen. Eta gogoan daukat Miako Jauregi “Urtiaberri” zanak irabazi zuela baillara orretako txapela. Neri irugarren saria eman zidaten, eta uraxe izan zan egin nuen saio bakarra.



J.M. Aranalde eta J.M. Lertxundi. Deusto, 1999.



J. Aierbe, JM Lertxundi, Hernani-Txikia, Barandiaran, Lasarte.  
Deusto, 1999.



## **Aiako bertsolarien txapelketa berriro**

---

Aian sortu zan berriro ere erriko bertsolarien indarrak eta trebeziak neurtzeko gogoia eta griña, alakoxe giroa zegoen errian eta.

Erriko leenengo txapelketa egin eta andik ogeitaka urtera, Aia eta auzoetako bertsolarien norgeiagoka antolatu nai izan zuen Aiako Udaletxeko festa-batzordeak, 1987an.

Eta ala, deialdia egin zuten, eta berriz ere bertsolariak ondo erantzun. Au da baietza eman genuen bertsolarien zerrenda: Nikolas Zendoia “Izeta”, Jabier Etxabe “Armen-dia”, Markos Manterola, Joxe Antonio Manterola “Zatain”, Martin Rezabal “Olaso”, Luis Otamendi, Leon Endaia, Manuel Lertxundi “Olaberria” eta neu, Joxe Mari Lertxundi.

Eguna etorri zan eta, estualdiak estualdi, jaialdi bikaiña egin genuela uste det, berriz ere norgeiagokarako animoak piztuta gelditu ziran beintzat, eta ori seiñale ona izaten da. Bertsozaleak aspertu ezkerro ez da berriz orrelakorik antolatzen. Ainbeste lan egin antolaketan, eta jendeak erantzuten ez badu... Aia eta inguruko bertsozaleak bazuten zer kontatua. Betikoa: zenbat buru ainbat aburu orduan ere.

Epailletza egin zuten Joxe Mari Aranalde, Antton Aranburu eta Pello Esnalen erabakia ondo artu zan. Eta urte orretako erriko bertsolarien txapela Nikolas Zendoia “Izetak” jantzi zuen. Baita bertso onenaren saria ere.

Baiña ez zan amaitu txapelketarako griña, ez ziran artan gelditu gauzak. Berriro ere txapelketa-gosea zegoen gure errian. Izan ere, aurreko norgeiagoka oriek bertso-gosea eta saltsa suspertu egin zuten leenaz gainera.

Baiña aldaketa aundi bat egin zuten antolatzaileak. Neurketaren eremua zabaldu egin zuten, txapelketa aundi-tu eta obetu bearrez. Eta Aia eta muga-errietako bertsolariei

dei egitea erabaki zuten 1988ko udaberri artan. Eta bertsolariak gogotik erantzun zuten berriz ere.

Baietza eman genuen bertsolarien zerrenda hauxe da, oker aundirik gabe: Kandido Arrojeria “Basabeltz”, Bernardo Azpillaga, Joan Joxe Eizmendi “Loidisaletxe II, Gesalaga “Xaldubi”, Nikolas Zendoia “Izeta”, Manuel Lartxundi “Olaberria”, Luis Otamendi, Pello Esnal, Eusebio Lasarte “Lasarte II”, Joxe Antonio Manterola “Zatain”, Markos Manterola, Martin Rezabal “Olaso”, Jabier Etxabe “Armen dia”, Joxe Mari Izeta eta neu, Joxe Mari Lertxundi,

Txapelketarako itza eman genuen bertsolariekin berriro ere lagunarteko afari eder batean bildu giñan erriko Alkar elkartean, eta baldintza eta arauak jarri.

1988ko maiatzaren 14an eta 21ean egin ziran leenengo bi saioak, bertsolariak bi taldetan banatuta. Eta gero, punturik geien bildu genuen zortzi bertsolariak ekainaren 4an egin genuen saio nagusia. Bernardo Azpillaga, Juan Joxe Eizmendi “Loidisaletxe II”, Pello Esnal, Joxe Antonio Manterola “Zatain”, Markos Manterola, Luis Otamendi, Nikolas Zendoia “Izeta” eta neu, Joxe Mari Lertxundi giñan saio orretarako aukeratuak.

Bertsotan ere egun guztiak ez dira berdiñak izaten, noski. Baiña egun artan, bertsozaleen arteko giroa ere alakoxea gertatu zan, eta saio on samarra egin genuela esango nuke. Danok ere ondo samar ibili giñala, alegia.

1988ko txapelketa orretako gai-emalea, Juantxo Iruretagoiena “Zulaika” izan genuen, eta epailari, berriz, Joxe Mari Aranalde, Antton Aranburu, Juan Peñagarikano “Artzain” eta Luis Arrillaga “Arruti”.

Urte orretako txapela neuri eman zidaten, eta bigarren saria Joan Joxe Eizmendi “Loidisaletxe II” errezildarrak jaso zuen. Bertso onenaren saria Pello Esnali eman zioten.



## Laurgaingo basetxearen onespena

---

Modesto Arratibel eta Garaxi Goikoetxea senar-emazteak ezkondu eta andik illabetera Laurgaingo basetxean bizitzen jarri ziran, 1958ko abuztuaren aurrenean. Eremu orretako zuzendari zan Jose Maria Azketa mendi-injeniero jaunak basetxea eta baso-mendiak zaintzeko ardura eman baitzion bikote ezkonberriari, eta ondorengo amar urtez antxe bizi izan ziran.

Garai artan Gipuzkoako Foru Aldundian presidente zegoena on Antonio Epelde zan. Eta Laurgaingo basetxe berrian Modesto eta Garaxi bizitzen jarri baziran ere, basetxearen azkunde edo inaugurazioa nola artean egiteko zegoen, presidente jaunak orretarako eguna irailaren 12a jarri omen zuen, eta garai artan orrelako ekintzak eliz giroan nola egiten ziran, inauguratzeko egunean basetxea bedeinkatzea nai izan omen zuen, eta gutun bat bidali omen zion Laurgaingo auzoan erretore zegoen on Jesus Gaztañagari, esanez nola illaren 12an basetxea inauguratzeko eguna jarrita zeukaten, eta mesedez eguerdiko ordu bata eta erdietan basetxea inauguratzera etortzeko, bazkailurretik bear ziran lanak egiteko.

“Eta orduan elkar ikusiko degu. Baiña bide batez esaten dizut, bedeinkapen-lanak egindakoan gurekin bazkaltzen gelditzeko gonbidapena egiten dizudala, eta besterik gabe ordura arte esanez agurtzen zaitut”.

On Jesus Gaztañagak gutun ura artu zuenean, bere artean parre txikiren bat egiñez, esango zuen: “Bedeinkazioaren kontura bazkari ederra egiteko moduan izango nauk”.

Baiña sarritan pozaldi oriek laburrak izaten dira, eta Gaztañaga jaunari ere alaxe gertatu zitzaion nonbait. Izan

ere, gutuna jaso baiño zerbait leenago, Gipuzkoako irurogei apaizek, Gaztañaga jauna ere tartean zala, frankismoa zala eta Euskalerrian zegoen zapalkuntza salatuz txosten bat sinatu eta bidali omen zioten Gipuzkoako gobernadore zibillari, eta denboraz autsak arrotu omen zituzten.

Aldundiko presidente jaunak, Laurgaingo erretore jaunari basetxe berria inauguratzeko egunean, ura bedeinkatu eta gero bazkaltzera bertan gelditzeko esanez gutuna bidali eta laster jakin omen zuen Gaztañaga ere apaiz talde artakoa zala, eta orduan beste gutun bat bidali omen zion, baiña leengo artatik oso ezberdiña. Bigarren artan esaten omen zion itzez itz:

“Begira, Laurgaingo erretore jauna: zuri leengo gutuna bidali eta bereala jakin nuen apaiz talde batek sinatutako txostena edo idazki orretan zu ere partaide izan omen zerala. Orregatik, ezin onartuzkoa egiten zait illaren 12ko inaugurazio-bazkari orretan zu maaikide izatea. Eta biontzako jokabiderik onena auxe izango dalakoan, mesede bat eskatzen dizut: egun orretan bederatzia baiño leen basetxeari bedeinkapena eman eta inguru orretatik leenbaileen alde egitea. Nere eskaria beteko dezulakoan, besterik gabe agurtzen zaitu, A. E. presidenteak”.

On Jesus Gaztañaga, leenbiziko gutunaren bidez bazkaltzeko gonbitea artu zuenean pozik izango zala uste nik, baiña urrengoak emango zion zer pentsatua eta buruaustea seguru asko.

Diktadura-garai artan edozer gauza egiteko eskubidea edukitzen zuten agintariak, eta apaiz aiek egin zuten idatzia gogortxo izango zan dana agintzen oituta zegoen goiko jende orrentzat.

Espetxeratu eta orrelakorik ez zieten egin, baiña garai artan elizak estadiarekin zuen “Konkordatua” zala-eta, apaizak soldata koskor bat jasotzen zuten nonbait, eta Euskalerriko zapalkuntzaren aurka sinadura egin zuten

apaizei soldatu ori kendu eta xoxik gabe utzi omen zituzten. Dirutxo aren kontura bizi ziranentzat bazan naiko zigorra, baiña nola edo ala moldatu izango ziran aurrerantzean ere. Nonbaitetik lortu izango zuten bizitzeko aiña, estaduaren morrontzatik iges eginda.

Bere sinadura eman zuten apaizak gero oso arro sentitzen omen ziran egin zutena egin zutelako, aiek eta beste askok egin zutenari esker Euskalerrria zapalkuntzatik edo menpetasun artatik irten eta askatasunaren bidean aurrera asi zalako. Garai artan ori lortzea garaipen aundia izan zala esan diteke euskera eta Euskalerrria benetan maite dutenentzat. Orrela aitortu zan, eta orrela aitortzen da orain ere. Apaiz talde aren ausardia dago lekuko, aien bultzadak piztu baitzuen Euskadi maite zutenen barruko txinparta ura.



## **Laurgain bigarrenez onesten**

---

On Jesus Gaztañaga, Aldundiko presidente jaunak esan edo agindu bezela, inauguratzeko egunean basetxearen bedeinkapena egin eta isil-isilik etxeratu omen zala entzun nion berari. Bai, bazekian ondo asko politikariak ez zutela an ikusi naiko, eta pakea izango bazan basetxe ingurutik leenbaileen alde egin bearra zeukala, eta orixe egin zuen.

Ala ere, Laurgaingo eliztarren erretore izaten beste sei urte egin zituen. Eta ez dakigu berak eskatuta ala gotzaiak aginduta, Laurgaindik Errezilla aldatu zan, eta ango erre-tore urte mordoa egin zuen. Egun batez, ordea, Errezil-dik Tolosara zijoala, bidean biotzekoak eman eta Tolosako sarreran kotxean ilda aurkitu zuten. Goian bego.

1992ko ilbeltzaren azken aldean gertatu zan on Jesus Gaztañagaren azken tamalgarri ori. Baiña erriak asko maite zuela garbi ikusi genuen Errezillen egindako illeta-elizkizun artan. Gu ere, emaztea eta biok, illetan izan giñan. Errezilgo eliza aundia leporaiño bete zan, eta elizaren jiran barruan baiño jende geiago zegoen. Aldarean, berriz, gotzai jauna meza-emaille, eta aren aldamenean eun eta ogei bat apaiz bere laguntzaille. Ura zan edertasuna, ura. Historiarako gelditzen diran illeta orietakoa izan zan, zalantzarik gabe.

Gaztañaga jaunak leendik ere Imanol Murua jaunarekin arremana bazuen, baiña Imanolek Gipuzkoako Foru Aldun-dian aaldun nagusi kargua artu zuenetik aurrera askoz ere geiago. Elkarrekin topo egiten zuten bakoitzean, on Jesusek esaten omen zion:

–Imanol, Laurgaingo basetxea inauguratu zutenean oso baldintza txarretan eman nion bedeinkazioa, politika sartu baitzan tartean, eta orduan ekintza oriek ez dira bear beze-la egiten. Orrelako basetxe zoragarriak merezi luke berrito

ondo bedeinkatzea, eta bedeinkazio berria ospatuz bertan bazkaritxo bat-edo egitea gauza polita izango litzake.

Murua jaunak, itzetik ortzera:

–Ondo zio, Jexux. Ala moduz tokatzen geran batean egingo diagu ori ere, eta egon adi lasai.

Eta orrelakoxe aipamenak egiñez bi urte inguru igaro ziran. Egun batez, ordea, Murua jaunak deitu omen zion Laurgain basetxeko etxekoandreari:

–Biar goizean iru edo lau lagun joango gera or bazkaltzera. Goiza lanean igaroko degu, eta bere garaian, amaiketakoan, zerbait artuko degula pentsatzen det, eta gero zuk nai dezuna baiña bazkari goxoa jarri.

Enkargu ori eman eta “biar arte” esanez agurtu zan aaldun nagusia.

Esan eta egin. Urrengo egunean, bezperan esan bezela, garaiz iritsi ziran Laurgaingo basetxera, eta leenengo kafea artuz sukaldean beren goxatua artu eta ondoren lanean asi ziran. Imanolek beste bi lagun eraman zituen goiz artan: Zarauzko Xabin Unzurrunzaga, Itxaropena argitaletxeko nagusia, eta aita Antonio Zavala jesuita, Auspoa bildumaren zuzendaria. Libururen bat argitaratzeko asmoz egingidako billera izan bear zuten.

Lanean saioa egin, gero amaiketakoa, eta beste lanaldi bat egin zutenean, ortxe ordu bata inguruan-edo, giro ederra zegoen eta atarira irten ziran. An aruntza eta onuntza kontuak esanez berriketan zebiltzala, beste kotxe bat eldu zan. Zein izango eta on Jesus Gaztañaga apaiza, alajaiña.

Elkarri egun onak eman ondoren, Gaztañagak:

–Au da ezustekoa! Ez nuen asko pentsatzen zuek emen topatzerik ...

Imanolen erantzuna:

–Ik nondik edo andik jakin dek gu emen gerala, eta beti eskean ari aizen bazkari ori egitera propio etorri aiz. Ondo egin dek gaiñera. Baiña bazkaria irabazteko, leenbizi lanak

egin bearuko dituk eta basetxea, mendia, inguruko basoak eta baserriak bedeinkatu bear dituk, osasun ona izan dezaten.

Ori entzutean, Gaztañaga jaunak:

–Beste erremediorik ez bada, etxeoandreami ur bedeinkatua kenduko diot, eta orduan egingo det zuk agintzen didazuna.

Alaxe, ur bedeinkatua artu eta ondoren basetxea, ataria eta Laurgaingo eremuari ur bedeinkatu ziprizitiñak jaurti zizkion. Eta ori egin ondoren, berriz, laurok bazkaltzera sartu ziran.

Imanolek neri esan zidan:

–Gurekin batera bazkaldu bearuko dek ik ere...

–Ez, leenbizi zuek zerbitu bear zaituztet –esan nion–, eta gero zuekin batera kafea artzera etorriko naiz.

Alaxe, lanak egin ondoren, aiekin maaian eseri nintzan. Alakoetan oitura zuenez, Imanol bereala asi zitzaidan bertso-eske, eta geroxeago datozen bertso aukerak kantatu nizkien Laurgaiñen bilduta zeudenei.

Imanol Murua, Zarauzko alkate, Gipuzkoako aaldun, gero aaldun nagusi, eta alderdian edo partiduan aurreko muturrean ibili zan beti. Baiña mailla artara iritsitako gizona izateko edonorekin ere arreman gozoa izaten saiatzen zan. Laurgaingo basetxean askotan izaten zala esan det leen ere, eta bazkari ofizialetan bere seriotasuna gorde bear izaten bazuen ere, bere gustoko jendearekin biltzen zanean neri esan oi zidan:

–Gaurko billera oni azken agurra emateko bertso bat edo beste kantatzea merezi likek ba...

Eta nik kantatu egiten nuen. Basetxe artan biltzen ziran politikarien artean ez zan izan umore-kontuan Imanolengana urreratzen zanik. Orretan ere oso berezia zan zarauztarra.

Basetxearen bigarren bedeinkapena egin zuten egun artan ere nola geldituko ziran ba bertsorik gabe? Imanol ain bertsozalea zan, eta aren beste iru lagunak zer esanik ez, eta bazkalondoan alako giroa oraindik eta obeagotzeko, Imanolek eskatu zidan:

–Joxe Mari, oraintxe Gaztañagari bertso batzuk kantatzeko gai ederra daukak ba, eta kantaizkiok batere beldurtu gabe.

Imanol, Unzurrunzaga eta aita Zavalak beren billera artan itz egin zituztenak Zavalak bere grabagailluan danak jasota omen zeuzkan, eta ondoren datozen nere bertsoak ere berak jaso zituen. Eskertzen det benetan. Ala ere, nik ez nekiera, isilka jaso zituen ikusten danez. Jakin izan banu urduri jarriko nintzan eta txarragoak kantatuko nituen, seguru asko. Entzuten zeudenak ere gutxiago gozatuko zuten. Orre-la, guztiok obeto atera giñan bada, zalantzarik gabe.

Beraz, aita Antonio Zavalari esker jasotako bertsoak auexek dituzu:

Apaizak naiz jokatu  
bear zan modura,  
sortua zitzazuten  
naiko abentura,  
salatzeagatikan  
zefon diktadura.  
Gaizki gelditua zan  
zuen talde ura.  
Garesti atera zan  
zuen sinadura.

On Jesus, ziñalako  
euskaldun jatorra,  
basetxean asera  
zenduan gogorra.  
Lana eginda gero  
gaiñetik zigorra.  
Gaur ondo egokitu  
zera, Jesus, orra:  
Imanolek ordaindu  
dizu leengo zorra.



Apaiz asko zeundeten  
lan orretarako,  
naiz eta gertatu zan  
zuen kalterako.  
Baiña itxaropena  
bada aurrerako.  
Gauzak aldatu dira  
gure onerako.  
Zerbait ikasi degu  
beste baterako.

Lenengo onespena  
oni ematean,  
on Jesus, joan ziñan  
amorru batean.  
Baiña gaur emen zaude  
zorion betean.  
Zein ederra genduken  
guztion artean  
au berriz ospatzea  
datorren urtean.

Aseran oso estu  
nedukan arnasa,  
emen kantatutzea  
ez baitzan jolasa.  
Gustora zaudetela  
emanikan traza,  
orain aurkitutzen naiz  
emen lasa-lasa.  
Bazkalondo oberik  
ez det iñoiz pasa.



## Neure liburuaren aurkezpena

---

Laurgaingo basetxean Modesto basozaiña eta bere emazte Garaxi bizi izaten jarri ziranetik, Aldundiko jaun gorenak billera eta bazkariak sarri antzean egiten asi ziran. Eta bazkariak ziran egunetan, ni ere antxe ibiltzen nintzan, bodegatik edariak atera eta jaso, eta bear ziran beste lanak egiten lagunduz.

Basetxera etortzen ziranak, Aldundiko presidentea, aaldunak eta zuzendariak izaten ziran geienetan. Aaldun batzuek beren errietako alkate ere nola izaten ziran, erri aietako zinegotziak beren emazteekin etorri eta bazkaria egiten zuten askotan. Orrelaxe izaten ziran basetxeko billera aiek.

Nik, Laurgaingo eremuan asi eta leenengo amar urte, basetxean bizi zan Modestoren aginduak betez pasa nituen, eta basetxera etortzen zan jendearen berri ondo ezagutzeko aukera izan nuen eguneroko jardunean.

Modesto Arratibel, amar urte Laurgaingo basetxean bizi ondoren, Hernanira aldatu zala esan dizut leen ere, bere emazte Garaxi eta seme-alabekin. Orduan gu, senar-emazteok, Aiako geure etxea utzi eta Laurgaingo basetxean bizitzera aldatu giñan seme Anjelekin, 1967ko maiatzaren 2an.

Basetxe ori Francoren diktadura-garaian iraike zuten, eta Modestok antxe pasa zituen amar urte, gutxi gorabeera. Gu bizitzen jarri eta ondorengo beste amabi urte ere dikaturaren garaikoak izan ziran.

Orduko presidente eta aaldunekin etortzen zan jendea, geiena beintzat, erdalzalea izaten zan, eta euskera zearo baztertuta egoten zan an eguneroko jardunean. Bertso-giroa, berriz, zer esanik ez. Eta giro aren barruan asko sufritu nuen. Nik leendik nuen bertso-iturri apurra zearo naastu eta atzeratuta gelditu nintzan. Alako batean, ordea,

demokraziaren garaia iritsi zanean, gauzak asko ere asko aldatu zirala esan bear det. Leen *presidenteak* bezela gero *aaldun nagusiak* asi ziran, eta abertzaleak gaiñera. Orduan asi zan nere gogoko giroa pizten.

Frankismoa bizi eta maite zuen jende ark euskera gutxi maite zuen, eta bertsoa oraindik eta gutxiago. Nik, giro-aldaketa ura zala-eta erabat galduta neukan bertso-giroa eta sena berreskuratu aal izan nuen, agintari berriak ekarri zuten giro euskaltzaleari esker. Demokrazi garaia etorri zan ezkerero, bertso-giroko billera gozo eta atsegin asko egin zan Laurgaingo basetxean, jakaña.

Gu senar-emazteak, biok ere, bertso-giro aren maita-leak giñan, eta afari eta billera aiek giro jator-jatorrean egiten ziran, noski. Beste askotan ere bai, baiña nik *Igaroari begira* idatzi nuen liburuaren aurkezpena basetxean bertan egin genuen. Liburuaren babeslea nola Aiako udala zan, orduan alkate zegoen Juan Karlos Zuloaga, Zizurkilgo alkatea, bertako alkateorde Maria Anjeles Lazkano (Aiako Elkano auzokoa bera), aita Antonio Zavala jesuita (liburuaren prestatzaillea), Teodoro Mujika (Pedro Mari Otañoren birloba, Billabonan bizi zana), eta abar etorri ziran. Garai artan Gipuzkoako aaldun nagusi zan Imanol Murua jauna eta bere emaztea ere etortzekotan ziran, baiña Aldundian ustekabeko zerbait gertatu zitzaiola eta ez zuen etortzerik izan. Izugarritzko pena zuela esan zidan Imanolek andik laster etorri zan batean, alako bazkal-giroa gozatzerik izan ez zuelako, orrelako billerak erruz maite baitzituen. Danera amar-amabi lagun-edo bildu giñan.

Bazkalondoan Laurgaingo basetxeko sukaldean izan zan giroak zer balio zuen azaltzeko ez dago itzik eta adierazteko modurik. Ura norberak bizi gabe ezin jakin leike maai-inguru artako gozamenaren berri. Andik laster aita Zavala berriro etorri zan Laurgaiña, eta ala esan zigun:

-Liburu ospetsuen aurkezpen-billeretan izatea egokitu zait bein baiño geiagotan, eta jende garrantzitsuak parte artzen du orrelako askotan. Baiña emen leengoan egin genuen billera xume eta apal artan bezelako girorik ez det iñoiz eta iñun gozatzeko suerterik izan. Benetan bazkalondo atsegiña eta alaia igaro genuen. Berriro ere orrelakoak sarri ez dira izango; orrelako lagunartean egiten diranak zerbait berezia izaten dute. Etxera abiatzeko garaia iritsi zanean, penatan irten nintzan basetxeko sukaldetik, eta orrek zerbait esan nai du.



## Albisturtarren urrezko eztaiak

---

Bein eta berriz esan det Laurgaingo basetxean billera eta bazkari berezi asko egin zutela orduko agintari eta politikoak. Eta alako billeretan an bizi giñanok istorio bereziak ikusteko aukera izaten genuen. Eta orietako batzuk kontatzen saiatu naiz labur-labur.

Donostian bazan sendi berezi bat, aita berez naparra, idazkari-karrera egindakoa, eta leenbizi Naparroako bi errit-tan udaletxeko zerbitzuak egiten jarduna, txandaka. Gero, Donostian Haziendan lanpostu bat iragarri omen zuten, eta esamiña berak irabazi zuenez, bizitzen bertan gelditu omen zan. Andik aurrera Donostian lana egiñez zebilela, berealaxe bertako alaba batekin maitemindu eta berarekin ezkondu eta bizimodu berriari ekin zion.

Idazkari orrek Pedro zuen izena, eta anai zaarrenak, Iñaxio. Alabearrez-edo, Iñaxio ori gaztetan apaiz-ikasketak egitera joan omen zan, eta gauzak parean alaxe gertatu ziralako, Pedro eta Maiteren ezkontza eta Iñaxioren meza berria biak batera egin zituzten. Egun aundia izango zan ura familia eta lagunentzako, batez ere.

On Iñaxio apaizgintzako zerbitzuetan buru-biotz, eta Pedro eta Maite senar-emazteak ezkontza-bizitzan aurrera egin zuten beren kabira bederatzi seme-alaba ekarriz. Sendi zoragarria benetan. Aita, garai artakoa zalako-edo, Franco-ren jarraitzaillea omen zan, baiña seme-alaba geienak aber-tzaleak ziran.

Semeetan zaarrena, Xabier, leenbizi Eusko Aderdi Jeltza-lekoa izan zan, eta gero alderdi ori zatitu zanean, alderdi berrira joan zan, EAra alegia.

Leenengotik indartsu asi zan alderdi ori, Gipuzkoan beintzat, eta Xabier aaldun izatera iritsi zan. Eta alaxe,

Laurgaingo basetxean billerak eta bazkariak egiteko eskubi-dea zeukan, gaiñerakoak egin izan zuten bezelaxe. Urtean bi edo iru bider biltzen ziran gutxienez bere guraso eta senideekin bazkariak egiten. Eta on Inaxio apaiz jauna ere ekartzen zuten inoiz bazkari orietara.

Pedro eta Maite senar-emazteak luzaro bizi izateko suertea izan zuten, ondo samar gaiñera, eta iritsi ziran ezkondu ziraneko berrogeita amar urteko marra gainditzera ere. Inaxiok, berriz, apaiz egin zala beste ainbeste nola zituen, iruren urrezko eztaiak batera ospatzea erabaki zuten beren senide guztiekin.

Alabearrez, Pedro eta Maiteren alaba gazteenak emezortzi urte bete zituenean ospakizun irukoitzia egitea pentsatu zuten, eta prestaketak egiten asi ziran gogotik. Ogei egun leenago, Laurgaingo basetxean berrogeita lau lagunentzat bazkaria enkargatu zuten, eta ona gaiñera, egunari zegokion bezelakoa.

Eguna iritsi zanean, Donostiako Gros auzoan Inazio donearen elizan, 11:00etan jaunari eskerrak emateko meza eta otoitzak egin ondoren, sendi orrek oso maitea zuen taberna batean amaiketakoa egin eta ordu bietatik laster, Laurgaiña abiatzeko prest jarri ziranean, senideetan laugarrena zan Inakik esan omen zien:

–Zuek joan zaitetze Laurgaiña lasai, nik Usurbileen enkargu bat egin bearra daukat eta. Antxe sartu-irten bat egin bearra daukadalako esaten dizuet. Baiña garaiz elduko naiz bazkaltzeko, eta lasai egon.

Ori entzutean, amak semeari:

–Begira, Inaki, leen ere orrelako billeretan askotan berandu ibili izan aiz. Aiek barkatuta zeudek, baiña egun berezia dek gaurko au, eta ordu bietarako Laurgaingo basetxean egon bear dek.

–Ama –erantzun omen zion Inakik–, zu lasai egon. Ni antxe izango nazu esandako ordurako.



Alaxe, ama-semeen arteko izketaldia egin eta danak Donostiatik Laurgaiñerako bidean abiatu omen ziran, ordu bietarako danak basetxean biltzekotan.

Albisturtarren sendia, Donostiako ospakizunak egin ondoren, esan bezela, Laurgaingo bidean abiatu izango zan, baiña Iñaki Usurbilen gelditu zan, an zuen enkargua egiteko, esan zuenez.

Uste baiño geiago luzatu zan ordea, eta gero presaka abiatu zanean, alakoetan gauzak gaizki nola ateratzen zaizkion edozeiñi ere, norabideak ezagutzeko oso sena gutxikoa eta despistatua baitzan, leenago iru bat aldiz egona izan arren, itsumustu artan Laurgaingo basetxerako kamiñoaren sarrera uts egin eta aurrera joan omen zan. Aia errira iristean ere berdin egin izango zuen, eta sarrera non ikusiko zuen zoratzen zijoala, Aiatik Asteasu aldera iru bat kilometrorra Altzu-zelai deritzon gunera iritsi zanean, an kamiño bat ikusi omen zuen Laurgaingo basetxerako sarreraren itxura samarrekkoa-edo -baiña bide ori Etxeta baillarako auzora dijoana izan, alabearrez-, eta an barrena zijoala baserri baten atarira eldu zanean, gizon bat aurkitu omen zuen eta galdetu:

-Arratsalde on, Laurgaingo basetxearen billa nabil. Zuk ba aldakizu non dagoen baserri ori?

Baserritarrak, irriparrez erantzun omen zion:

-Oker zabilta. Aiako erria pasatu eta iru kilometro beerago gutxi gorabeera, ezker aldera sarrera bat ikusiko dezu. Langa bat ere badauka sarreran, eta errez aurkituko dezu.

Laurgaingo basetxeko bidearen berri ain ondo eman zionean, baserritarrari eskerrak eman eta auzo orretatik itzuli omen zan, berealaxe bere sendikoeekin elkartzeko asmoz. Baiña ordurako ia irurak ziran, eta bere amari emandako itzarekin gogoratzen omen zan batez ere, eta bere erruz sendi guztiak sufrituko zuela pentsatzen, alako

ospakizuna bere erruz erdi ondatu zuelako. Ura omen zen bere barruan zeukan kezka!

Gaiñerakoak ia ordubi eta erdiak arte zai egon omen ziran, baiña amak erabakia artu zuen azkenean:

–Gure Iñakiren zai egotea alperrik izango da, eta bazkal-tzen asiko gera.

Bazkaria aurrera zijoala –ordurako iruretatik aurre-ra zijoan eta Iñakiren arrastorik ez–, anaia Xabino zearo kezkatu omen zan, istripuren bat izango zuen beldurrez, eta Ertzantzaren Bidezaingo saillera deitu omen zuen, ia Usurbil eta Aia bitarte orretan istripurik izan ote zan-edo galdezka. Erantzuna ere ala moduzkoa eman izango zioten: Oriotik Usurbil aldera bidean, “Botaleku” deritzon biurgu-nean kamioia eta kotxe batek elkar jo eta bi lagun bazirala zaurituak, eta gaiñera errepidea itxita zegoela.

Ori jakitean, Xabino bere anaia Karlos lagun artu eta zer gertatzen zan jakiteko irrikaz abiatu omen zan. Bien artean, senide eta gurasoak kezkatu Iñakiri zer gertatu ote zitzaion. Jateko gogoak erabat aldeginda, gozotasunez ospatu bear zuten urrezko eztaiegun eta urtebetetzea aaztu eta txarrena pentsatzen danak. Une garrantza izan zan uraxe, sendiarentzat bezela basetxeko arduradun geunden senar-emazteontzat ere.

Xabino eta Karlos istripua izan zan tokira iritsi zira-nean, Iñakirena bezelako auto gorri eta marka berekoa ikusi nonbait –matrikula erabat puskatuta omen zeukan– eta anaiaren autoa zala pentsatu omen zuten ziur.

Zaurituak Donostiako ospitalera eraman zituztela esan omen zien ertzaiñak, eta araxe joateko asmoz abiatu omen ziran estu eta larri. Baiña Usurbilla urreratu ziran garaian, anaia Karlosek esan omen zion Xabinori:

–Badaezpada ere basetxera deitu bear giñukek Donos-tiara joan baiño leen, nondik nora gabiltzan jakin dezaten gutxienez.

Esan eta egin. Eta Laurgaiña deitu zutenean, egundoko ezustekoa eta berri pozgarria artu zuten, zorionez. Xabino eta Karlos istripua ikustera abiatu eta berealaxe iritsi omen zala Iñaki ori basetxera. Berri pozgarria.

Leenengotik gogor samar artu zuen amak, baiña zer gertatu zitzaion esan zionean, ulertu zuen ark ere Iñakiren suerte txarra. Bere anaiak ere lasaitu ederra artu zuten ori jakin zutenean.

Zorionez eta lasaitasunean ospatu bear zuten eguna kezka betetako eguna gertatu zitzaien Albisturtarrei. Izan ere, askotan gertatu izan da aurrez egun eder eta zoriontsu bat pasatzeko ametsak egin eta gauzak oker ateratzea. Ori bai dala tamalgarria. Baiña alabearrari ez dago alde egite-rik, ezta iñola ere. Andik aurrerakoa bapo ospatu zuten beintzat, eta gaitz erdi.



## Iruzur gaiztoak

---

Laurgaingo eremuan bezela bertako basetxean ere, leenengo ogei bat urte oso gogorrak izan ziran euskal giroa maite genuenontzat. Lan asko eta giro berezi samarra. Baiña sufritu eta isiltzea zegokigun. Lana egitea, eguneroko zereginetan saiatzea. Eta lanean saiatu giñan beti.

Aiako errian ere guardia zibillak egoten ziran garai artan, eta edozer uskerigatik kuartelera eraman eta gutxieneko egurtu egiten zuten gazte-jendea. Eta jotzeaz gaiñera isunen bat jartzen ez bazuten, or nonbait. Bein alako zerbait izaten zuena begitan artu eta fitxatuta gelditzen zan bizitza guztirako.

Garai artan gauzak nolatsu zeuden ikusteko, ekintzak daude lekuko. Gerra ondorengo urte mordoska batean apaizak meza-denboran egiten zuten sermoia bera ere –jakiña, baserritar asko zan errietan euskeraz egin bear izaten zuten– gero itzaldia erderaz egitera beartzen zituzten apaizak. Beste gauza asko ere orrelatsu ziran orduan.

Garai artako mutil gazteen elkarte edo kongrezioari “Luistarrak” esaten zitzaion. Eta Aia eta Asteasuko kongregazioak elkartu eta Ernioko gaillurrean gurutze erraldoi bat zutitu zuten, 1947an. Ondotik metro eta erdiko garaieran marmolezko plaka jarri zioten itz auekin markatuta: “Aiako eta Asteasuko gaztediak elkartu eta eraikia”.

Gurutzea egin eta andik ogeita bost urtera, gutxi gorabehera, ETAre idatziak agertzen eta ikurriñak jartzen asi ziran gurutzean. Irailleko leenengo igandea garai artan Ernioko jairik ospetsuenetakoa nola izaten zan, goiz artan gurutze aundiaren goiko gaillurrean ikurriña eder bat agertu zan, eta ori jakin zutenean, Aia eta Azpeitiko guardia zibillak igo ziran Ernioko gaillurreraiño. Baiña amaika

metroko gurutzearen goiko muturrera igo ezin inola ere, eta tiroka asi eta gurutzeari goiko gaillurra puskatu zioten. Beeko marmolezko plakan ETA bi aldiz jarrita zuelako, inori ezer galdetu eta esan gabe, fusillaren kulatarekin zartaka pitzatuta utzi zuten. Aiek ez zuten bear beste arrazoirik dana puskatu eta apurtzeko. Orduko agintari eta guardia zibilak euskaldunentzat eta emengo oiturazko ekintza guztientzat gorroto bizia zeukaten. Eta orrelakoxe zapalkuntzaren mendean egon zan Euskalerrri gaixoa.

Ala ere, erdaldunak eta kanpotik etorritako jendeak emengo izkuntza eta oiturak ez maitatzea ez zan batere arritzekoa, baiña emen bertako semeak eta beti emengo giroan bizi izan ziranak beren ama eta senideen aurka egotea, ori zan arritzekoa eta sinistu eziñekoa.

Zoritxarrez orrelako bat baiño geiago azaldu zan gerra-garaian eta ondoren. Orain ere izango dira orietakoak, bai seguru asko.

Aian ere, urteko jaiak ospatzen zebiltzan gazte batzuek –alakoetan zurruta ere geitxo egin oi da eta–, “Viva Rusia!” esan nonbait, eta txibatoren batek erriko guardia zibillari salatu eta galdeketa gogorrak egiñez, amar egunean erriko kartzelan eduki zuten gazte orietako bat. Eta azkenean, bost milla pezetako isuna ordainduta atera zuten giltzapetik. Garai artarako diru asko zan ori.

Garai artan agintzen zeudenak nai zutena egiteko eskualdia zeukaten izan ere. Orrelako asko gertatu zan Aian eta Euskalerrriko beste errialde askotan. Orrelakoak aaztu egiten diran denboraz, baiña gogoratu ere bai noizik bein.

1952 edo 1954ko urte aietako batean, Azpeitiko Olazko Amabirjiñaren irudia koroatu zuten. Gipuzkoan leenengo izan zan gotzaia katalana egokitu zan, Font i Andreu jauna, ain zuzen. Esaten zutenez, Francoren semea bezelatsu omen zan gotzai ori. Eta, Olazko Amabirjiña Loiola ondoan

nola dagoen, orko jesuita zan aita Gaztelumendi izan omen zan koroatze artako zuzendari eta arduradun. Ala, aurkezpenean itz batzuk euskeraz esan zituelako-edo, gotzai bera, gobernadorea eta beste alamoduzko bat, iruron artean sortu zuten eraso gaiztoa zala-eta, Gaztelumendi jesuita ori erbestera bidali zuten. Gero, Belgikan ogei urte luze eginda, bere azkenengo urteak Loiolan egitera itzultzeko baimena izan omen zuen. Irurogeita emezortzi urterekin il zan Loiolan (G.B.).

Euskeraz itz batzuk egiteak alako zigorra merezi ote zuen? Jaime Font i Andreu gotzaiak berak, egun artan, koroatze-ekintza egiten ari ziran tokian bere anaiarekin topo egin omen zuen, eta katalanez mintzatu zirala esan zuten. Baiña arentzat ez zan zigorrik izan. Nola zigortuko zuten, bada, ain Francoren maitale zan gotzai jauna?

Ez da ulertzen erreza, baiña gauzak orrelaxe ziran garai beltz aietan. Gaur ere ez dago geiegi fiatzerik, iruzurra egiteko zai daudenak askotxo dira-eta gure errialde bedeinkatu onetan ere.





## Pagoetako parkea

---

Esan dedan bezela, Laurgaingo eremuan berrogeita iru urte egin nituen Gipuzkoako Foru Aldundiaren zerbitzuan. Eta orietatik leenengo ogeita bi urte frankismoaren garaiko politikoaren artean egin ere. Aldundian lau presidente ezagutu nituen bitarte orretan: on Jose Maria Caballero, on Antonio Epelde, on Juan Maria Araluze eta on Santiago San Martin. Azkenengo onek eman zion amaiera diktadura-arolari.

Demokrazia edo askatasuna iritsi zanean, leen *presidente* izena artzen zuen Diputazioan agintari jartzen zanak. Gero, berriz, *aaldun nagusiak* ziran aietatik aurrerakoak. Nik, nere erretiroa artu nuen bitartean, beste bost zerbitu nituen Laurgaiñen: Xabier Aizarna jauna, Jose Antonio Ardantza jauna, Imanol Murua jauna, Eli Galdos jauna eta Roman Sudupe jauna.

Aldundiko jaun goren oriek danak zuten Laurgaingo basetxea eta eremua oso maitea. Bakoitzak bere garaian eremu orretan zerbaitetan beren ekintzaren oroigarriren bat utzi zuen. Ala ere, Murua jaunak, gertukoa zalako-edo, maitasun berezia zion. Gaiñerakoak baiño arreta aundiagoz saiatu zan inguru orri babesa eta bizia ematen. Bere lanak eta aalegiñak daude lekuko.

Murua jaunak aaldun nagusiaren kargua izan zuen garaian, besteak beste, Laurgaingo eremu zabalean dauden eraikuntza zaar historikoak betiko desagertzeko arriskuan zeuden, eta danak berritu zituen ederki asko: Agorregiko burdiñola eta errotak, eta Arginberri-Elordiko lau errota berdin, danak ondakiñetan gelditzera zijoaztenak. Lan orietan adituak ziran gizonak ekarri eta txukun asko berritu zituen, eta orain antziñako ogibidearen berri jendeari emateko erakusketak egiten dituzte burdiñola eta errota orietan,

gure aurrekoak zer eratan lana eginda bizitzen ziran ikus- teko aukera emanez gaztetxoei. Iturraran baserri zaarra ere ederki berritu eta parketxe bihurturik dago gaur egun, eta bere ingurua jardin botaniko zoragarri batekin apaindu- ta daukate, munduko bazter askotatik ekarritako landare bereziz osatuta. Udaberrian eta udazkenean, batez ere, zora- tzeko modukoa da, zuaitz oriek udaberrian ateratzen dituz- ten lore politak eta udazkeneko margo arrigarritz jartzen diranean.

Laurgaingo auzoaren goikaldean dauden bi baserri, Sagas- tizabal eta Amezketalardi, biak ere oso ondatuta zeuden, berri- tu ederra eman eta alberge jarrita daude orain. Gipuzkoako ikastoletatik sarri etortzen dira gaztetxoak beren zaintzaille edo monitoreekin. Eta naturarekiko gorabeera asko ikaste- ko aukera izaten dute gaztetxo oriek, gutziz bearrekoa baita natura ezagutu eta maitatzen ikastea.

Auzo auetan ilzorlan zeuden eraikin zaar asko erabat berpiztea nai izan zuen Murua jaunak, eta berrikuntza oriek ikusirik, bera eta artan partaide izan ziranak pozak zorutzen gelditu ziran. Bear ziran berrikuntzak egin eta bakoitza bere zerbitzurako prestatu eta martxan jarri ondo- ren, bi auzoetako eremuak bat egin zituzten. Eta leenago amestu ere ezin zitekean Pagoetako parke zoragarria anto- latu zuten, eta bisitarientzat ireki eta pronto jarri zutenean, ez omen zuen neurririk Murua jaunaren pozak, gero berak aitortzen zuenez.

Bi auzoen erdiko gaillurra Pagoeta mendia da, eta biok bat egin eta parkea egin zutenean, Pagoetako parke natura- la izenez bataiatu zuten. Bisitatu eta gozatzeko bazter zora- garria gaur egun. Eta inguruko naiz kanpotar asko etortzen da urtean zear, toki lasaia eta atsegiña baita naturarekin itz egin eta gozatuz ibillaldi ederrak egiteko.

Ez diogu zor makala Murua jaunari. Parke ori martxan jartzeaz gaiñera, zearo ondatuta zegoen Altzolako eliza ere

berritu zuten, merezi baitzuen. Eliza ikusgarri ederra eta polita benetan, eta bere inguruko zelaian parke polit bat prestatu zuten, eta maai eta aulkiak jarri ibillaldi ederra eginez ara joaten dan jendearentzat. Ogitarteko bat janez edo atsedena artuz, antxe gozo-gozo egoteko toki aproposa aurkituko dute mendizale eta paseatzailleak.

Gauza oriek ain ondo atera zirala ikusita, animo eta indar berria artu zuen Imanolek beste ekintza batzuetan buru-belarri asteko. Berezko nortasunak etengabe borrokan jarraitzeko bultzada eta adorea eman zion, leen egindako lan arrigarri aiez gaiñera. Ez zan aspertzen lanean.

Murua jauna Euskalerriko politikarien artean gorengo maillan zegoen garai artan. Baiña goi-maillakoeekin arremantetan ibili arren, jende xume eta langillearekin arreman ona eta estua edukitzen zuen gizona zalako, nola bere errian ala inguruetan ere oso maitea zan, eta jarraitzaille franko izan zuen ark. Ori berezko doai berezia zuen zarauztarrak. Beste politikari askok, ordea, adur ori ez zeukatelako-edo, bekaitza eta sufritu eziña zeukaten nonbait Murua jaunarentzat. Bekaitz orrek eraginda, maltzurkeri eta azpijoko asko egin zioten beintzat, zoritxarrez.

Erriaren alde jo eta ke lanean ari zan gizona zan Murua jauna, eta aalegin artan ari zanari besteak ere lagundu egin bear zioten, baiña lagundu bearrean oztopoak jartzen zizkieten sarri. Orixe izan zan Imanolen etsairik txarrena.

Laurgaingo eremua eta Pagoetako parkearen ardura eta zainketa baztertu gabe, beste erronka aundi eta ikaragarri korapilotsu bati eldu zion garai artan. Leizarango autobidea egiteko ekintza erraldoiari, alegia. Arazo galantak sortuko zizkiola jakinda ere, lan orri aurpegia ematea erabaki zuen. Orretarako nortasuna ez du edozeinek izaten, baiña Imanolek bazuen. Ez dago ikusi besterik.

Leizarango autobidea egiteko tramiteak martxan jartzen asi orduko, ETAk meatxu gogorra egin zion Imanoli, esan

zutenez. Auxe esan omen zioten: aiek esandako lekutik autobidea egiteko, edo bestela bere bizia arriskuan jarriko zuela, eta andik aurrerakoa bere eskuetan gelditzen zala, kontuak berak ateratzeko.

Meatxu beltza eta beldurgarria benetan, baiña, ala ere, Imanolek asi zuen lanari jarraitzeko erabakia artu zuen. Politikari batzuk, ordea, Imanol arrisku artatik babestearren-edo, lan ura uzteko eskatzen asi zitzaizkion. Bearbada, aiek benetan ariko ziran, baiña beste batzuek ordea, babes-teko aitzakian autobide-eraikuntza artatik Imanol bazter-tzea naiko zuten. Eta baita lortu ere, gero beste talde batek artu baitzuen eraikuntza aren ardura eta zuzendaritza.

Murua jauna ETaren meatxupetik aske uzteko modua lortu zuten, baiña orren ordainez aaldun nagusiaren kargua uztera beartu zuten gero.

Alde batera lasaitasun ederra emango zioten, baiña berak ain gogoko zituen ekintza danak utzi eta erretiratu bearra beretzako benetan gauza samiña izango zala ez dago zalantzarik. Eta orrek bere barruan egin zion zauria ondo sendatu gabe joana izango zan mundu onetatik Imanol. Bearbada, orduan artu zuen naigabeak sortu zion gaitz maltzurak eraman zuen gure artetik.

Murua jaunak aaldun nagusi izateari uzteko bidean jarri zutela ikusi zuenean, bere lagunik maiteenekin bazkari bat egin zuen Laurgaingo basetxean, eta bazkalondoan basetxeko sukaldera etorri eta, gu senar-emazteok nola an ari giñan lanean, onela mintzatu zitzaigun:

-Badakizue etxe onetara oso pozik askotan etorri izan naizela, konfiantza osoa neukan-eta zuekin, baiña aaldun nagusi bezela emengo bisitak bukatu ditut. Lagun bezela berriz ere etorriko naiz, ordea, bai orixe.

Maria etxekoandreak erantzun zion:

-Zu, denbora-pasa zaudenean-eta etorri lasai, mendian ibillaldi bat egiñez. Amaiketakoa gure kontu, Imanol.

–Bejondaizula, Maria –erantzun zion–. Nere pena guztien artean poz aundi bat ematen didazue, eta egunen batean zorutzen etorriko naiz berriz ere. Milla esker.

Orrelaxe amaitu genuen egun artako billera gogoangarria. Begiak bete malkorekin agurtu gintuen Imanolek, eta gu ere alaxe gelditu giñan, betondoak gorrituta, malkotan.

Ez zan arritzekoa, izan ere, ainbeste urteren buruan eta ainbeste aldiz billera eta bazkariak egiñez izan genuen arremana amaitzera zijoala ikusi genuen. Eta orrelako amaierak min aundia egiten dio sentimendurik duen pertsonari.





Arg. (JM Iriondo)





## Ostera Galarzelai Txikira

---

Imanol Murua jaunak Gipuzkoako aaldun nagusiaren karguan zazpi urte egin zituen, eta bitarte orretan lan asko eta miresgarriak egiteko adorea eta kemena erakutsi zuen, esan degun bezela. Gaiñera, abertzale sutsua izanik, euskerara eta euskal oiturak benetan maite zituen Imanolek. Bere alderdikoak ondo zekiten ori, eta bere aurkariak ere bai.

Gure aberriaren sustraiak ala defenditzen saiatu zan gizonak, ainbat urtean Aldundiko aulki preziatua duintasunez eraman eta alderdi guztien eskerrik onena eta omenaldi beroena jasoz amaitzea tokatzen zitzaion, baiña ez zuen orrelako suerterik izan. Azkenean, bere kargutik bota zuten, eta jokabide ori ikusita seguru gaude Imanolek bere kolkorako itz auek esango zituela: gero erantzun au jasotzekotan, gauzak ondo eta zuzen egiteak ez dik asko balio Euskalerrri onetan.

1991n Murua jaunak utzi zuen Aldundiko aulkian urrena eseri zana garai batean Oñatiko alkate eta Barne Sailean kargudun izan zan Eli Galdos jauna izan zan. 1991tik 1995era izan zuen aginte-makila ori bere eskuetan. Baiña gutxitan ikusi genuen Laurgaingo basetxean, baldin eta Aldundiak inoizka egiten zituen billeratan izan ezik. 1995ean, berriz, Roman Sudupe jauna izendatu zuten aaldun nagusi. Azkoitiko semea, erri orretako alkatea izana eta EAJko buru, gaiñera.

Kargu ori artu zuenetik Aldundiko aginte-makilla bere eskuetan, beste lau urtean egin zituen. Leizarango autobiodean Gipuzkoari tokatzen zitzaion zatiaren ardura ere berak artu zuen, eta beste kargu geiago ere izan zituen. Baiña nola beste baillarakoa zan, Laurgain eta bertako basetxearentzat ez zuen arreta berezirik izan, nere iritziz. Aaldun nagusi jarri zan ezkeroztik geienez ere iru-lau bat aldiz bakarrik joan izango zan. Orrekin dana esana dagoela derizkiot.

Alabearrez, Sudupe jauna aaldun nagusi jarri eta andik bi urte ingurura-edo, nere emazte Maria osasun-arazoekin asi zan, eta aal zuen arte saiatu bazan ere, eziñak menderatu zuenean, gaixoa, eta sukaldaritzan lanari agur egin bearrean gertatu zan. Leenago ain alaia eta jendea biltzen ona izan zan Laurgaingo basetxeari geroz eta giro goibelagoa nagusitu zitzaion. Mariak prestatzen zituen mokadu goxoak amaitu ziranean, leengo bisitariak ere amaitu egin ziran. Ogeita amabi urtez ainbeste jende zerbitzen saiatu zanak ez zuen era orretan amaitzerik mereziko, baiña orrelaxe gertatu zitzaion gaixoari, eta arekin batera neri ere bai. Ainbeste urtean Laurgaingo eremua eta basetxea zerbitzen aalegindu giñanok, alaitasunez eta pozik amaitu bear genuen, baiña zoritxarrez goibeltasuna nagusi genuela egin genion azken agurra bizitoki eta lanbide orri.

1997ko abenduaren 9an bete nituen irurogeita bost urte, eta nerekin batera Aldundiko beste emezortzi langille lansaritu gintuzten. Urte artako Santo Tomas egunean, Aldundiko areto nagusian Sudupe jaunak itzaldia egin zuen, bertako langille izan giñanoi eskerrak eta zorionak emanez. Eta saritxo bana emanez egin ziguten omenaldi ura jaso ondoren, jatetxe batean bazkaldu genuen, Sudupe jauna eta Aldundiko beste jaun batzuekin.

Nik orrelaxe amaitu nituen berrogeita iru urtez Laurgaingo eremuan eta basetxean Aldundiarentzat egindako zerbitzuak eta lanak.

Aldundiko zerbitzuak ofizialki Santo Tomas egun artan amaitu arren, Laurgaingo basetxean beste bi illabete inguru igaro genituen. Azkenik, Laurgaingo eremua eta basetxea 1998ko otsaillaren 14an utzi genuen, neuk, neure emazte Mariak eta Anjel seme zaharrenak. Seme gazteena, Nikanor, Getariako alaba Illazki Arrillagarekin ezkondua zan ordurako, eta bizitzen Getarian jarria. Anjel seme zaarrenarekin aldatu giñan, bada, Aiako geure Galarzelai Txikira.

Errian ogeita amabi urte leenago utzi genuen Galarzelai Txiki kabi zaarra bota eta berria egiña genuen ordurako, leen bizitza bakarra zana gero bikoiztu eta etxe atsegin eta polit askoa eginda. Baiña nik gero lagunei gertakizun polit au kontatzen nien: besteak beste, ezkondu giñanean, txori gazteak kaiola zaarrear jarri gintuan bizitzen; eta andik ogeita amabi urtera, alderantziz, txori zaarrak kaiola berrian.

Ori entzutean nere lagunak parre egiten zidaten, baiña egi borobilla zala garbi ikusten da. Or ez dago gezurrik.

Tamalgarría bada ere, ez dago atzera itzultzerik. Leen ere legea orixe zan, orain ere bai eta gero ere alaxe izango da. Gizakia orren aurka alperrik saiatuko da, ez baitago zeregiñik.



## Erretiroa artuta gero

---

Ondoren datozen bertso auek, erretiroa artu nuenean jarritakoak dira. Donostiako *El Diario Vasco* egunkarian argitaratu ziran, 1998ko apirillaren 14an.

Ogeita iru urtez eldu nik  
ogibide-langintzari,  
Laurgain auzoko eremu ortan  
eraso basozaintzari,  
al zan ondoen erantzunikan  
eginkizun bakoitzari,  
une danetan aurre egiñez  
bein emandako itzari.  
Berrogeita bi urtez izan naiz  
Aldundiko zerbitzari.

Basozain gisa ibili nintzan  
lenengo amaika urtean,  
eta geroztik zerbitzu egin det  
basetxeko aterpean.  
Bertako arduradun izan naiz  
lansaritu bitartean,  
arazo danei aurre egiñez  
andrearekin batean.  
Oitamar urte pasa ditugu  
politikoen artean.

Jauntxo oiekin urte askoan  
genituen arremanak.  
Gauza askoren aztarna degu  
orretan jardun geranak.  
Gutziz gozoro artzen genitun  
inguratzen ziran danak,  
iñoiz batzuek ondo ulertzen  
naiz ta sortu naiko lanak.  
Arazo danak gainditzen ditu  
borondatea daukanak.

Francon garaian bat lendakari  
Aldundian jartzen zuten:  
Epelde, Araluze, San Martin,  
txandan egin zizkiguten.  
Laurgaiñen aiek zerbitutzeko  
ni morroi artu ninduten.  
Aro guztiak beren amaia  
nola beti izaten duten,  
diktadurako lendakariak  
ere amaitu ziguten.

Demokraziko garaian ziran  
bost diputadu nagusi:  
Aizarna jauna aulki orretan  
eseria zan lenbizi.  
Jarraian Ardantza ta Murua  
leku emanaz Galdosi.  
Eta azkenik Sudupe jauna,  
nik errekin nion utzi.  
Danak biotzez agurtzen ditut  
besarkada eta guzi.

Ainbat alderditako jauntxoen  
zerbitzari naiz egona.  
Oiek danekin asmatutzea  
ez zan, ez, izaten broma.  
Ni ezjakiña, baiña aientzat  
jakintsua bezin ona,  
nola zekiten guztientzako  
borondatetsu nengona.  
Leku danetan estimatzen da  
konfiantzako gizona.

Basetxe inguruko naturaz  
mintzatu nai det zentzunez:  
zer gau gozoak ontzen oiuk  
sortzen zuten oiartzunez!  
Udaberrian lilluraturik  
zuaitzen edertasunez.  
Txoraten nintzan kuku ta beste  
txorien kantak entzunez.  
Utzi orduan konturatu naiz  
neuzkan aberastasunez.

Ene basetxe, ainbat urtean  
zaindu zaitut maitekiro.  
Zu agurtzeko une onetan  
barruan ez daukat giro.  
Zuk egur eze artu ninduzun,  
utzi nazu erdi iro.  
Azken mezua zuzentzen dizut  
saminki eta eztiro:  
banua, baiña zu ikustera  
itzuliko naiz berriro.





## Laurgaingo bi aroak

---

Laurgaingo eremuan leenengo amaika urte basozaintza-zerbitzuak egiñez igaro nituela esan det. Beste ogeita amabi urte, Gipuzkoako Foru Aldundiak Laurgaingo eremuan daukan basetxeko zerbitzuak begirunez eta arretaz aal zan ondoena betez egin genituen Mariak eta biok. Berrogeita iru urte aundi eta eder guztira. Badala zerbait esango nuke.

Ainbat urteren buruan basetxe orretan eta Laurgaingo eremuan bizi izan genituen gazi-gozoek eta beste ainbat gertakari bitxiren artean, mende erdiko historia bi zatitan banatuko nuke azkenik, eta zati bakoitzean zein lege ezberdiñak izan ziran gogora ekarri.

Nik urte orien buruan ikusi ditudan gauzarik berezie-nak liburu onetan jartzen saiatu naiz. Badakit askoz gauza geiago gertatu zirala, baiña danak jartzea eziñezkoa da, eta batzuk benikan idatzita utzi nai nituen, bestela aizeak eramango zituen eta. Laurgaingo ainbat oroitzapen betirako galduko ziran, eta ori ez komeni.

Gipuzkoako Foru Aldundiak Laurgaingo eremua erosi eta martxan jarri zuela irurogeitaka urte dira, eta bitarte orretako historia bi zatitan banatuta dago. Txanpon baten bi aurpegiak bezela, Laurgaingo historiaren bi zatiak ere zero ezberdiñak gertatu ziran, eta ikusi dezagun leenengo zatitik bigarrenera zer aldatukuntza izan ziran. Argi eta garbi jartzen aaleginduko naiz, irakurleak gertakizunen berri jakin dezan.

Leenengo zatia, edo aroa, diktaduraren garaikoa izan zan, esan dedan bezela, eta orduko legeen menpean jartzen ziran agintariak. Naiz eta beren izatez jator antzekoak izan, beti ekintza aietan zebiltzala, azkenerako diktadore biur-tzen ziran, noski. Esaera zaarra da, naiz arkumea izan,

auntzaren esnea edanez azten bada, auntzak bezelako illajea jartzen omen zaiola. Eta ez dago zalantzarik orduko politikari askori ere orixe eta bera gertatu zitzaiola.

Laurgaingo eremuan eiztari, perretxiko-biltzaille eta basoz baso ibiltzen ziranei zearo galerazi zien Aldundiko zuzendaritzak an ibiltzea, eta jende orri egurra emateko agintzen ziguten basozaiñoi. Eta agindu ori betetzen danekin borrokan gogor egiñez ibili giñan orduko basozaiñak. Leenago bakoitzak nai zuena egiñez ibiltzen oitutako jendearentzat gero dana galeraztea gogorra zan, eta orixe eta bera gertatu Laurgaingo eremuan ere.

Leenago diktaduraren garaiko lege gogorren menpean egon eta gero demokrazi garaia etorri zanean, Laurgaingo eremua parke edo atseden-toki biurtu zuten, eta andik aurrera, leenago jende guztia bidaltzen eta zigortzen saiatzen giñan bezela, gero aalik eta jenderik geiena erakartzeko propaganda egiten saiatzen ziran komunkabideetatik. Leenago kamiño-ertzean unetxo batean egon nai zutenei ere ez genuen uzteko baimenik izaten, eta danak andik bidali egin bear zirala. Ura zan guri ematen ziguten ordena edo agindua. Gero, ordea, parke biurtu zutenean, jendea bertan goxo-goxo egoteko aukera guztiak jartzen aalegindu ziran: maaiaak eta eserlekuak jarri, jatekoak prestatzeko toki bereziak, ura aukeran, umeak jolasteko tresneria, abar eta abar.

Ogeita amar urte leenago esan izan baligute Laurgaingo eremuan zer aldakuntza egingo zan, nik neronek ez nuen sinistuko beintzat, eta beste iñork ere ez, seguru asko. Miraritzat artzeko moduko aldakuntzak izan ziran, bada, Laurgaingo eremuan, eta Aldundiko agintarietan ere bai, jakiña.

Gizaki batek larogei bat urteko bizialdia izateko suertea izaten badu, bere aurtzarotik zaartzarora aldakuntza aundiak beti ezagutuko ditu. Nere garaian ere gorabeera

aundiak gertatu dirala garbi ikusten det. Eta aurrera ere alaxe jarraituko duela ematen du. Bestela gauza guztiak jirabiraka darabilzkian munduaren ardatz ori autsi edo orrelako zerbait gertatu beariko luke. Eta ori aldez aurretik iragarri dezakeanik ez dagoela uste det, oraingoz beintzat.

Ikusi degu Laurgaingo eremuan eta bere inguruan irurogei urteren buruan zer aldakuntza gertatu ziran, eta bi aro zearo ezberdin nola izan ziran. Beste gai askotan ere sinistu ezin diran moduko aldakuntzak ezagutu ditugu. Leen pekatu ziran gauzak edo ekintzak, orain oso ontzat eta begi onez ikusiak daude. Leen neska gazte bat aurdun gelditzen bazan, asi bere guraso, senide, eliza eta erri osoaren aurrean lotsagarri eta baztertuta gelditzen zan bizitza guztirako. Orain, berriz, aita edo bikote lagunik gabe ohea dala aurrak izatea, eta leen ain ekintza lotsagarria zana, gaur meritua bezela ikusten du askok.

Nik pozik jakingo nuke, leengoak danak atzeratuak eta ezjakiñak giñalako ote zan ori, ala oraingo belaunaldi onek kontzientzia eta nortasuna galdu dituelako izan ote litekeen.

Ba, zalantza edo galdera oriek airean gelditzen dira, eta ni erantzunaren zai.



## Emazte maitearen eriotza

---

Nere emazte Maria eta ni Laurgaingo basetxean ainbat urtean egin genituen lanak eta bitarte orretan izan genituen gazi-gozoen, bertso-afari alai eta umoretsuen eta geiagoren lekuko izan giñan basetxe miresgarri orretan. Baiña egun garratzak ere izan genituela aitortu bear det. Egia esan, gozo eta atsegiñak geiago izan genituen ordea.

Aiako Galarzelai Txiki utzi eta Laurgaingo basetxera joan giñanean, sasoi betean geunden ni eta nere emaztea, bata baiño bestea indartsuago. Baiña ogeita amabi urte geroago berriro Aiako kabitxora itzuli giñanean konturatu giñan basetxe bedeinkatu orrek asko eman zigula, baiña baita asko kendu ere. Egur eze joan giñan ara, eta irotutako zuaitzak bezela irten handik. Ni artean or nonbait, naiz eta leengo sasoi ura urrun gelditu zan, baiña gure Maria gaixoa oso ondatuta itzuli zan. Odolean azukrea zeukan, ikusten danez, eta aren eragiñez bere osasuna asko murriztuta zeukan. Besteak beste, gaitz zital ark begietara jo zion, eta ikusmenik gabe utzi zuen.

Bere senarra nintzalarik, gero bein baiño geiagotan esana nuen nere emaztea itsututa gelditu zanean neure bizitzan egin nuen negarrik geiena orduantxe egin nuela. Etsipenak jota egon nintzan, eta illunpe beldurgarri artan aalegiñak eginda gero, Donostiako ospitalean lana egiten zuen Ostolaza okulistik esan zigun Bartzelonako Imo klinikan bazeukala lagun bat oso sendagille ona, begietako ebakuntzak egiten iaioa eta berezia zana. Eta bere bitartez Bartzelonako klinika artara joan giñan. Doctor Mateo sendagilleak leenbizi ikusi eta andik zortzi egunera ebakuntza egin zion. Leen bezela eta urremanik ere ez, baiña zerbait ikusten zuela jarri zuen beintzat, eta ez zan gutxi.

Maria oso pozik itzuli zan andik, eta bere sendikoak ere berdin: pozak zorutzen. Ikusmen laburra gelditu zitzaion, baiña batere gabe egon zanarentzat gauza aundia izan zan ura lortzea. Goseak dagoenarentzat jateko txarrik ez da izaten, eta ikusmenik ez duena oraindik eta areago.

Gero, zeukan ikusmen apurrarekin ondotoxo moldatzen zan sukaldeko eta etxeko lantxoak egiteko. Baiña tarteka, azukrearen eragiñez, gorputzeko zatiren batean infekzioak sortzen zitzaizkion, eta orduan ospitalera joan bear berriro ere amar-amabost egunerako. Ori urtean iru edo lau aldiz egin bear izaten zuen, eta joanaldi bakoitzean asko sufritzea tokatzen zitzaion. Eta ori zan txarrena. Benetan aspertu eta etsita ibili zan, gaixoa, bizimodu arekin. Sufritzen aspertzen ez danik ez baita iñor munduan. Ez da izango ere, bestela gauzak aldatu bearko dute.

Maria ikusmena galduta egon ondoren, berriro bista zerbait berreskuratu zuenean, benetan poztu giñan, bizia luzatuko zitzaiola uste baigenuen. Baiña berriz ere gutxitzen eta gutxitzen, eta bi urteren buruan itsutu egin zan. Etsipen beltzaren menpean gelditu zan berriro, geiago ikusiko zuen itxaropenik gabe, eta zer egin ez genekiela bere sendikoak.

Berriro ere Bartzelonara joan giñan Ostolazaren bitartez, etsi ezinda. Baita Mateo sendagille jaunak beste ebakuntza egin ere, eta segurtasun geiago izateko, begiaren barrungo aldetik silikona jarri ziola esan zigun, eta bigarren aldiz ikusmena izatea lortu zuen. Berriz ere pozik itzuli zan etxera, eta gaiñerakoak ere ez giñan aserre. Jakiña, bagenuen pozteko arrazoirik asko, bai orixe.

Bartzelonako Mateo doktoreak bigarren aldian ere ikusmena lortu zion, baiña Mariaren gorputzeko babesak gaitz zital eta maltzur ark menperatzen zizkion geroz azkarrago, eta Ostolaza jaunak esan zigun:

-Begietan jarritako silikona orrek bi urte eta geiago baditu eta orain kentzea komeni da...

Esan eta egin. Baiña ura kentzeko ebakuntza egin zionean, beste infekzio gaizto batek eraso zion, eta danak parean egokiturik, egoera ari aurre egiteko bere gorputzean indarrrik ez zeukalako-edo, 2005eko abuztuaren 13an, goizeko laurak eta amarrean il zan. Bere ondoan aurkitzen giñan neu, bi semeak eta erraiña Illazki. Itzik gabeko azken agur maitetsu eta samiña eginda joan zan beste mundura.

Ura zan momentu tristea, eta ura zan naigabe beltza! Agur, Maria Kontzepzion, laster arte. Izan zorientsu beti sinistu dezun zero-goietan.

Maria Kontzepziona, erretiroa artzean, egun lasaiak eta paketsuak izateko ametsak bagenituen, merezi ere bazuen-eta iñork merezi izatekotan. Baiña ez zuen suerte aundirik izan gaixoak.

Emen izan ez zuena beste nonbait izan dezala. Orixe opa diogu biotza betean ain maite izan genuen guztiok.

## Emazte zanaren oroitzarrez

---

Maria emazte maite zanaren gorazarre eta omenez dozena erdi bat bertso jarri nuen ura il eta gero. Ona emen:

Bi milla eta bosteko urteaz  
nago mintza bearrean.  
Abuztuaren amairu goiza  
eldu zan zoritxarrean.  
Nere andrea une ortantxe  
zegon azken agurrean.  
Beraren alde eskatu nuen  
otoitz sutsu xamurrean:  
Jesus maitea, artu ezazu  
zeure zeru ederrean.

Sendagilleak "Maria il da"  
ematean albiste,  
alargundua sentitu nintzan,  
ura zan une tristea!  
Alibio bat neukan neuregan:  
fede biziz siniste.  
Andre maitea, nik naiko nuke  
zuregana iriste,  
emen itzaltzen naizen garaian  
zeure ondoan piztea.



Ene Maria, gogoan daukat  
zure eriotz-orduan,  
ni ta bi seme eta erraiña  
an geunden zure onduan.  
Azken arnasa zuk ematean  
guk negar egin genduan.  
Gure bizitzan gauz askorekin  
gertatzen zaigun moduan,  
zu joatean oroitu giñan  
zenbat balio zenduan.

Maria, kementsua ziñan zu  
gaixotu baiño lenago.  
Gaitz maltzur batek erasotzean  
ondatu ziñan zearo.  
Zuri laguntzen saiatu giñan,  
ekintza oberik eztago.  
Len asko maite genduen baiña  
auxe aitortzeko nago:  
gaixo-denboran maite genuen  
sekula baiño geiago.

Sasoi oneko ziñan, Maria,  
jun giñanean Laurgaiña.  
An oso ondo bete zenuen  
ainbat urteko kanpaiña.  
Irribartsu ta alaia ziñan,  
ta borondatez bikaiña.  
Guk ezin eman zuregandikan  
jasotakoen ordaiña.  
Zuri zorretan gelditzen gera  
zerbait egin degu baiña.

Ogeita amairu urte igaro  
Mariak Laurgain auzoan,  
eta azkenik gaitz maltzur batek  
sortutako arazoan,  
orrelaxe eroria ziñan  
eriotzaren lazoan.  
Guk zure alde eskatzen degu  
otoitz edo errezoan:  
zeruko Aitak artu zaitzala  
berekin paradisoan.



Bizia darie Joxe Mari Lertxundiren oroitzapen hauei. Bizia, sentimendua, esker ona, umorea, egia...

Gipuzkoako Aldundiaren langile izan zen Joxe Mari berrogeita hiru urtez. Horietako hogeita hamabi eman zituen Aiako Laurgaingo basetxean, emazte Mariarekin. Batik bat, bere bizitzako zati handi horren oihartzun bizia jasotzen dute oroitzapenek.

Oroitzapen guztiak bezala, gazi-gofoak dira, baina gehiago dute gozotik eta atseginetik. Oroitzapen asko bezala, era nahasian ageri dira batzuetan eta behin baino gehiagotan ageri ere, baina azken batean denak dira ibai beraren xuxurla eta kanta.

*Basetxe inguruko naturaz  
mintzatu nai det zentzunez:  
zer gau gofoak ontzen oiua  
sortzen zuten oiartzunez!  
Udaberrian lilluraturik  
zuaitzen edertasunez.  
Txoratzen nintzan kuku ta beste  
txorien kantak entzunez.  
Utzi orduan konturatu naiz  
neuzkan aberastasunez.*



Gipuzkoako  
Foru Aldundia



ORAIN  
GIPUZKOA

ISBN 978-84-7907-790-7



9 788479 077907